

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Astigarraga



Aurkibidea

Udalerria: Astigarraga

Sarrera



Gipuzkoako ipar-ekialdean dago kokatuta, Urumea ibaiaren ezkerrean, kostaldetik 5 km-ra.

Iparraldean Donostia eta Errenteriako udalerriak ditu mugakide; hegoaldean, Hernani eta Donostia (Landarbasoa); ekialdean, Errenteria; eta

mendebaldean, berriz, Donostia eta Hernani.

Udalerri hau erreka askok zeharkatzen dute, hala nola, Urumea ibai-adarrak diren Zakurmendegiko erreka, Oianume erreka, Epele erreka, eta Pasaia ibaira urak biltzen dituen Putzueta erreka. Auzoak hauexek ditu: Galtzaur, Portutxo, Errekalde, Ergobia, Gurutzeta, Benta eta Santiagomendi. 1943-1987 bitartean Donostiaren zati izan zen Astigarraga. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

Argazkia: Josu Goñi Etxabe

- **Biztanleak:** 5.304
- **Euskaldunak:** %58,25

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **37**
- Zintak: **47**
- Pasarteak: **804**
- Transkribatutakoak: **66**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **804**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Juanita Aldanondo Garmendia (1928-2017)



Aita Martutenekoa zuen eta ama Astigarragako Santiomendikoa. Bera Astigarragan jaio zen, Lizardi baserrian. Oso txikitatik mojetan ikasi zuen harik eta 16 urte bete zituen arte. Bere amonak Donostiako etxe aberats batzuetatik ekartzen zituen arropak garbitzen egiten zuen lan, eta bere ama merkatura joaten hasi zen. Berehala ikasi zuen berak ere merkaturako bidea eta amari laguntzen ibili zen hamabost urterekin hasita. Gero, berak jarraitu zuen lanbide horrekin. Loreak izan zituzten beti etxean eta orain bere seme-alabek loradenda dute Lizardi baserrian bertan.

Ixabelita Almandoz Almandoz (1930)



Almandoxeneko etxean jaio zen; gurasoak Astigarraga bertakoak zituen. Hiru senide ziren. Amonak denetik saltzen zuen dendan. Zortzi urterekin Berara bidali zuten interna, eta gero Donostiara, moja frantsesekin ikastera. Batxilergoa egin ostean maistra titulua atera zuen. Astigarragan hasi zen maistra, eta gero Ramon Vizcaino enpresan ibili zen lanean, administrazioan. Senarra izango zuena ezagutu zuen bertan. Ezkondu egin ziren eta lau alaba izan zituzten. Lehengo kontuak idazteko zaletasuna du Ixabelitak.

Inaxio Aramendi Telletxea (1928)



Astigarragako Ergobia auzoan jaio zen. Ama Astigarragakoa bertakoa zuen eta aita, berriz, Itsasondotik etorria. 9 senidetan hirugarrena izan zen bera eta, 14 urte besterik ez zituela, burdingile ofizioa ikastera joan zen Donostiara. Horretan lan egin izan zuen jubilatuta arte, nahiz eta aluminioa gehiago lantzen zuten azken aldera. Emaztea Ordiziakoa hartu zuen eta Astigarragan bizi izan dira ezkonduz geroztik ere.

Salbador Arana Agirre (1928)



Astigarragako Gazteluberri baserrian jaio zen, orduan denek "besamotzan etxia" izenaz ezagutzen zuten etxean. Aita bertakoa zen eta ama Ermañakoa. Bi senide izan ziren eta anai-arreba biek mojekin ikasi zuten. Etxean barazkiak merkatuan saltzetik bizi ziren eta aitonak sagardoa ere saltzen omen zuen txotxetik. Berak Donostiako Amara auzoko gas-fabrikan egin zuen lan erretiroa hartu zuen arte. Astigarragako emakume batekin ezkondu zen eta bertan bizi izan dira geroztik ere.

Mertxe Arrieta Matxain (1938)



Gaztañaga baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Usurbilgoa. Lau senide ziren, bera neska bakarra. Mojekin ibili zen eskolan. Ama Bretxara joaten zen tratuarekin, eta batzuetan berari ere egokitzen zitzaion lan hori. Mertxe umea zenean, Gaztañaga baserria sagardotegia ere bazen, eta Donostiara ere eramaten zuten sagardoa, karreto-barrikan, han basoka saltzeko (Anjel kaleko lokal batean). Aita zaborra biltzera ere joaten zen, galerarekin, Donostiara, gero konposta gisa erabiltzeko.

Sabina Arruabarrena Oiarzabal (1928)



Bere jaiotetxea Astigarragako plaza-plazan dago. Denborarekin eta bertan bizi zirenak aldatu ahala, izena ere aldatuz joan zaio etxeari. Horrela, Sabina jaio zenean Markosene izena bazuen ere, geroxeago Juanane (bere amaren izena Juana izaki) eta orain Arruabarrena deitzen diote bertakoek. Lau senide izan ziren eta Gerra Zibilean gerta zitekeenaren beldurrez, amak Markinara bidali zituen bi alabak. Han hamaika hilabete egin zituzten eta itzuli arte amak ez omen zuen beren berririk izan. Arruabarrenaren goiko solairuan Eusko Etxea omen zegoen eta ondoko etxean "zentro errepublikanoa". Ezkondu eta Astigarragan bertan gelditu zen. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarriketa, gerrako kontuak jasotzeko ([ikusi euren webgunean](#)).

Andoni Arzallus Aristi (1932)

Astigarragako Ergobia auzoan jaioa, Estanko etxean. Lau senidetan zaharrena, gurasoak bertakoak zituen. Etxean denda eta taberna zituzten, baita sagardotegia ere.



Astigarragako eskola publikoan ibili zen, ondoren Hernanin egin zuen batxilergoa, fraide oblatuekin, eta Iruñera joan zen maisu mekaniko ikastera. Perito Industrial ere ikasi zuen, Donostian. Afrikan egon zen soldadu. Hainbat tokitan egin du lan, azken urteetan Xei altzari lantegian; anaia zen sortzaileetako bat. Donostian bizi da. Altzakoa du emaztea, eta elkarrizketan hura ere bazegoen. Besteak beste sagardogintzaz aritu da Andoni.

Ainhoa Basterra Iturregi (1991)

1991ko apirilaren 16an jaio zen Ainhoa, Donostiako ospitalean, eta Astigarragan bizi izan da beti. Bilbotarrak ditu gurasoak, anaia zaharragoa du, eta Diseinu Grafikoko ikasketak eginak ditu. Elkarrizketa egin genion garaian EGA azterketa gainditzeko prestaketa ikastaroa egiten ari zen Astigarragan. Lidia Sanchez euskaltegiko ikaskidearekin batera egin genion elkarrizketa, eta animaliak izateari, Donostiako parranda giroari eta aisialdiko beste hainbat konturi buruz mintzatu zitzaizkigun.



Antonio Berasategi Mintegi Borda (1923-2018)

Astigarragako Borda baserrian jaio bazen ere, Seguratik (gaur egun Idiazabalen dagoen Ursuarandik) etorriak ziren bere gurasoak Astigarragako baserri berrira, hiru seme-alaba, aitona-amonak eta etxean zituzten trasteak gurdian hartuta, idi-parearen laguntzaz. Lan asko eginez, berehala zuzendu zuten baserria, lanean ohituta baitzeuden beren guraso eta aitona-amonak. Antonio han jaio zen, eta guztira zazpi senide izan ziren. Baserri lanetan aritu zen soldaduskara joan arte. Gerra garaian, Pelaio izan zen eta kornetarekin abisuak ematen aritu zen; soldadu garaian musika-bandan egon zen; eta, gainera, ez zuen instrukziorik ikasi beharrik izan. Handik itzuli zenean, lan ugaritan aritu zen han eta hemengo tailerretan: mekaniko, esate baterako. Astigarragan bizi izan da ezkondu eta geroztik ere.



Damiana Etxaiz Mujika (1936-2011)



Ama eta aita Astigarragakoak zituen, eta bera ere Bustieta baserrian jaio zen. Senideez eta gurasoez gainera, bi osaba zahar eta lehengusu bat ere bizi ziren eurekin. Beraiek oso gazteak zirela, ama hil zitzaien, eta lehengusua arduratu zen etxeko martxaz, harik eta Damiana pixka bat koskortu zen arte. Berehala egin zuen Damianak lantegi baterako aukera. "Papelera del Norte"n egin zituen zazpi urte eta oso gustuko lana zuen hangoa. Bere jaiotetxera ezkondu zen papertegiko lana utziz, eta baserriko eta etxeko lanak egin izan ditu ordutik.

Antonio Etxeberria Olano (1919-2012)



Astigarragan Tabla baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da azken urteetan ere. Sagardotegia izan zen Tabla baserria, bi bizitzako etxea. Jende asko joaten zen bertara, baita Donostia aldetik ere, sagardoa prest zegoela jakiten zutenean. Lau urte zituela hasi eta hamaika urte bete zituen arte, doktrina ikasi zuen; hamar urterekin, "azkeneko komunioa" egin zuen. Beste lan batzuetan ere aritu izan bazen ere, karneta atera eta Astigarragako autobusetan txofer ibili zenekoa kontatzen zuen. Emakumeen buru gaineko otarreak autobus gainera igotzen ari zela, herriko hiruzpalau gizonak bere kontura apustua egin omen zuten; garai hartan edozein aitzakiarekin egiten omen ziren apustuak.

Miel Etxeberria Zalbide (1939)



Astigarragako Santiago enean jaio zen, Hernani eta Astigarragako mugan. Lau senidetan gazteena, Ergobiko eskolan ibili zen, nahiz eta denbora gutxiz izan. Soldadu joateko deitu ziotenean, Afrikara tokatu zitzaion, baina Loiolan egitea lortu zuen. Bere benetako afizioa igeltserotza izan da eta inguruko sagardotegi guztietako obretan izan du egiteko lanen bat. Berean ere, txikitatik ezagutu izan zuen dolarea eta sagardoa egiten dute oraindik ere.

Joxepa Goñi Mendiguren (1943)



Santiagomendi auzoko Beizaga baserrian jaioa, 11 urterekin Errekalde baserri-sagardotegira joan zen neskame. 14-15 urte zituenerako inprenta batean eta lantegi batean ibilia zen lanean. 15 urterekin tratua (esnea eta barazkiak) saltzera joaten hasi zen Donostiara, amaren orde. Barkaiztegiko [Joxe Mari Irizar](#) ezagutu zuen sasoi horretan, eta handik urte batzuetara, 23 urterekin, Barkaiztegi sagardotegira ezkondu zen. Biek eraman dute sagardotegiko martxa (gaur egun semeetako bat da arduraduna).

Joxe Goñi Urreaga (1928)



Aita Hernaniko Ibarluzekoa zuen eta ama Astigarragako Gurutzetakoa. Amaren jaiotetxean jaio zen bera ere, eta han bizi izan da geroztik. Gerra lehertu zenean, Herrerara joan ziren bizitzera eta hamabi urte zituela itzuli ziren Astigarragara. Hamalau urterekin Donostian hasi zen koipeztatzaile-lanetan tailer batean eta handik joan zen soldadu Loiolara. Sagardoa betidanik egin izan dute etxean eta hainbat txapelketatan ere parte hartu izan du emaitza onak lortuz.

Prudentzio Irazustabarrena Etxeberria (1924-2018)



Guardia baserrian jaio zen. Gurasoak Lasartetik etorri ziren eta Marques de Villafrancaren etxe horretan jarri ziren maizter. Sei seme eta alaba bat ziren, bera hirugarrena. Arreba hamalau urte gazteagoa zuen; eta, orduan ohikoa ez bazen ere, txikitatik etxe barruko lanak egiten ikasi zuen. Ama lanean zen bitartean, berak eltzekoa jartzen zuen eta plantxa ere egin izan zuen noizbait. Baserriko lanez gain, neguan ahal zen tokian egiten zuen lan: harrobian, almidoi-fabrika, hiltegia...

Felixa Izagirre Agirregabiria (1929)



Astigarragan jaio zen baina bere haurtzaroko lehenengo oroitzapenak Mexikokoak ditu. Bi urterekin joan ziren ama eta biak Atlantikoaren bestaldera, han baitzegoen Felixaren aita, zesta-puntako eskumuturretako xisterak egitera bertara joana. Han zeudela, aita istripu batean hil zen eta Felixak 8 urte zituela itzuli ziren Astigarragara. Amak etxe bat berritzeko eskatu zuen bertan eta hura bizitzeko prest egon bitartean, amaren baserrian bizitu ziren (ama Itziarkoa zuen baina oso txikitatik Astigarragan bizi zena, Felixaren aita bezala). Gaztetan josten ikasten aritu zen tailer batean eta mojetan ere bai. Markesaeneako emakume batekin aritzen zen, beste neska batzuen artean, parrokiko mantelak eta gainerakoak josten. Abesbatzan ere ibili zen, nahiz eta bere lagunak han zebiltzalako ibili zela aitortu. Astigarragan bizi izan da, Mexikoko 6 urteak ez gainerako denboran.

Ixabel Labaka Ollo (1928)



Astigarragako Ipintza baserrian jaio zen. Sei senide izan baziren ere, bat hogeita bi hilabete besterik ez zituela hil zitzairen. Beste bost senideren artean 4.a zen bera. Hiru urte zituela aita hil zitzairen eta bizimodua amari lagunduz atera behar izan zuten aurrera. Mojen komentuko arropak garbitzen zituzten eta Donostiako etxe batzuetakoak ere bai, udan bertara etortzen ziren inudeena kasu. Horretaz gain, plazara joan behar izaten zuten barazkia eta esnea hartuta.

Anttoni Lujanbio Alberro (1925)



Irurako Laskibar auzoan jaioa, 1936ko urrian Astigarragako Ergobia auzora joan ziren bizitzera. Aita hil egin zitzairen, eta amaren gurasoekin bizitzera joan ziren; haiek ere bakarrik zeuden, beraiekin bizi zen semea fusilatu egin baitzuten. Ama "rekardera" lanetan ibiltzen zen, eta Anttoni laguntzen. Lizeaga sagardotegiko Sebastian Lizeagarekin ezkondu zen. Besteak beste sagardoarekin lotutako kontuak jasotzeko elkarriketatu dugu.

Xanti Lujanbio Lasa (1922-2013)



Aita Donostiakoa zuen eta ama Oiartzungoa; bera Astigarragako Santiomendin jaio zen eta zortzi senideko familian hazi. Hamasei urte zituela, lanean hasi zen adreilu-fabrian, orduan ohikoa zen bezala. Hernanira ezkondu zen bertako alaba batekin, eta Hernanin bizi izan zen geroztik.

Enrike Lujanbio Tajdus *frailia* (1930)



Aita Astigarragakoa zuen eta ama Frantziakoa. Primo de Riveraren garaian, aita soldaduska egitetik ihesi joan zen eta hala ezagutu zuen ama; hiru seme-alabarekin itzuli ziren Astigarragara bertan bizitzeko asmoz. Baina Paris eta Astigarraga ez ziren berdinak, ez ohituraz ezta jendez ere, eta amak ezin izan zuen hemengo bizimodu tradizionalera ohitu. Enrikek lau urte zituen hona etorri zirenean eta aita oso gazterik hil zitzaien. Amonak hazi eta hezi zituen eta Enrikek lan egin behar izan zuen aurrera ateratzeko: hamabi urterekin harrobian ibili zen, gerora hondarra ateratzen Loiolan, hamaseirekin hiltegi batean eta azkenik Iberduero enpresan, pilotari izanda ez zuela nahikoa irabaziko pentsatu zuelako. Kontrabandoa ere gertutik ezagutu zuen gerra ondorengo garai gogorretan. Ezkondu eta Donostian bizi izan zen 50 urtez eta azken urteetan Astigarragan bizi izan da.

Pilar Miranda Elortza (1938)



Astigarragako Laatxa baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Hernaniko Ereñozukoa. Bost ahizpa ziren etxean eta bera zen txikiena. Gaztetan, Oialumera dantzara buelta dezente egindakoa omen da. Gizona izango zena ezagutu zuen Hernanin, eta haren etxera ezkondu zen Lizartzara. Astigarragarekin alderatuz gero, oso desberdina omen zen garai hartako Lizartza, baina gustuko tokian ez omen da aldaparik.

Ramoni Mujika Imaz (1931)



Gurasoak Astigarragakoak zituen eta bera ere Santio mendiko Arrazpi baserrian jaio zen. Zazpi senide ziren, bi aita desberdinenak, eta bera zaharrenetarikoa zen. Gogoan du zazpi senideek ohe berean lo egin izana. Bederatzi urte besterik ez zituela, neskame joan behar izan zuen Hernanira. Astigarragako Mieltxo tabernan ere ibili zen lanean; eta bere jaiotetxean ere taberna jarri zuten, nahiz eta denbora gutxi iraun zuen. Hernaniko paper-fabrikan lan egin zuen bi urte exkaxean; eta, ezkondu aurreko urteetan, Donostiako jostun bati aritu zen etxeko lanetan laguntzen. Ezkondu eta berehala, Donostiara joan ziren bizitzera eta han berrogeita hamar urte inguruz bizi izan ziren. Azken urteetan, Astigarragan bizi izan dira.

Joxe Mujika Tolosa (1936-2015)



Astigarragako Martzinea baserrian jaio zen. Zazpi senide ziren. Astigarragako mojen eskolan ibili zen lehenengo; eta, gerora, eskola publikoetan; baina gaueko eskolan adina ez omen zuen inon ikasi. Gaztetan, inguruko erromeriak pixka bat ezagutu zituen: Oialume (Hernanin), Irubidieta (Lasarten), Txikierdi (Oiartzunen)... Astigarragara ezkondu zen andrearen baserrira. Eraikuntza-lanetan aritu zen zerbait oso gaztea zenean; baita paper-lantegian ere, bost urtez; baina, gehienbat, abere-hiltzaile ibili izan da: Donostiako hiltegian ikasi zuen, Hernanikoan egin zuen lan hamabi urtez, eta Martutenen aritu zen gero. Gustuko lana izan du.

Ramon Olano Zapiain (1927)



Astigarragan jaio zen eta gurasoak ere bertakoak zituen biak. Zortzi senide izan ziren eta baserritik bizi izan ziren betidanik. 36ko gerra hasi zenean, asko zaildu zen egoera etxekoentzat: izan ere, bi anaia zaharrenek frontera joan behar izan zuten eta berak etxeko lanetan gogor jardun behar izan zuen. Tailer batean aritu zen mekaniko izateko ikasten eta kamioia gidatzeko baimena ere atera zuen soldaduskatik etorritakoan; baina hemengo lanekin ezin burututa, Kubara joateko aukera sortu zitzaion batean baietz esan zuen. Han guraso euskaldunak zituen emakume batekin ezkondu zen eta 1968an, Fidel Castro agintean zegoela, hona etortzea erabaki zuten senar-emazteek. Berriz ere kamioia hartu zuen etxera itzulita eta geroztik Astigarragan bizi izan da.

Joxe Antonio Ollokiegi Otaegi (1924-2019)



Astigarragako "Kakonia" etxean jaio zen, garai batean "Mina" izenez ezagutzen zen etxean. Aita Astigarragakoa zuen eta ama, berriz, Beizamakoa. Valdespinako markesen etxean bizi ziren beraiek, eta haien maizter izateaz gainera, markesen administratzaile-lana egin izan zuten belaunaldiz belaunaldi, bere anaiarekin lan hori bukatu zen arte. Gogoan zuen markesei maizter guztiek eman behar izaten zieten errenta nola ematen zieten: bai diruz, baita oilasko bat eramanez ere. Eskolan 8 urte bete zituen arte ibili zen eta gero gau-eskolan ere aritu zen. 13 urterekin basoan aritu zen lanean eta gerra hasi zenean korneta jotzen zuen desfileetan herri berriren bat hartzen zenean. Gaztetan harri-apustu bat jokatu eta sekulako marka egindakoa gogoan du.

Maria Jesus Otaegi Aranburu (1932)



Astigarragan kalean bertan zegoen Apaiztegiberri etxean jaio zen. Aita Beizamatik etorria zuen eta ama, berriz, donostiarra. Aita saskigilea ("xexteroa") zuen eta Astigarragan bertan egiten zuen lan. Mojen ikastetxean ikasi zuen; baina ez zitzaion ikastea gustatzen, eta 14 urterekin Donostiara joan zen josten ikastera. 21 urtera arte aritu zen han, eta orduan erabaki zuen jostea hartzea ogibide: Astigarragan hasi zen lanean bere kontura, emakume batzuk laguntzaile hartuta. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen.

Manoli Otegi Aleman (1937)



Astigarragan jaioa. Aitak kanteratan lan egiten zuen eta amak tabernan. 9 anai-arreba ziren. Ileapaindegi batean egin zuen lan. Erreterian ezkondua, Bilbokoa zen bere senarra.

Yeelen Pellejero Arco (1995)



1995eko azaroaren 25ean jaio zen Yeelen, Astigarragan, eta bertan bizi izan da beti. Hiru senidetan zaharrena da eta gurasoak ere astigartarrak ditu. Marketing ikasketak egiten ari zen elkarriketatu genuenean, eta baita EGA azterketa gainditzeko prestaketa ikastaro batean izena emanda ere. Astigarragako AEK-k bertako Kultur Etxean dituen gelatako batean egin genuen elkarriketa, koadrilako Leire Peñarekin batera, eta koadrilari, zineari, moda kontuei eta EGA azterketari berari buruz hitz egin genuen, beste hainbat konturen artean.

Leire Peña Prior (1994)



1994ko ekainaren 3an Donostian jaioa, Martutene auzoan bizi izan da beti. Gurasoak ere Donostiarrak ditu eta bi senidetan zaharrena da bera. Administrazio ikasketak egiten ari zen elkarriketa egin genuen garaian, baina baita EGA azterketa gainditzeko prestaketa ikastaro bat ere. Koadrilako Yeelen Pellejeroarekin elkarriketatu genuen, eta koadrilari, zineari, moda kontuei eta EGA azterketari berari buruz hitz egin zuten, beste hainbat konturen artean.

Lidia Sanchez Lasheras (1990)



1990. urteko urriaren 31an sortu zen Donostian, eta Martutene auzoan bizi izan da beti, harrez gero. Donostiarrak dituzte bai aita eta bai ama, Lidiak eta bere anaia gazteagoak. Ikasketei dagokienean, Haur Hezkuntzako Teknikari eta Gizarte Integratzaile tituluen jabe da. Elkarrizketa egin genion garaian EGA azterketa gainditzeko prestaketa ikastaroa egiten ari zen Astigarragan. Ainhoa Basterra euskaltegiko ikaskidearekin batera egin genion elkarrizketa, eta animaliak izateari, Donostiako parranda giroari eta aisialdiko beste hainbat konturi buruz mintzatu zitzaizkigun.

Pedro Sarasola Idarreta (1930-2014)



Asteasun jaioa, Iyolazabal baserrian; guraso biak asteasuarrak zituen. Hiru urte zituenean Astigarragako Oiarbidetxiki baserrira joan ziren bizitzera (gaur egun Mendizabal sagardotegia). Artean, umea zela hil zitzaion aita, eta ama bigarren ezkondu zen. Pedrok Astigarragako eskola publikoan ikasi zuen. Baserriko lanetan ibilia da, baita basolanetan eta Hernaniko plastiko-lantegian hainbat urtean ere. Ezkondu eta alaba bat izan zuen.

Iñaxi Urruzola Aranburu (1925)



Hernaniko Bakero baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan zen Astigarragara ezkondu zen arte. Bost senide ziren, eta bera oso txikia zela hil zitzaion amona. Aita hargina zuen eta amak merkatuan saltzen zituen baserriko gaiak. Hogei urterekin hasi zen Oialumera ateratzen, jaietan dantza pixka bat egitera; ordura arte, apaizen eta amaren beldurrez ibili izan zela aitortzen du. Sei urtez, lantegi batean ibili zen; eta, ezkondu zenean, baserriko lanetan aritu behar izan zuen. Gerezi asko izaten zuten eta horregatik zen berezia baserria. Azken urteetan, Astigarragan bizi izan da.

Manoli Zabalegi Aristimuño (1933)



Astigarragako Oiarbide baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen; eta ama, berriz, Gaztelutik etorria. Sei senidetan bigarrena izan zen eta etxeko lanetan gogor aritu zen gaztetan. Sagardotegia zen beraien etxea, eta beste bi ere bazituzten garai hartan Hernanin eta Astigarragan. 16 urterekin, sagardoa saltzen zuen txotxetik, orduan egiten zen bezala. 23 urterekin ezkondu zen Astigarragara bertara, senarraren etxera, eta han bizi izan da geroztik.

Sebastian Zabalegi Aristimuño (1934)



Astigarragako Oiarbide baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa; eta ama, Gaztelutik etorria. Sei senide izan ziren; eta, aita gazterik hil bazitzaien ere, etxean hamabi bat lagun bizi izan ziren. Sagardotegia izan zuten beti: aurrena, Hernanin; geroago, Astigarragan, herrian bertan; eta, azkenik, Oiarbide baserria hartu zuten horretarako. Ukuiluan ganadua izan zuten; eta, horretaz gain, sagardoa saltzetik ere atera izan zuten bizimodua. Hamalau urterekin, idiak hartu eta inguruko baserrietako lanak egiten zituen Sebastianek. Urte askoan, gainera, berak eramane zuen baserriz baserriko ganaduaren zerrenda, inguruko baserritarrek zuten kofradian.

Roxario Zapiain Goñi (1946)



Errekalde baserrian jaioa, aita bertakoa zuen eta ama Santiagomendi auzokoa. Mojen ikastetxean ikasi zuen, Astigarragan bertan, eta 13 urterekin Donostiara joan zen interna, marianistengana, Batxilergoa egitera. Ondoren Parisen egin zituen urte eta erdi, frantsesa ikasten, eta handik Alemaniara joan zen, alemana ikastera. Bueltan, itzultzaile lanetan ibili zen. Hori bai, sukaldaritza izan du ogibide nagusia. Errekalde baserria sagardotegia zen (gaur egun Zapiain sagardotegia eta Roxario jatetxea daude bertan), eta hango gorabeherak ere kontatu dizkigu.

Bittori Zapiain Mendiola (1929)



Aita Andoaindarra zuen; eta ama, Astigarragakoa bertakoa. Bera ere Astigarragan jaio zen, Tabla baserrian. Tablak sagardotegi moduan funtzionatu izan zuen eta bolatokia ere bazuen, orain gorderik edo tapaturik dagoena. Mojetan ibili zen eskolan eta bihurria izan omen zen. Hamazazpi urterekin, Santiago egun batean, herriko festetan atera zen lehen aldiz lagunekin; eta, geroztik, asteburuak ongi aprobetxatu nahi izan zituen: Tolosara inauterietara, Hernanira zinera... Gerra Zibila hasi zenean, Donostian bizi zen izebarenean egon ziren lau senide, bera tartean zela.

Antonio Zubiarrain Otxotorena *Xapatero* (1927)



Hernaniko Epele auzoan jaio zen, Tellerin. Ama zuen bertakoa eta aita, berriz, Beasaindik etorria. Zortzi senide izan ziren eta Antonio Ereñozuko eskolan eta Milagrosan ere ibili zen ikasten hamabi urte egin zituen arte. Orduan, osaba batekin Ziordira joan zen Urbasako basoetan lan egiteko. Pagoak bota, oholak atera eta txondorretarako prestatzen zituzten haiek. Bost urte egin zituen han, batez ere basolangileentzat jatekoa prestatzen. 1943an itzuli zen eta Astigarragan "Centro Republicano" zegoen lokalean anaiarekin zapatari sartu zen. Neurrira egiten zituzten zapatak eta lan asko izan zuten. Baina handik hogeiren bat urtera lan hura utzi zuen. Donostiako gasa kudeatzeko instalazioetako kontrolean postu ona eman zioten, horren trukean enpresako arduradunari zapatak egiten jarraitzekotan. Astigarragan bizi izan da 1943tik.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Santiago-enea baserriaren jatorria

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Zalbide, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-001/002
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:00:29. **Bukatu**: 00:01:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Ama Lazkaokoa zuen. Aita Astigarragako Santiago-enean jaioa. Bera ere bai. Santioko ermitarekin du lotura jatorrian. Hernanin ere bada Santiago-enea. Jaioteguna.

Transkripzioa

- Ama Lazkaokua ordun?
- Bai, bai. Nun, nun. Holaxe.
- Aitta, berriz, hemen jaiyua?
- Aitta, berriz, hemen jaiyua.
- Hemen esaten dezunian, hau ze baserri da?
- Hau Santiago Enea, Astigarraga, Santiago Enea.
- Eta zu zeorre hemen jaiyo ziñan?
- Bai, ni nerone hemen jayua naiz.
- Santiago Enea, hola deittu izan zaio beti?
- Bai, beti, ta Santiyoko Astigarragan do Santiyoko ermita han goyen do. Ta ordun'e ahal zunak ahal zuna in nahiko zun ta hemen jarri emen zun hango seme bat aittak, ezkondata hemen jarri emen zun. Ta hor beheku hoi oin hala da ta lehenore bai, bi bizitzakua da, baiño izen berdiñakin: hoi Hernanikua Santiago Enea ta hau Astigarragakua Santiago enea. Han

seme-alabak jarri emen zittun ta hemen semea bakarra.

- Hara, zuen aitta zena?

- Ez, auskalo, auskalo, lehengo gizalditikan, lehendik. Ta gure aitta ta hemen jaiyuak.

- Ta noiz jaio ziñen zu?

- Ni jayo nintzan "treinta y nuevian, cuatro de octubre", gerra bukautako urtian jaiyo nintzan ni.

1.2. Hilerokoa jaistean, azalpen gutxi

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Oiarzabal, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-004/051
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 01:22:49. **Bukatu**: 01:25:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Hilerokoa jaistean azalpen handirik ez. Tabua zen. Toallak, kate-orratzarekin lotuta. Lagunak zer esan zion. Hilerokoarekin zer ezin zen egin. Orduko duxak.

Transkripzioa

- Sabina, kontu hoikin ai geala, okurritzen zait regla, lehenbiziko regla jeitsi ber zitzazunian ta hola. Ordun izaten al zan amak edo eskolan edo esaten al zan "aizu, ba edadia dakazu eta hola ta hola pasako zaizu" edo?

- Nei ez behintzat, ta bestiaidi ez hola ikusita, "ui ama, zea dakat", "hoi ez den... hoi ez den ezer ere, hoi ez den ezer, emakume guztik izaten ditene hoi ta ez den ez den ezer'e pasatzen". Ta toaillak edo ez dakit zer jarri zizkian eta kateko rosakin ta lotuta, ordun zea, tampas ta zea hoitakuak ezar'e. Ta ez ote zian, "normal ibili hai e? Normal ibili hai". Zea, ta geo nere laguna, nere lagunak etxea jun nintzan ta esan nion "ez dakin ze pasa zaiten, hola ta hola", eta "uff", ni baiño zaharro da, ta oain Bilbaon bizi da. Ta zea, "hoi ez den ezer, neska. Hoi zea den, hillero etortzen dana den hoi". Baiño lenbizikuan, apuro earra e?

- Lagunak artian ta igual gehio?

- Bai, bai bai, etxekua, etxian ezta ezar'e, tabu! Tabu holako gauzak.

- Ta izaten al zian, ordun esaten al zan regla zanakarian ezin zenitula gauza zenbait gauza in: ba odolrik itxia txarra da ta baserritan esaten da ez? O maionesa kortatu itten dala.

- A" Bai, bai, bai.

- O ezin zala garbitasunik in edo?

- Bai, esaten zuten e? Bai, bai, ta ez duxatu ta. Bueno duxatu, ordun ez zeon duxik, ta horretxan zan'e kaldera, kaldera zeatu, ta komunea eman ta han garbittu. Bai.

- Eta konpresak eta hoik'e, ba toaillak leno esan dezun [...]

- Konpresak? Hoixen. Bai, bai. Haik gordian igual garbittu beharko zituen.

- Oi! Beharko! Hoixen ba. Anaiak eo zeatzen zianian, handixe [...] iñor [...] zanian, hartu palankarian ta zeatu ta hoiek danak kendu ta... bai.

1.3. Behiak zaintzen ari zela, lo hartu

- **Hizlaria(k):** Zapiain Mendiola, Bittori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-006/011
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Behin, behiak zaintzen ari zela, lo hartu eta behiek arto zelaia jan zuten.

Transkripzioa

- Horrelaxe, gure bizimodua. Hura parra. Gero berriz behiekin, goizian seiatarako jeiki udara partian, eta klaro orduan elbi asko izaten zan, ta behiek iten zian elbik hasten zianian mendin, hasten zian ez bada holakua kixki ta kaxka ta korrika isatsak altxa ta etxera. Eta, haiek amorrazituak pasatzen nittun ta, beste batian berriz, klaro, Astigarragan fiestak ziren, eta berandu samar etorri gabian, ta anaiak bialdu niñun behiakin, eta nere ustetan onduan nintzen ni baiño... hua're gaixtua izaki ta, arto zelaia genekan han, ta harek usaia aittu nunbait. Bat nuen oso gaixtua, horrelako trastadak itten zizkidana. Eta, hala zeratu ta, nere artian, eserita jartzen nintzen ta "altxa in beharko dinat ba, ez dek posible, lo hartuko dit hemen ta". Eta altxata mekasuen hura logalia neria, ta halako batian jarri nintzen osterá eserita, ta deskuidatu. Hurrena konturatzen nintzenerako bastante arto saila jana, han ari zen dotore asko jan baino seguramante hartu zittun bizkarreko ederrak! Eta, nik etxera etorri eta ezer esan anaiari, ta gero jun zan ta, "zer? Atzo zer egin hunen lo?" san zian, ta "zeba?", ta "arto zelaia astindu din ederki baten batek!" esan zian. "Bai? Betiko nazkanti hori esan nion horrelaxe, horrek sartu ber din beti muturra". "In zan berriz'e lo".

1.4. Emakumeak abandonatzea ohikoa zen

- **Hizlaria(k):** Irazustabarrena Etxeberria, Prudentzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-008/007
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:13:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Ohikoa zen haurdun geldituz gero emakumea abandonatu eta ez ezkontzea. Orokorrean, horrelako kasuak lotsaharroal izaten ziren, eta moja sartzen zen gehiengoa, ezin izaten baitzuen ezkondu.

Askotan gizonek emakumeari aurpegia estaltzen zioten, jendeak nor zen ez ikus zezan.

Transkripzioa

- Ta holakok itten al zian?
- Alde, nahi ez ta alde hortik!
- Haziya bota ta martxa.
- Haziya ta martxa. Batek neska batek "bai, horrena" ta harrek asmatu zeinena zan. Baiño harek ekarri zitun hamar, jaiero differentiakin juden zan. Ta hamar lagun ekarri. Ta hik jaoi ta hik, ta hik ta hik'e bai. Ta han geatzen haziya. Orain hau [...] ta agudo billatzen dute orain. Ordun ez baitzen haien agintez.
- Ta neska harek ze itten zun gero?
- Neska hantxe geratu ba umeekin.
- Ta ze fama izaten zun neska harek gero?
- Neska harek... ez zan... bere nobiyuak uzten bazun, moja juaten ziren neskak. Edo ume baldin badezu ezta pentsatu ere ezkontzerik! Orain amorratu harrena juden dia, ume alaba bat hor, honezgero haziya, alaba baldin badu gustorena hura. Alargun mutilak ezkondu ahala bere umia berehala hartzen du. Ordun ez aitatu e. Ta mutilari nobiyuak iten zioten brusakin heltzian mutilek ta aurpegia tapatu ez ikustiagatik zeinekin zijuan. Behin ikusita halako neskarekin hori, ta harrena ez zen iñor juden. Behin ikusiz gero mutila neskari laguntzen. Hala ziran, muturra tapatu nobiyuak neskari, pasuan, zeinekin zijuan ez jakiteagatik. Gure aittak historik beti kontatzen zizkigun. Hemen bederatzi urte ta neska guztiak ta hurrengo egunian tiroz jo ta akatu in zun. Ikeragarriak zian mutilak e. Kariñua behin hartzen bazun, berarekin.

1.5. Eskolara bidean emandako astinduak

- **Hizlaria(k)**: Etxeberria Olano, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-009/015
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:23:09. **Bukatu**: 00:25:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Eskolara joaten ziren umetan; aurretik pilotan ibiltzen ziren, bidean borroka-saioak egin... Borrokan astindu ederrak eman izan ditu Antoniok; hori bai, bere adinekoei, zaharragoei ez.

Transkripzioa

- Hor idin aurrian ta behian aurrian ta ibili behar ta, eskolara juteko denboraik hartzen al zenuen? Eskolan ibili al ziñaten?
- Eskolara, bai, eskolara juden giñan, bai. Bai, txintxuak zian eskolara juden. Ta gu're bai jotzen e? Asko bidian geratzen zian jostatzen ta zerian. Baiño gu gurian juden giñan. Aurretikan pelotan pixkat ibili ta ateratzian beste pixkat eta hola. Baiño ez, ez, txintxo ibiltzen giñan. Bai, ta gero bidian borroka-saiyon bat igual egin, ta hola.
- Hoi're bai?
- Bai, borroka re bai. Bai, probatu behar izaten genittun. Zer ba, probatu gabe? Joe! Paliza earra emanda bialdu izan dittut nik hemendikan

goikaldian. Hemen ibiltzen zian basarrik bazian hor, bi basarri, bidi hontatik ibiltzen zianak. Hemen bertan, Usategi ta; ta gero bestia, Buenaventura. Ta danaidi ematen niyoten nik zartada, nere edadekuekin e? Haundiyoguakin ez nintzan hasten, zaharraguakin. Bazian zaharraguak, eta haikin "a callar", ta hola. Baiño... Nere parekuakin, pixkat burla edo eitten baldin bazuten, edo bultza edo hola, zea, egurra.

- Ta zeatik hoi ba? Burla itten zuelako? O bestela...?

- Bai, ba, burla itten zutelako.

- Ze burla itten zuten ba?

- Burla, burla eo. Ez, gutxitan izaten zan e? Errespetatzen zuten, behin bentzitu ezkeo, egun batian eman ezkeo, ondo, ondo jartzen zian. Bai, errendittuta jartzen zian. hola.

1.6. Jaioberriak janzteko modua

- **Hizlaria(k)**: Labaka Ollo, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-010/045
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:59:39. **Bukatu**: 01:00:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Umeen arropak beraiek egiten zituzten. Fardelak, kamisetak... Gerrikoa (faja) jartzen zitzaion. Nola janzten zen umea. Gaur egungo erraztasunak.

Transkripzioa

- Zu akordatzen al zea umian lehenbiziko arropak eta nolakuak izaten zian?
- Neonek eitten nittun batzuk, nola hala, zeak'e bai, paiñalak o zeak ere neonek; kamisetak eta danak neonek eiñak nitun.
- Ordun haurdun zeunden hillebete guztitan josi ta josi...
- Bai, bai, bai, bai, bai.
- Ta izaten al zun umiak hola...
- Faja, fajakin, baiño roillua bat in ta gero bueltaka-bueltaka-bueltaka zean.
- Ta nola jartzen zan umia: aber, umia larru-hutsik dao eta aurrena zer jartzen zitzaion?
- Lehenbizi kamiseta eta geo fajakin, dena, zea, lotzen ziñun. Ta geo zea, este, kulerua bezela balitza bezela, zea, bi tirakin lotzen zendula bi alderdita, haik'e neonek egiñak, felpakin. Gaur zea, paketea jarri ta fuera. Kaka dayola hantxen ta askotan besuan hartu ta... Ta gaur, berriz, ze ze erreztasunak dauden e?

1.7. Ama frantsesa, Astigarragara ohitu ezinik

- **Hizlaria(k)**: Lujanbio Tajdus, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-014/002

- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:00:49. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ama frantsesa zuen, aitak gerra garaian ezagututakoa. Errepublikara garaian Astigarragara etorri ziren bizitzera; ama, baina, ez zen ohitu hemengo bizimodura eta alde egin zuen. Azkenean, amonak hazi zituen.

Transkripzioa

- Nik nun ama frantsesa. Ta gerra denboran, gure aita zana hara jun zan nunbaitte, ta ein zun han adixkidia billatu, ta beakin ezkondu. Ta geo, republika garaian, hogeita hamarrian jaiyua naiz ni, ta etorri giñan honea, Astigarragara bizitzea, ostea, lehengo tokira.

- Hogeita hamarrian jaio ziñan?

- Bai.

- Ta ze hillabete eta ze egunetan? Ze egunetan?

- Zein egunetan? Ba jaiyo nintzan, ekaiñan hamalabian.

- Ta ordun etorri ziñaten zure aitta ihesi, bueno...

- Gure aitta, ez, gure aita ta danok etorri giñan, bi arreba dittut, bat hilla dao hoi, oain bat. Ta etorri giñan danok honea Astigarragara. Ta gure ama zanak gu utzi ta alde ein ein zun.

- Nolaz ba?

- Pues aitakin, aidanian, gu ttikik giñan, baiño ez omen zun ondo eramaten. Han ateratzen emen zian beti alkarrekin ta parejak. Ta hemen, berriz, gizonak lagunakin, ta hari ez gustatzen aidaninan, ta alde in in zun. Bartzelonara jun zan beste arreba bat hartuta. Aita jun zan, ta ekarri in zun ostea arreba hori. Ta Astigarragan bizitzen giñan. Ta geo aitta hil zan, ta etorri giñan bizitzea, amonak ekarri zigun bere etxea, honea, ta hementxe hazi giñun, ahal zan bezela.

1.8. Amak Astigarraga utzi eta gero, anai-arrebak amonarekin

- **Hizlaria(k):** Lujanbio Tajdus, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-014/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Amak alde egin zueneko gogoan du: amak arreba zaharrena eraman zuen berekin. Gerora, amonak hazi zituen senideak. Amonak gobara egiten zien aberatsei sos batzuk ateratzeko. Amonak guztira 20 ume hazi zituen.

Transkripzioa

- Lehen esan dezu amak alde in in zula. Zu akordatzen zea nola alde in zun?

- Bai.

- Gogorra izango zala pentsatzen det, ez dakit zenbat senide geldittu ziñaten hemen ta zenbat eraman zittun amak...

- Amak bat eraman zun. Ta gu geatu giñan ttikina ta ni, erdikua. Ta amunak hazi zigun hamen. Ttikinak oaindik ez dakit zutik, ez det uste bazakinik'e, ez dakit. Ez naiz goatzen. Goatzen naiz zerbaitte amonak esaten zula Donostia nola juten zan, hola kuadroko batian hiru-lau ohol jarri, ta haurra utzi han, ta jaten pixkat jarri, ta nola juten zan Donostia. Ta holaxe hazi gea, erdi gosiak, erdi gosiak.

- Amona Donostira juten zen merkatura edo?

- Ez, amuna juten zan donostia gobara itten zun. Bakizu zer dan gobara?

- Esan zazu.

- Gobara da etxietatik, aberats etxietatikan ekartzen zittuzten maindiriak eta etxea. Eta etxian, gure amuna zanak eitten zittun garbittu, ta gero eitten zittun astian behin entregatu hara, zea, arropa hoik. Ta xoxak han ateratzen zittun amunak. Zeatikan gure amunak hazi zittun hamar kanpokuak eta hamar etxeukuak, hogei. Ta alargun geatu zan oso gazteik gaiñea. Baiño [...] zan amuna fuertia ta, bueno! Ta holaxe, holaxe hazitakuak gea.

1.9. 'Fraile' ezizenaren jatorria

- **Hizlaria(k)**: Lujanbio Tajdus, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-014/008
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:08:19. **Bukatu**: 00:09:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Fraile ezizena dute familiarteko batzuek; ezizenaren jatorria azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta nondik datorkizue 'Fraile', Frailian izengoitia?

- Hoi dator... Hoi dator...

- Zure osaba're, zure osabai're Xanti Frailia, ezta? Etxetik al datorkizue?

- Bueno, ez, hoi dator nere osoban ta osoba. Bastante luzia izan behar du zea istori horrek. Ta Astigarragan dago basarri bat, Frailiana du izena. Ta handikan, handikan, harei esaten Frailia. Ta gero Frailia, ta nei Fraile Gaztia esaten ziaten. Ta gure semiai ez diyote ez diyoe, "Hau Frailian semia dek" esaten dute danak; "Bai, Prailian semia ezagutzen diat!" esaten du, holaxe. Hortatik dator hoi. Frailia hemen morroi eondu emen zan, nere osoba ez, aurreogokua, aurreogokua. Ta hortatik dator Frailia. nei Fraile... Oain'e... Donostin bizittu naiz denbora askuan, e? Ta oain'e Frailia deitzen diate Astigarragan. Frailia.

1.10. Osabaren diziiplina eta amaren kultura frantsesa

- **Hizlaria(k)**: Lujanbio Tajdus, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-014/016
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:17:34. **Bukatu**: 00:19:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Askotan, ogi bila joatean, pilotan jokatzen gelditzen zen eta berandu iristen zen etxera; osabak bi masaileko ematen zizkion orduan. Osabaren eta Enrikeren artean ez zegoen alde handirik adinean. Ama oso emakume ederra omen zen, zigarroa erretzen zuen. Lehen gaizki ikusia zegoen emakumeek zigarroa erretzea.

Transkripzioa

- Geo Astigarragan dao aiuntamentuan azpin arkupe bat, han asko ibiltzen nintzan hankutsik. Ogiyan billa jun, ta matrailleko earrak hartu beharra etxian. Ogiyan billa bialdu osobak zanak, eta han ibilli pelotan... Ta seittun etorri beharran, handik bi ordua etxea, bai ba. Akabo. Eta utzi oiñetakuak, eta hankutsik hasi, ta segi. Etxea etorri, ta bi matrailleko irabazi, ta primeran. "Bueno bueno, osoba, hurrenguan goizo etorriko naiz, agurua etorriko naiz" edo... Oain, harek ematen zizkian earrak. Oaindik bizi da, larogeita beatzi bat urte badittu, ta oaindik bizi da. Bi matrailleko, ta "Alu hau...".

- Zein zan, Xanti?

- Xanti.

- Xanti zan osaba?

- Bai, kuarto batian eitten gendun biyok lo.

- Ez zenuen alde haundiyik.. Zuen amonak, bere semiak eta zuek ere...

- Bai ba, bai ba, baiño hoi zan, gure aita zan semeik zaharrena. Ta horregatik dao diferentzi hoi, gutxiko hoi, horretxeatiyo. Hua nunbait gatzio ezkondu're ingo zan han, Frantzi alde hartan. Ikearri emakume earren bat omen zan gure ama, nei esaten diate Astigarragan. Ta zigarrua ere erretzen emen zun harek. Ta hemen zigarrua erretzen zun emakumia garai haitan, "Hau, hau, hau alajan bat izango dek earra!", ta bakizu ze pasatzen dan, bakizu. Gaur purua erretzen, emakumia barra-barra aitzen da, emakumia barra-barra.

1.11. Lehenengo gai tabuak

- **Hizlaria(k):** Aldanondo Garmendia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-020/020
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:39:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena:** Orduan ez zen ohiturarik izaten sexualitateaz hitz egiteko. Behiari zezena ematerakoan ere urruti gelditzeko esaten zion aitak. Ohean ikasi zuten ikasi beharrekoa. Lehenengo hilerokoa nola izango zen ere ez zen hitz egiten etxean: bekatu zen hortaz hitz egitea.

Transkripzioa

- uanita, ordun gizonakin juntatzeko lehenengo gau horretarako... zerbait'e adizia izaten al zenuten gauza nola zan? Orain asko hitz egitten da, eskolatatik eta umetatik.

- Ordun guk ez genekigun ezer'e ez zgiun iñork ezerr'e erakutsi, zer zan,

nola zan.

- Nolabait ikasi behar.

- Bai. Biak zezenetara eramaten giñunian'e, aittak uzten zian ehun metrora, "zuk hitz egin hemen, ni etorriko naiz berehalaxe". Ta hara eramaten zezenetara, zezenetara eraman ta han nola itten zun, ez ikusten ta ez jakin, nola izaten zan. Han nik ez, ohean ikasi genun, ohean artian.

- Nolabait'e. Eta ez dakit, amak ohitturik izango zun zurekin hitz egiteko ba regla zala, edo lehenbiziko ba regla jeisteko zera horretaz edo... hitz egiten al zan gauza horieta?

- Ez zekiten erakusteko.

- Horretaz ezingo zan hitz egin, ezta?

- Ez orduan pekatuba zan hori, horretaz hitz egittia.

1.12. Amonari buruzko oso oroitzapen onak

- **Hizlaria(k):** Arzallus Aristi, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-030/005
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Amonaren oso oroitzapen onak ditu: beraiekin bizi zen eta Andonik 16 urte zituela hil zen. Amonak barazkiak jateko ohitura zuen, baina etxeko gainerakoek ez.

Transkripzioa

- Ze oroitzapen dakazu amonana?

- Oso ona, oso ona. Nik amona ezautu nun urte askon ez, esango dizut ba, nik hamasei bat urte nittula hil zan amona; ni ordun Pamplonan estudiatzen ai nintzan.

- Amona bat?

- Amona bat, bai, aittan aldeko... Ez, aman aldeko amona, etxeko amona. Beste amona banun, beste etxe batian. Hamasei urte nittula hil zan, ta ordun ni goatzen naiz gauza kuriosua: oain berdura asko jan bihar dala esaten da, ta ordun gure etxian harek bakarrik jaten zun berdura. Eltze txiki batian bere berdura jartzen zun harek, edadiak agintzen ziyon, eta harek bakarrik jaten zun; gaiñekok ez genun iñok berdurik jaten, iñork ez zun, ez zan ordun berdurik jaten. Basarritan [...] behintzat. Kalian Ergobi aldian, Astigarraga aldian baratza asko zian, baratza asko zan, ta berdura asko ekartzen zan Donostia, ta Donostian jaten zuen berdura. Astigarragan berdura gutxi jaten zan.

1.13. Kilkerrak harrapatzen eta zaintzen

- **Hizlaria(k):** Sarasola Idarreta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-032/021
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:39:03. **Bukatu:** 00:40:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Etxean ez zuten txoririk izaten, baina kilkerak bai. Kilkerak harrapatzea xamurra omen da, nola egiten zuten azaltzen du. Kilkerari ogi-mamia ematen zioten ardota bustita, horrela kantari hasten baitzen.

Transkripzioa

- Etxian zuek eukitzen zenuten txoririk?
- Ez.
- Kantatzen zun txoririk?
- Ez.
- Ez. Kilkerrik?
- Bai, kilkerra euki izan dut.
- Hori nola, zuek harrapatzen zenuten?
- Bai, hori're, kilkerra harrapatzen xamurra da, kilkerra harrapatzen xamurra da.
- Nola eiten zenuten?
- Kilkeran txulua billatu, han txuloa jun ta zea bat, belar bat, hola txotxa, belar mehe bat eta sartu ta harekin hola zean ta nunbait azkuria o kilimatu eitten da ta rast! ateratzen da. Kilkerra harrapatzen xamurra da.
- Gero gorde poto batian?
- Bai.
- Ta ze, jaten eman beharko zitzaion? Bestela hil ingo zan.
- Kantatzeagatik, kantatzeko ogi mamiya ardota bustita. Ta handikan jaten zunian, askotan erdi etzanian ta ordun hasten zan kantari.
- Ta zuek iten zenuten pixa zuluaz zuloatik ateratzeko? Ala nahikua zan belar batekin?
- Bai, bai, belar bat nahikua zun, belar bat nahikua da. Belartxuan zea hor ta harekin hartu ta.... han atea zigun.

2. Herria, azpiegitura

2.1. Erriberak eta portuak

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Zalbide, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-001/036
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:18:52. **Bukatu:** 01:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Babarruna, artoa eta baratzea. Erribera. Ibarluze. Martutene. AHT. Azkenengo zentrala. Porturik ez zen Astigarragan, Hernanin bai. Ergobiraino iristen da itsasgora.

Transkripzioa

- Babarruna ta zala esaten dezu gehiyena: babarruna, artua...
- Artua ta baratza.

- Hemen erribera asko zen, ez?

- Uuu, hemen erribera ikearri. Ba al dakizu nolako, zea, Ibarluze... Haik'e danak eta hemen hasi zeatikan Orbegozueneko hontatik eta Astigarragako zulu hoi, hoi kriston erriberak zian. Millakak eta millaka metruak zian hor. Oaindikan'e, oaindikan'e... Geo Martuteneko zulu hoi, dana. Oaindikan'e, oaindikan'e sail earrak bade hor e? Honako tren rapidua o pasa bihar dula o... ta horrentzako reserbatu ta hor oaindikan'e sail haundik daude.

- Eta erreka bazter hoi aberatsa izango zen ba gauza batian o... Zentralik eta izaten al zen?

- Ez, atzeneko zentrala hemen bakizu nun daon? Lizarra ba al dakizu nun zan zuk?

- Ez.

- Ibarluze? Ibarluze? Hua baiño pixkat lehentxio zan.

- Azkenengo zentrala.

- Bai, hortxe, oain'e han dao hua.

- Goizuta aldea.

- Bai, Goizutatikan horrea. Hoi zan atzenekua. Hortik behera ez zan zentralik.

- Baiño portua bai, ordia?

- Bai, portu esaten diyotena Hernanin e? Hernanin.

- Astigarragan ez zan?

- Ez, ez zan Astigarragan.

- Gaizki ikusi dut ordun. Hor erreka hortan izaten al zan barkuk eta haik eta izaten al zan?

- Portuaiño baiyetz esaten due, nik ez det ezautu.

- Oain Ergobiraiño marea alta, Ergobiko zubiya nola dao? Horreaiño esaten dute altxatzen dala marea alta, horreaiño.

2.2. Egurrezko komuna

- **Hizlaria(k):** Etxaiz Mujika, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-003/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Egurrezko komuna zuten, baina ur balde bat erabili behar izaten zuten honekin. Urik ez zenean, ordeam ukuilura jotzen zuten. Arropa garbitzera astoarekin joaten zen Damiana urik ez zenetan, bestetan, auzoko iturrian bertan egiten zuten.

Transkripzioa

- Komunik ez zenuenean...

- Komuna beti ezagutu det nik gure etxean.

- Bai?

- Bai.

- Nolakoa zen komona?

- Egurrezko zera. Honek esaten du makiña bat bider, honek in zula hurrungua, jarri zula. Baiño hara ere baldiakin ura eraman behar. Ura

genunian, ta hori ez zanian berriz, ikuilura o ze... goatzia're! Hoik zeak aizuz. Hoik kanbiyuak ezagutu ditut nik! Ta orain... orain... erropa garbitzea're! Astuan gaiñean. Zenbat bider auzua ta biyok, Oiarbira juten giñan gu.

- Zenbat denbora dago hemendik Oiarbidera?
- Ez dakit ba zenbat denbora jungo giñan, ordu laurden batian edo hola? Gehio igual. Hantxe, putzun.
- Hemen urik ez bazegon. Orain, hemen urik bazegon...horrea!
- Horrea nora esaten dezu, beste iturrira?
- Horrea, hortan dao hemen barriyoko itturriya, oaindikan'e hor dago.
- Ta izena?
- Santiagomendiko itturriya esaten geniyon guk beti, ta horrera lehenoz juten giñen. Hor juntatzen giñan danak.
- Ta hemengo ura bukatzen zenean Oiarbira?
- Bai ba. Ez gendun izaten besterik eta!

2.3. Astigarragako etxeetara ura iritsi zenekoa

- **Hizlaria(k):** Arzallus Aristi, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-030/035
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 00:59:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Argindarra eta ura beti ezagutu izan ditu Astigarragan. Ameriketatik Joakin Maiz etorri omen zen Astigarragara eta hark emandako diruari esker jarri omen zen ura etxeetara eramateko sistema.

Transkripzioa

- Guk zorionez argindarra ta ura korrientia ezautu deu Astigarragan.
- Beti ezautu dezu zuk ura ta arigya?
- Bai, bai, bai. Esaten due Astigarragan etorri zala amerikano bat, han famili bateko osaba o ez dakit zer zala, Joakin Maiz uste det zula izena, ta Astigarragan ein zun tuberiya sartu zun. Astigarragan ein zan depositua hantxe dao oaindikan, Astigarragan goiko aldian, eta hara ura etortzen zan Goiko Itturri gaiñea. Eta harek in zun, haren dirubakin ein emen zan Astigarragako [...].

3. Aisia

3.1. Jaietan goiz etxera

- **Hizlaria(k):** Etxaiz Mujika, Damiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-003/016
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- **Laburpena:** Herriko festetan Damiana eta lagunak ez ziren inoiz bukaerara arte gelditzen. Kalejira dantzatu ondoren amaitzen zen normalean festa.

Transkripzioa

- Herriko festak orduan, oraingo aldian, bueno! Herriko festetan'e sekula ez gendun guk... nahiz nobiyotan ibili! Bukatu arte ez giñan zeratzen, beiñ'e! Beti hor, aldapan gora gatzela, kalejira. Ta gero etxera. Ta gaiñekuan, berriz, jaitan nola jun ta goiz etxera, jolines! Harri tartian... Gure koiñaua, Altzakuak eta, Urnietakuak eta, hala esaten zuten, "Santiagomendin harririk gabe geldittuko dittuk, guk jetxiko dizkiagu harriyak behera". Zenbat bider.

3.2. Dantzan gustura aritzen ziren

- **Hizlaria(k):** Goñi Urreaga, Joxe

- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa

- **Erref:** ATG-005/013

- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:18:08. **Bukatu:** 00:19:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- **Laburpena:** 14 urte zitueneko, Oialumera joaten ziren dantzara. Asko gustatzen zitzaiken dantza egitea; eta neska guztiak beraiekin dantzatzen ziren. Gerora, Hernanira joaten hasi ziren. Orduan, egunez izaten zen festa; 10etarako etxera.

Transkripzioa

- Ta hamalau urteako ya hasi ziñaten dantzan ta?

- Bai, bai, bai, gu jaun ta jabe, Oiyaluma, Juanito ta biyok eta goatzen naiz, segidakua. Oso dantzaizak giñan gu. Ta gaiñea, gaiñea, atsaldeko lau t'erditan edo hasten zan e? Garai haitan, ta iñularrian, beatzitako etxea, bukatzen zan. Ta gu jaun ta jabe. Dantzan? Geldittu gabe. Hango neska guztik gutzako izaten zian txandaka-txandaka.

- Beitu!

- Egiya da hoi. Ta geruo, geruo, geruo, ba, geruo hasi giñan pixkat haundixeo in giñanian ba Hernania, hemendikan iñularrian, "guazen Hernania oain!". Ta ordun plazan eiten zan han dantza.

- Tilosetan.

- Ez, ez, plazan izaten zan garai... Geo Tiloseta're geo pasa zian, gero, gero izaten zan. Oialumatik gero hara dantza. baiño hamarretan etxea e? Ez zan, zea, oain bezela. Oain gabian do festa. Ordun alrebes izaten zan. Herriko festetan'e hamarrak baiño gehiyo ezin zan ibili garai hartan. Hamarretako etxea, ta guk etorri in bihar, guk obedittu itten genun garai haitan gurasuaidi. Oain nahi dutena iten dute, baiño garai hartan.

- Beste ohitura, beste ohitura batzuk eta...

- Bai, bai, bai, bai...

- Gero baserriko lanak ere eragingo zun.

- Bai, bai, baita're. Ta oain basarrik ez dao ta...

3.3. Sagardotegian aste osoa ematen zuten gizonak

- **Hizlaria(k):** Goñi Urreaga, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-005/039
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:04:12. **Bukatu:** 01:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Garai batean, baziren sagardotegira sartu eta astebetean handik ateratzen ez zirenak. Orduko gorabeherak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta garai batian askotan aittu ditugu, sartu ta astebete igual atera gabe sagardotegitik.

- bai, lehen esan deten, lehen esan deten, nola esan det, tabernan nere osaba ta izeba, ta amona lau umekin? Harek kontatzen zun, Maurixi, haren senarra ez nun ezautu, harek kontatzen zun, Santiyomendiya, lehen esan deguna, Goikoetxe, Bustita, bakizu, Bustitatik goraldea ermita aldea abiatu, ta hantxe dao erdi-erdin etxia, Goikoetxe, basarriya izugarriya. Han sagardua saltzen zan, ta han sagardua hasten zanian, lehen esan deten bezela, kanillatik, haren senarra, tabernakua zan hura ere, ta haren senarra sagardua hasten zanian hara jun, ta bukatu arte han. Ta hura bezela beste gehiyo're izango zian. Ta nola kontatzen zun, azpiko erropak eta nola eramaten, bialtzen zizkaten, ta dirua. Harek kontatzen, ta egiya izango zan, geo gehiyok esaten zuen. Gaur zenek ein hori, gaur? Ta ezta ein behar'e, ezta in behar'e, ez! Ezta ein behar'e! Baiño harek nola kontatzen zun...! Ta kontatzen zun zea bezela, xelebrekeri bezela, gauza politta bezela. "Joe, Santiyomendiya, azpiko erropak eta diruba ta...". Jo, ze ze emakumiak zian garai hartan.

- Etxekoandre kezkatua, nola ibiliko ote zan beitzen.

- Egiya!

3.4. Soldadutzan, korrika-lasterketara Burgosera

- **Hizlaria(k):** Goñi Urreaga, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-005/055
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:34:55. **Bukatu:** 01:36:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzan, Espainiako korrika-lasterketara joan zen Burgosera. Ez zen batere entrenatu, baina han joan zen. Orduko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Ni... Ta korrika Burgosera' re bai, "campeonato, campeonato de España"

Burgosa, entrenatu ta ezer in gabe. Korrika apuntatu nintzan, ta goizian astelehen goz batian, goizian juten naiz kuartelea, zortzitzan o beatzitan, ta... Hor Loyolan zan e? Ta han, zea, kapitana zai... Joe! Besuak altxata. "¡Ahí va! ¡Que tienes que ir a Burgos! ¡Ya han salido todos!". Ta korrika trenea jun, pentsa ze goguakin jun nintzan. Trenea korrika jun estaziyoa, Donostia, ta trenian sartuta, ta nere orde z jun zanak atera in behar, ein behar izandu zun. Nere orde z jun zana kalera, ta ni han. Ta entrenamentuik eta ezer ein gabe, Burgosa "campeonato de España" korritzea. Ein genun rekorridua, baiño bua, itxoiñaldi earrak einda.

- Ta ze korrika-saio o ze kanpeonato?

- "Campeonato de España", militarrena.

- Zenbat?

- Hamabi kilometro, hamabi kilometro zian, ta lehenotik junak zauden beste batzuk.

3.5. Ogitartekoa parrandaren truke

- **Hizlaria(k)**: Zapiain Mendiola, Bittori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-006/020
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:42:46. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Santiago egunean atera zen Bittori lehen aldiz parrandan, Astigarrako jaitan. Anaiak ogitartekoa egitearen truke, kalejira bukatu arte gelditzen utzi zion Bittoriri.

Transkripzioa

- Behin esan zidan... hura graziya! Astigarragako festak ziren, ta aurren-aurreneko etxetikan... atera nintzana ni festetan, ordun izan zan, Santiago eguna! Eta, Astigarragan nabilen lagunekin ta, zer ordu izango ziren ba? Hamarrak. Ya etxera etortzeko garaia. Ta martxan, ta etorri ta esan zian "Bittori" ta "zer" ta "etxea jun ta bokadillo bat ekartzen badiazu geratuko haiz bukatu arte hemen". Aizu, holaxe esan zian. Mekasuen sos, hura poza neria! Ez nintzan... Jesus, zenbat denbora tardatu ote nuen nik hemen, Astigarragatik honera? Ezer ez. Etxera etorri, bi xerra ederrak hartu nittun prejituta bokadillo haundi bat, ta gero ez dakit beste urdaiatzeko zahar batzuk, zera eman nizkan, eta haik... Han zeon, bere lagunakin han zeon, ta ni ikusi niñunian etorri zan, ta bueno, orain geratu e, ta "hamabik... kalejira bukatzen denian bestiekin batera etxera e!". Ta "bai, bai, bai ondo zio". Hura poza neria.

3.6. "Gilda" pelikula

- **Hizlaria(k)**: Labaka Olo, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-010/038

- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Dena konfesatu behar. "Gilda" pelikula bota zutenean, ikusten zutenak eskomulgatu egingo zituztela esan zuten. Berak ere ikusi zuen. Elizaren eragina.

Transkripzioa

- Ordun edozer gauza kontestatu beharko zan...

- Dena, dena, dena, dena, dena, dena. Oi, behin baiño gehiagotan, oain ya aittatu izan dute ta, zea, pelikula bat, este, "Gilda", ez dakit ikusi dezun, segurasko bai, telebistan, ze telebistan milla aldiz bota dute ta. Ta ordun bota zutenean, hua ikusten zuna eskomulgatuta zegola. Ta nik ikusi nun hua're. Ez nun ezer entendittu, gaur okerraguak ikusten dittugu, Jesus, han muxun bat baldin bazan eta gaiñekuan ez zan. Ta oain ikusten dianak, eta eskomulgatuta, ta nere artian, "ni're hala neok ba ordun". Ta gaur denak erakusten ta harik eta okerraguak. Horregatikan kontua're asko da e? Elizako kontuak gauza asko ez da siñistekua.

3.7. Karlismoaren alde egotera derrigortuta

- **Hizlaria(k):** Ollokiegi Otaegi, Joxe Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-023/017
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:25:24. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Lehen, izaten ziren dantza-saioak eta dantzan erakusten zuten lagunak. Markesaren maizter guztiek nahitaez karlisten aldekoak izan behar zuten.

Transkripzioa

- Ta ordun izaten al zian dantza-saiuak eta dantzan erakusten al zizuen herrin norbaittek?

- Bai, bai, bai, dantzan bazian, danetatik. Reketiak edo zeak karlistak ez zuten iya bate. Kanpotik etortzen zian, baiño, este, nazionalistak bai. Nazionalistak PNVkuak eta hoik, joe, dantzari onak, eta herrin beti organizatzen zittuen, bai, bai.

- Eta erakutsi're bai herriko jendiak?

- Bai, bai, herrian bazian, bai, bai, bazian.

- Zu noizbait ibilli al zea ikasten?

- Ni ez, zeatik karlistak ez zuten nahi. Gu karlistetakuak giñan ta. Bai. Markesan baxtar guztik danak karlistak zian, beharko, nola obligaziyua bezela zan. Asko harrapatuko niñuteken gaur.

- Haik jartzen al zizuen baldintza? Haik jartzen al zizuen zuri noa jun behar zenuen? Markesak?

- Ez, ez, baldintzak. Baiño kasik obligaziyua bezela zan. Kasik obligaziyua zan.

- Interesak eongo zian...
- Klaro, bestela... Ez. Holaxe.

3.8. Sagardotegietako giroa eta "jakintsuak"

- **Hizlaria(k)**: Ollokiegi Otaegi, Joxe Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-023/025
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:39:55. **Bukatu**: 00:41:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Lehen, Donostiatik etortzen ziren ustez sagardoaz asko zekiten pertsonak; asko gastatzen zuten; eta haiek nora joaten ziren, jendea hara joaten zen. Basoak dexente betetzen ziren lehen. Orduko giroaz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Ordun ze itten zan, batian sartu ta han bukatu?
- Ordun izaten zan toki askotan, Ergobin igual bi hiru tokitan saltzen, Astigarragan beste bi hiru tokitan. Epoka izaten zan, primaberan beti, martxua ta epoka hortan, ta ordun jendia Donostitik etortzen zian ustez zakitenak, kimikua o deitzen ziotenak, Ameriketara ibili ta hamar milla durokin etorri ta haikin primeran bizitzen zian. Gastau hittunen earki hoik. Haik etortzen zian, ta haik tutian aitzen zian juego. Ta haik noa jutean zian, jendia hara juten zan. Haik uste zuten haik dana bazekitela.
- Ze etortzen zian Ameriketatik, haudixeo?
- Tranbian etortzen zian, ta o jokuan ai, ta kriston sagardo pillak. Hogeita hamar baso ta bakoitzak edaten zittun e?
- Eta basua, oain bezela, gutxi ta maiz esaten dana, hola saltzen al zan? Tragua?
- Bai, bai, tragua... Bai zea, tragua, basua bete itten zan ordun e? Hor basuak jeneralian egurrekuak izaten zian, baina baso dexentia e? Xoxa baliyo zun bakoitzak e? Askok etortzen zian Irun alde hortatik, kontrabandon ibiltzen zianak eta, durua botatzen zuten eta "benga!" ahittu arte daniadi. [...] danak ezautu dittugu.

3.9. Sagardotegietan jan eta mozkortu

- **Hizlaria(k)**: Ollokiegi Otaegi, Joxe Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-023/027
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:42:41. **Bukatu**: 00:43:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Lehen, jendea asko mozkortzen zen. Makina bat aldiz, mozkorrek Joxe Antonioren etxeko ukuiluan egin izan dute lo, simaur artean, etxera joateko gauza ez zirelako. Baziren gizon batzuk, angulak harrapatu, eta hurrengo egunean sagardotegira joaten zirenak haiek jatera. Orduko anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Jendia mozkortzen zan ordun? Mozkortzen zan...?
- Bai, bai, galantak, Jesus, kristonak, arrastaka're bai, makiña bat aldiz. Gure etxian, ukuillun, makiña bat aldiz, ximor pillan lo in izan dute, mozkortu ta etxea juteko gauza ez ta. Ene, Potono ta. Jesus, Maria ta Jose. Bazian.
- Eta, lehen-lehen, kontatzen due gizonak sagardotegira jun, eta astebetian atera gabe eoten zian hoitakuak... Hoitakuak ezautu dittuzu zuk?
- Bai, nik ezautu dittut, angula denboran, angula harrapatu gabian, ta hurrengo egunian, zartaiyakin juten zian, angulakin sagardotegira. Zartaiya etxetik hartu ta angulak zartaiyian jarrita juten zian. Ta gero esaten zuen, nik ez nun ezautu, baiño zakurrai isetsetik lotu zartaiya, ta arrastaka etxea bialtzen zuela. Nik ez nun ezautu, baiño hoik ba omen zian lehenotik, bai.

3.10. Etxean egindako pilotak

- **Hizlaria(k):** Sarasola Idarreta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-032/017
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:13. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Pilotak etxean egiten zituzten, nola azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta zuek pelotak zuek indakuak izaten zian, ala erosiya?
- Erosteke izan ezkeo bai; etxian harriyakin inda.
- Ta nola egiten da pelota?
- Pelota? ba samurra da, hasten zea ta bueltaka bueltaka bueltaka bueltaka bueltaka, hariya bilduta, ta gero hari hua libratzeko, berriz harriyai josi, jarri, harekintxe.
- Eta barruan zer sartzen zitzaion?
- Nik ez nun ezer'e izan barrenen jartzeko. Hoi...
- Kontxan bat edo ez
- Ez, ez, nik ez nun ezer izan barrenen jartzeko, baiño ordurako're bazian kixkik eta zea hemen kixkiya deitzen zayona, zea, pelota koxkorak bazian, pelota bizik atetazeko ta, baiño guk ez gendun izan holakoik.
- Zuek horrekin moldatzen ziñaten?
- Ahal zan bezela, ez gendun besteik eta!

3.11. Lurrean lohia eta eserlekurik ez

- **Hizlaria(k):** Lujanbio Alberro, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-043/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Lurrean lohia egiten zen eta zerrautsa botatzen zuen Anttonik. Garai batean zutik jaten zuten berezok mahaira ekarritakoa. Geroago jarri zituzten eserlekuak.

Transkripzioa

- Gogoan dezu lehenago, zu hona ezkondu ziñenian eta, esan dezu lurra gaizki...

- Bai.

- Zegola ta.

- Bai, makina bider... lurra, lurra zan lohia, lohia itten zan lurrian. Txotxian arittu edaten, ta ixtila hura, harekin, lohia, lohia itten zan. Ta haiek denak sekatu hurrongo egunian nik, eta zerrautsa botatzen nun disimulatzeko, bai. Hola.

- Mahaiak eta bazeuden orduan?

- Bai, bai.

- Bai. Barruan, eta gero kanpuan ere jaten zen ala?

- Ez, barruan.

- Beti barruan.

- Barruan, beti. Bai.

- Eta bankuak, ahulkiak... edo nola?

- Bueno, ordun... zer zian? Bankuak izango zian, ni honera eratutakoan, bankuak izango zian. No? Bai.

- Zutik ez?

- Zutik hasieran. Txotxeko denboran zutik, orain ere bai ta ordun ere bai. Baina, gero, ya zerakin, bankuarekin, gero.

- Baina hori ya gero? Leno zutik ez?

- Bai.

- Mahaiak bai baina?

- Bai zutik. Klaro, tortillak eta serbitzeko mahaiak behar dira.

- Klaro.

- Mahaiak eta serbilletak ta tenedoriak ta labanak, hoitako. Eta, gero, zera.

- Handik jaten zuten...

- Zutik, zutik! Bai, bai, zutikan.

- Orduan... eta kanpoan ere jaten zuten? Ez?

- Ez, ez.

- Kanpoan zutik izan arren ez?

- Ez.

- Edo edan...

- Edan ta bai. Hartu basua ta kanpora igual ateratzeko zian, esatea zerbaitte edo hola, baiño jan ez. Jan ez zuten kanpuan egitten.

3.12. Donostiako Anjel kalean sagardoa saltzen

- **Hizlaria(k):** Arrieta Matxain, Mertxe

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ATG-046/008
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:11:44. **Bukatu**: 00:14:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena**: Anjel kalean lokal bat izan zuten, upel bat edo birekin. Sagardoa egiten zutenean, galera hartu eta hara eramaten zuten. Han jendeari saltzen zioten. Arrantzaleek estimatzen zuten. Ama eta beste bi emakume egoten ziren han zerbitzen. Edalontzika saltzen zuten.

Transkripzioa

- Gero sagardua zan calle Angelen, parte zaharrian. Parte zaharrian gendun lokal bat, lokal bat zan. Eta han lokala zuen eta han zeon upel bat fijo, uper bat o bi o ez dakit zer. Han egoten zian. Eta gero hara, sagardoa itten zutenian eramaten zuten hara sagardua hemen, zera hortan galera hor, barrika luze... orain nola festetako ta luzi hoiek izaten dia upel lue estu hoiek? Holakoa zan. Eta galeran hor eramaten zuten Donostira, hara zeara calle Angel edo lokal hartara. Eta deskargatzen zuen han tubo batetikan sartu ta hara deskargatu upelak, upeleta, eta gero han itten zuten saldu. Jendiai. Han Donostiko parte zaharrekuei ta gustatzen zitzairen sagardua, ta geo asko etortzen omen zan hori, arrantzaliak etortzen zianian, badakizu lehen gabian atera ta goizian etorri, arraina freskoa nola? Eta ordun etortzen zianian ba beak ba hoi sagardua edateko ta, han sagardua saltzen zuten. Bukatu arte, han. Ta baiño han kazuelarik ta holakorik ez, baiño behin tortillaren bat baiño ez, zeatikan ez omen zeon. Zerbait'e elektrikua baino ez. Gainontzean beak ekartzen zuen, fiambrreran gosaia hamaiketakoa edo iteko beak etxetikan ekartzen omen zuen zera.

- Orduan han edan bakarrik?

- Edan. Edateko zan.

- Edan ta jan.

- Bai, bai, ta batzutan tortillan bat edo bai baiño elektriko ttiki batian. Zeatikan badakizu ordun etxe zahar haietan sua edukiteko ta ez ta han egitten emen zuen.

- Eta zein egoten zen han?

- Ba egoten azn ama berdurak ta geo buelta in ta ama ta gero beste bi emakume. Batek bi aittak uste det Loiolakuak ziela, nik ezagutu izandu nittun baiño ze izena duen ta ez naiz goatzen. Bi emakume egoten zian, batian bat ta bestian txandan bi emakume egoten zian han biak fijak, bat goizetik edo bestia atxaldian ta sagardua saltzen.

- Nola saltzen zuten, basoka?

- Basoka, basoka bai. Basoka. Bai orain txotxa izan dan bezala, ordun kanilla o txoxa o ez dakit zer izango zan baiño bai, basoka.

- Ta zer egoten zen, denboraldi batian zabalik ala?

- Bai, bukatu arte. Etxera hemen sagardua eraman behar zan, hemen ya gero zeratzen hasiz gero, ba nola ya geratu itten da badakizu nola hemen txotx geratzen dute enboteillatzeko? Ba ordun geratzen danean hura, ba ordun itxi egitten zuten.

4. Politika

4.1. Amaren atsekabea, Bilbo erori zenean

- **Hizlaria(k):** Arruabarrena Oiarzabal, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-004/024
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:33:21. **Bukatu:** 00:35:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Bilbora sartu zirenean, beraiek Markinatik bueltatu gabe zeuden artean, eta ama larri. Apaizak lagundu zion saskia etxera eramaten. Lau umeak falta! Denak antzera zeuden.

Transkripzioa

- Ta nere amai ta're han Bilbaoa sartu zianian, Bilbaoa sartu zianian, gu handikan etorri gabiak ta, zea, burun xistera zula berdurakin ezin aillaitu baratztatikan etxea; ezin aillaitu, kanpana bueltakuak eta Bilbaon eta harek jakin gu han giñala, aldi hartan. Ezin aillaitu.

- Ama zen hola?

- Ama.

- Zuen ama?

- Nere ama, baratztatikan eta ezin pausoik ezin eman. Eta zeak, esto, apaizak apaizak esan emen ziyon: "Juana, ekar zazu zea hoi, xestera hoi, eta neonek emango dizut etxea"; beheko sotoa beak ekarri emen zittun, ezin aillaitu, klaro.

- Atsekabeakin, zakan nahigabea.

- Klaro, klaro, ta lau ume falta, lau ume falta, ta denak bazakitela aldi hartan giñala. Ta hola.

Herriya ttikiya izatiakin ta eziñikusiya bai, baiña laguntza're izango zan.

- Txikiya... Bai, laguntza, zenena? Zenen laguntza? Denak berdiñak gauden ta. Denak berdiñak gauden.

- Batak bestiai esan nahi det, pixkat, apoio pixkat edo.

- Denak berdiñak. Batekin hizketan hasi ta negarrez. Bestiai zeatu ta "nere semiak ere han zion, bestia're han zion ta zean ta. Hola. Bai, bai.

4.2. Aita Frantziara, soldadu ez joatearren

- **Hizlaria(k):** Lujanbio Tajdus, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-014/004
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1923-1931: Primo de Rivera
Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena:** Aitak Frantziara egin zuen alde, soldadu ez joateagatik. Frantzian igeltsero aritu zen lanean. Errepublika garaian, alde egindakoei itzultzen utzi zieten eta orduan itzuli zen aita Astigarragara familia osatu berriarekin.

Transkripzioa

- Nola, nola akordatzen zea, o nola kontatzen zun zure aittak hemendikan Frantzira zergatik alde in zun edo?
- Zergatik alde in zun, esango dizut ba. Garai haitan, garai haitan, numeroz joaten zian soldadu. Hasten zian unotikan edo nik ez dakit nola izango zan. Ordun unotik, eta gure aita batez libratu soldaduskara jun gabe. Baiño bere aurrekuak alde in in zun, Frantzira, ta geo gure atittai deittu. Ta gure aittak "hik alde in, baita nik'e", bestia're Frantzia jun. Ta hantxe lanian aittu zan. Igeltserua zan. Arittu omen zan, nik ez dakit, esandakuak e? Bai, bai, igeltserua zan. Ta zer bat. Ta gero republikako garaian eman zuen libertadia alde in zuenak etortzeko honea, ta gu ordun etorri giñan honea, Astigarragara. Astigarragan jarri giñan bizitzen, Kakoneko... Kakone bakizu nun dagon? Jakingo dezu.
- Adittua dut, bai.
- Bai, ba, horrentxen aurrian, hantxe laugarren pisun, hantxen bizittu giñan, aitta ta amik be gelditu arte.

4.3. Gerra Astigarragan

- **Hizlaria(k)**: Olano Zapiain, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-022/014
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:29:24. **Bukatu**: 00:31:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerrako oroitzapenak gogoan ditu: nazionalak San Markos menditik sartu ziren eta beraiek bi bandoen arteko borroka ikusi zuten. Gerora, Bilbora iritsi zen frontea.

Transkripzioa

- Zu gerra garaiko urte haitaz, nola akordatzen zea? Akordatzen zea hemen soldaduik ikusirikan edo...?
- Bueno, nik beatzi-hamar urte eta hortik sartu zian gobiernu nazionalak eta hartu zittuzten mendi hoi: San Markos ta Txoritokieta. Ta bestaldian zauden beste bandokuak, zean, Hernaniko mendiya nola dago hor?
- Santa Barbara?
- Santa Barbara. Eta kanoyak tiratzen ziyoten, guk nabaritzen giñun nola pasatzen zian, zeak, kaiñoyak bota zittun grandak. Eta hortikan tiratzen zittuzten hara, ta hua hemen erditikan pasatzen zian, ta guk nabaritzen genittun soiñuba nola pasatzen zuten batea ta bestea.
- Hura bizi gabe ez da jakitten ze izango zan e?
- Ez, baiño ya hemenguak ya etsi zuten ez zutela gauza onik eta alde in zuten Bilbao aldea ta han formatu zuten beste frentia, "cinturón de hierro" esaten ziyoten. Ta han'e denboa pranko aguantatu zuten. Baiño hemendikan ya peligro hoi ya pasa zan Bilbao aldea.

4.4. Cervera gerraontziaren oroitzapenak

- **Hizlaria(k)**: Olano Zapiain, Ramon

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-022/015
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:31:08. **Bukatu**: 00:32:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra garaian Bilbon egon zen burdinazko gerrikoa. Nazionalak Cervera gerraontzia zeukaten, eta harekin botatzen zituzten bonbak lehorrera; Astigarragan etxetik egoten ziren bonba haiei begira.

Transkripzioa

- "Cinturón de hierro" hoi nundik noakua zan?
- Hor, Bilbaon inguruko menditan han frontoya zea joan zian, kontra itteko. Eta barku bat'e bazuten haik, Cervera izena zuna. Ta harek bonbardatzen zun honea sartu zianian, zeak nazionalak, barkuak botatzen zittun bonbak; ta guk hemendik ikusten genittun, baiño behin'e ez ziyoten goraiño aillaitzen. Beti bidian lehertzen zian. ta hemendikan beira egoten giñan gu nola...
- Hemendik, Astigarragatik?
- Bai, basarri hontatikan, basarritik, etxe hontan ez, baiña basarrin. Basarrin bizitzen giñan ordun. Ta bueno, behintzat, Bilbao aldea pasa zian ta ordun ya guk peligro gutxiyo genun hemen.

4.5. Astigarragan, hainbat egoitza politiko

- **Hizlaria(k)**: Ollokiegi Otaegi, Joxe Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-023/016
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:23:30. **Bukatu**: 00:25:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Batzokia, Centro Republicanoa eta karlisten egoitza zeuden Astigarragan. Elkarrengandik gertu zeuden, eta elkarren artean ez ziren ondo konpontzen. Egoitza bakoitzean hainbat kontu antolatzen zituzten. Centro Republicanoan pilotak saltzen zituzten, eta beraiek pilota haiekin ibiltzen ziren jokatzeko umetan.

Transkripzioa

- Zeiñek organizatzen zittun ordun? Batzokin organizatzen zian o zeñek...?
- Bai, batzokik eta. Ordun zian batzokiya, "centro republicano", ta geo karlistena. Karlistena bihian. Geo zentro republikanua eskubitan eta batzokiya ezkerretan. Eskailleran nola plazara iyotzen da? Han, bat eskubitan ta bestia ezkerretan zien. Danak borrokan!
- Hoi galdetu behar nizun, ondo konpontzen al zian haik?
- Bai, los cojones! Ondo konpondu! Halako mentalizaziya zeon ta. Holaxe.
- Ta haik ordun batzokikuak edo antolatzen zittuen?
- Bai, batzokik eta gero zentro republikanokuak'e, haik republikanuak oso jatorrak zian. Ta haik pelotak saltzen zittuzten ta denda, taberna're zakaten haik, taberna're bazakaten. Hoixe. Ta pelotak baliyo zittun hiru errial.

Pelotak baliyo zittuzten, saltzen zittuzten, guk ibiltzen giñun pelotak. Hiru errial zenek zittun ordun?

- Ta ein eitten al zenituzten, kanpeonatotako ez, baiña hola entrenatzeko...?

- Entrenatzeko ta bai, pelotak goxuan ibiltzen giñen. Pelotak, zea, trapuzko pelotakin ta, bai. Hamabi urtekin ze emango zuten.

- Zeok iñak pelotak?

- Ez, ez, ez, pelotak saltzen zian e? Peloteruak egiñak. Ta esaten det, preziyo hortan saltzen zian.

- Baiño hiru errial ez zittunak in'e igual in beharko zittun?

- Hiru errial zenek zittun ordun? Iñork ez. pelota partidua jokatzen genunian kuadrillan'e, hamar xentimo jokatzen genun. ta iñork'e poltsillun diruik ez, hamar xentimoik'e. iñork ez baezpada jokatu [...], ta kitto in arte segi, jo ta jo hortxe. Ezer ez. Hamar xentimo zenek? entrenamentuik hobena bea, ezta? kitto in arte segi.

kitto in arte segi. halaxe.

4.6. Pelaio eta margaritekin desfileak

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Agirregabiria, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-027/015
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:27:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberría, Eider
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena**: Pelaioen eta margariten desfileetan ibiltzen ziren gaztetan, non zebiltzan jakin gabe. Alderdi askotako etxeak ziren, baina amak ez zien uzten haietan ibiltzen.

Transkripzioa

- Zu akordatzzen zea desfileikan eta eitten ote zan Astigarragan, akordatzzen zea?

- Pelaiuak eta bai, gaztiak eta bai. Ni're ibiltzen nintzan, ni're ibiltzen nintzan. Animatzen zaittuzte ta zer zabiltzanik jakin be, ze partidu dan galdetu gabe... Bai, bai, bai, bai, ibiltzen zian, bai, falangistak eta karlistak eta, bai. Hoik zian ba [...] zeak.

- Ta neskak...

- Bazenekin bazeola herrin centro, nola esaten ziyoten, gure etxea uste det, euskal... ez dakit. Bi zentro: bat batena, bestia... Baiño gu ez giñan behin'e jun, ta behin ere ez nintzan izan...

- Zentro republikanua?

- Bai, zentro republikanua ta gero uste det eusko etxea o ze esaten ziyoten. Geo zirkulua're, hoi holako tokik zian, baiña guk... Ni ez nintzan behin'e behin'e behin'e sartu. Gure amak ez zigun uzten kalea're jutun, ez zan piyatzzen. Mejikotik etorri zalako izango zan, zeatikan hemen bestela... ez zigun uzten: " ama plaza jungo naiz", eta "ez!", ez zigun uzten, "ez, ez, ez", ta ez zigun uzten. Geo bai, geo haunditu giñanian geo bai, baiño umetan ezta pentsatu're.

4.7. Kontu politikoengatik aitzak fama txarra

- **Hizlaria(k):** Almandoz Almandoz, Ixabelita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-035/023
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:48:29. **Bukatu:** 00:49:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Astigarragan nazionalisten alde zeuden asko, eta Ixabelitaren aita gaizki ikusirik zegoen herrian, ez baitzen inoren kontra ez inoren alde jarri.

Transkripzioa

- Zer tokatu itzaion, batzuen alde edo bestien alde in beharra, eta?
- Klaro, momentua etorri zenean, nazionalak aitakin bat egin.
- Bai.
- Ordura arte ez zaukan... ofizinan lan itten zun... zer inporta zitzaion hari?
- Ta haiekin bat in arren bestien kontra ez zun in.
- Ez, baiño bein'e ez do hori itterik, mundu honetan ez dao hola jokatzetik.
- Bai baiño batzuk iten dute, batzun alde ta bestien kontra.
- A bai, bai. Baiño bestela entendittu dizut, entendittu dizut egiten zula biyen alde in da.
- Ez.
- Hori esaten nizun. Ez, ez, kontra ez. Kontra ez. Bi kaso ezagutzen ditut aldrebes, nere amak salbatu zittun bi makarroso, hartzen dute gizona eta Erribereta eramatera zijoazten fusilateko. Haiek nere amak salbatu zitun. Aitzak ez, aitzak nahikua zaukan bere puestoan egotea. Ez baterako, ta ez besterako, zeatik biyeta jokatu behar zuen, familia erdia zuakan leku batean ta beste erdiya bestean zaukan. Ta bera bakarrik zegoen libre zeatik bere lana ofizinan bizi guzti-guzti-guztin, eta ez zun beste gauzik izandu.

5. Ohiturak eta bizimodua

5.1. `Hau da gabaren zoragarria', gabonetako kanta

- **Hizlaria(k):** Arruabarrena Oiarzabal, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-004/037
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:57:30. **Bukatu:** 00:58:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena:** `Hau da gabaren zoragarria' eta, gabonetako kanta.

Transkripzioa

- Gabonetako kantaik ba al dakazu goguan? Jaiotzan inguruko kantaikan. O kantatzen zenuenik edo...
- Buu, asko. "Josetxo..." zea. Ba, asko, asko dia hoik. Jesus Maria!

Josetxo ekar zazu
auzotik esnia
haur honi emateko
munduko legia.

Hau da gabaren zoragarria!
Jesus jaio da Belenen.
Etxe honetan sartu ote dan
bila gabiltza beraren.

- Ze politta!
- Bai, ta hola, hola, asko. Jesus! Hola asko. Bai.

5.2. Eskola eta gero, partikular

- **Hizlaria(k)**: Arruabarrena Oiarzabal, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-004/042
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:07:10. **Bukatu**: 01:08:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: 14 urte arte eskolan. Eta gero partikular joaten zen, ordubetez. Maistra berarengana; orduan ez zen berarekin sartzen, ordaindu egiten zuten eta.

Transkripzioa

- Hamalau urte arte ibili ziñan?
- Bai, nahikua aguantatu nun. Ta geo partikular juten nintzan. Geo partikular hamabitatikan ordu batea. Bai.
- Matematika pixkat edo ikastea edo zerta juten ziñan?
- Bai, partikular juten ziñanaldi ordun ez zun izaten "qué vergüenza ni esto te han enseñau", "como había que pagar"...
- Ya, ta maistra berdiñangana?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai...
- Beitu, aguantatu zenun.
- Bai, bai, bai, aguantatu nun, bai.
- Zu partikular zenbat denboan ibili ziñan?
- Ba, pues ez dakit, hamalau urtetik... Bueno, nere illoba lenbiziko illoba jaio zan nik hamahiru urte nittunian jayo zan. Ta gero hari kontu itten, ta gero zeara juten nintzan, partikularrea. Pues hamasein bat urte edo.

5.3. Joxek sermoia bota zueneko

- **Hizlaria(k)**: Goñi Urreaga, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-005/004
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:06:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** 12 urte zituela, Herreratik Astigarragara itzuli ziren bizitzera. Orduan, komunioa egin behar zuen. Garai hartako apaiza, don Luis Zufiria, gizon ona zen. Apaiz horrek aukera eman zien umeei sermoia emateko, eta Joxe izan zen lehenengoa sermoia eman zuena.

Transkripzioa

- Ordun zuk haurtzaroan lehenbiziko gauzak akordatuko zeanak esan diazuna, Herrerako...

- Bai, gero handik honea etorri giñan, ta ba bueno hemen ordun nik hamabi urte banittun. Ta ordun ein genun, nik, ordun izaten zan komuniyo txikiya ta komuniyo haundiya, bi. Ta gu etorri giñanian, ordun zan hemen apaiz berri bat etorri zan, apaiza ona askua zan hua. Ona esan nahi nuke, gizona lagun artekua ta... Oain'e badia, baiña bazian ordun beste tankera bateko apaizak izaten zian, danetakuak izaten dia hoik'e. Baiño hua ez, don Luis Zufiria, goialdekua zan nunbaitte. Baiño oso famosua. Misiyuak eta ordun ematen zen sermoiyak eta oso umetakua. Eta hua etorri zan urte hartan, ta aurreneko gu giñan, mutil koskorak hamabi urtekuak, Sabina're bai gukin batian ein zun. Eta goatzen naiz, bai, hoi sekula ez zait ahaztutzen, beti ta lagun artian askotan, bakite, danak bakite danak, nik egin nun aurreneko sermoiya. Ez zan eitten Astigarragan, gero hasi zian, ta bikariyu horrek, horrek moldatu zun gu, ta sermoiya ta geo emakumiak izaten zuen "abanderadas" esaten zan. Gaur ez dao holakoik. Ordun izaten zian, ta holakuak. Ta gu jarri giñun hiru preparatzen, sermoiyeako preparatzen hiru mutil giñan, ta geo han esamiña han itten giñun, esamiñak eta han ein, Sermoiya ein, ta pruebak eta. Ta ni bereizi niñun.

- Hiru hoitatik?

- Bai, sermoiya.

5.4. Dantza lotua bekatu izateari beldurrik ez

- **Hizlaria(k):** Goñi Urreaga, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-005/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Lehen, dantza lotua egitea bekatu zen; eta, leku batzuetan, galarazi egiten zuten, Urnietan adibidez. Baina beraiek ez zuten kasurik egiten. Nolanahi ere, Oialumen eta Astigarragan libre izaten zen dantza lotua.

Transkripzioa

- Ordun dantzan edozein moduta ittea ta, pixkat bijilatua o ez al zan eongo?

- Bijilatua, ez. Bai, pekatua zan, ordun dana pekatua zan. Baiño ordun

bazan galazi itten zuen, lekuk bazian galazten zuenak heldua: Urnieta bat, Urnieta. Ta guk ez giñon kasoik itten, munizipalak eta ibiltzen zian, ta guk "Aaaa!", guk aurea itten genun; neskak "Bai, bai, ze nik honekin ibilli nahi det, Zergatik galazi behar dezu?", ta gogor eitten genun, ta ez ziguten ezer esaten. Bueno, esan bai, baiño kastigoik ez behintzat. Hola ibiltzen giñan. Baiña Oialumen libre izaten zan. ta Astigarragan'e bai. Urnietan'e akaso bertako seme-alabak edo izan baldin baziñaten...
 - Igual, igual, bai, igual errespeto gehiyo, ta geatu in behar, ezagunak eta gu ezezagunak giñan hara juten giñanian. Geo ezautuko giñuzten, baiño momentun behintzat ezezagunak, eta gogor itten genun, ta tira.

5.5. Antonio "el hombre de respeto"

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Olano, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-009/020
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Dotrina elizan ikasten zuten, sakristian. Bikarioak jo egiten zituen umeak; baina Antoniori "el hombre de respeto" deitzen zion.

Transkripzioa

- Dotriña non ikasten zan?
- Elizan, elizan bertan. Elizako, zea, sakristian. Ba al dakizu nola izaten dun sakristiya elizek? Bueno, han, guk han izandu genun, guk ez genun izaten oain ibiltzen dian bezela, lokaletan ta hola, ez gea, ez, ez... Elizara. Ta han bikariyuakin edo. Ta bikariyua "aquí te espero, aquí te espero, eh?"
- Zer zan, zorrotza?
- Zartada igual ematen zuna. Nei ez zian aillaitu jotzea, baiño franko bazittun arreatuk. Pranko bazittun. Ez, jator xamarra nintzan ta... "El hombre de respeto" esaten... Bikariyuak bikariyuak esaten zian "el hombre de respeto vas a ser tú".
- A bai e?
- Bai, harek esaten zin.

5.6. Soldadutzako gidabaimena eta kontrabandoko gasolina

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Olano, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-009/029
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:47:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Soldadu zegoela atera zuen kamioiko gidabaimena. Lagun batek animatu zuen gidabaimena ateratzeko. Gasolina kontrabandoan erosten zuten; orduko anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

Karneta soldadu neola atea. Bi lagun giñan geudenak almazen batian. Bestia apaiz estudiantzen o ibiliya zan, listua, kabua zan. Nere onduan kategorikua zan hua. Ta "Hi! Karneta atera behar diyegu!", "Karneta atera bihar al degu oain?", "Bai, karneta atera behar diyegu". Denboa askuan genden soldadu, nik lau urte o pasa nittun behintzat eta, soldadu eta, batekin ta bestiakin ta bestiakin ta... Hala, behintzet, joan gea ta hasi gea. Gasolina´re geok eamaten giñun: kontrabanduan erosi, zeon zeonai, guardiin zeonai, guardiaidi, kotxiaidi almazenian edo, garajian, guardiya iten zuanak bakoitzak pixkanian, gasolina ostutzen ziyeten zauden mutillek. Mutillek hamasei urtekua edo hamabostekua, edo holako mutilla guardiin, gabian, guardiya itten. Zeatik atiak zabalik nola egoten baitzian garajekuak jeneralian, garajeko atia. Giltzak berekin zittuztela, eo, behintzat hala egoten zian. Ta ostutzeko bildurra ordun nagusiik alkarren artian, jarri itten zuten beren artian mutil bat kontu itteko, mutil gazte bat. Ta gaztiak lapur amorratuk! Ta haik lata pixkana kentzen ziyoten, ez ziyoten nabarmen kentzen, pixkana. Ta lata betetzen zutenian, ordun guri esaten ziguten: "Aizu, zea, lata betia dakat eta eamango al zenuteke hoi?" ta "Bueno, bueno, eamango deu", ta lata hartu ta garaje batea edo eamaten genun. Ta horri ematen geniyon, txofer eakusten ibiltzen zanai, karneta ateratzeko preparatzen ibiltzen zanai.

5.7. Kongregazioak; dena bekatua

- **Hizlaria(k):** Labaka Ollo, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-010/037
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:48:19. **Bukatu:** 00:49:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Kongregazioak. Luistarrak eta Mariaren Alabak. Dena bekatua zen. Loiolan Ubako ospitalea biriketako gaitza zutenentzat. Bisitan joan, eta gero Loiolako kuartelean soldaduekin dantzan!

Transkripzioa

- Bai, bai, Luistarrak ta Marian Alabak'e bai, ta hoi ba, esto zeon, este, Ama Birjiña Kontzesiyoko eguna, eta klaro, komuniyua hartu bihar, eta dena pekatua gendun, pentsatzia ta denak zeatu. Eta zea, lagun bat bagendun hor zeon Loyolatikan goikaldian ordun izaten zan petxutik eta zegonantzako enfermuentzako, ba, zea, este, ospitala bezela edo zerbait. [...] deitzen zayonaz. Eta lagun bat genekagun hor zerbaitte petxutikan zeatua hor, Ama Berjiñako [...] haikin, ta [...] giñan, zea, bixita Xabina ta biyok. Eta jetsi gea, zea, kuartelea, zeara, musika festa baitzan han zeon, soldadukin dantzan! "Xabina, goizian kumuniyua hartu diñu ta zer ai

gaittun oain! Juergak'e pasatzen genittun e? Juergak'e pasatzen genittun, bai.

- Pekatu guztik goizian konfesatu, kumuniyua hartu ta...

- Ta hurrengo egunian ya, zea, mutillakin dantzatu ta pekatu zean.

5.8. Haurdun ez geratzeko neurriak hartzea, bekatu

- **Hizlaria(k):** Labaka Olo, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-010/043
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:56:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena:** Haurdun ez geratzeko neurriak hartzea bekatua zen. Hiru urtean hiru izan, eta frenoa jarri zuten. Ez zen planifikatzen. Fraideek sermoietan esaten zituztenak, izugarriak. Familia handiak izaten ziren.

Transkripzioa

- Ta haurdun gelditzeko edo, neurriyik hartu hartzen zenuen ez gelditzeko?
- Lehendabizi ez behintzat; gaiñetan'e pekatua zan ta, dena pekatua. Ta hiru hiru urtian izandu nittun. Baiña handik aurea ya frenua jarri geniyon guk ere.
- Jarri beharko
- Hombre, beharko, beharko. Hiru urtian hiru: bi seme ta alaba.
- Ta hoi pentsatuta izaten al zan? "Bueno, oain..."
- Oain bezela ez, ke ba, ke ba. Oain, aizu, ordun sermoyak etortzen zianak zeak frailiak eta, zean, esto ze ze gauzak esaten zituzten gaiña. Jesus, Maria ta Jose! Ze ze gauzak. Oseake nahita nahi ez dena barrena behar zala, "nada de esto". Eta guk oain esaten deu, goatzen naiz, esto, fraile bat oain dela urte batzuk, ba, oain esango balitu hoik, harrika eramango litukete; beak esaten zuten, beak e? Frailiak, "oain hoik esango banittu harrika emango lieke", egiya, egiya. Baiño gaur sikiera gauz bat ona bado, "bueno, nahi det eta ekarriko det, ezta?". Baiño ordun dena balekua. Horregatikan'e famili galantak izaten zian ba.

5.9. Donostian dena erderaz

- **Hizlaria(k):** Aramendi Telletxea, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-019/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:14:03. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

- **Laburpena:** Oso gazte hasi zen kanpoan lanean Inaxio, Donostian. Alde handia sumatu zuen honek Astigarragan eta Donostian, batez ere azken hau erdalduna zelako. Eskolan erderaz ikasi bazuen ere, kalean euskaraz egiten zuen beti.

Transkripzioa

- Hemendik Astigarragatik hamalau urtekin atera.
- Bai.
- Donostiara juteko, ezta?
- Bai.
- Ta zer pentsatu zenun? Guri iruditzen zaigu orain hamalau urtekin ume bat dala.
- Bai, bai. Umiak giñan zeatikan Donostin, lantokitan, erderaz hitz egiten zan dena, ta guk hemen dena euskeraz. Ni hara aillegatu nintzan oso motz.
- Ta eskolan ordura arte ez al zenun erderaz ikasi?
- Hemen? Eskolan erderaz ta kalia berriz gu dana euskeraz aritzen giñan. Kontraste bat zan. Baiño pixkanaka-pixkanaka hura're ikasi in genun.
- Ta eskolan erderaz e?
- Bai, dana erderaz gaiñera.
- Monjetan ikasi zenun edo?
- Pixka bat aurrena, ez dakit ba, hamar urte arte edo monjetan, ta gero berriz, maisuakin. Ayuntamientoko etxi hortan zan eskola garai hartan.
- Hori publikoa edo izango zen?
- Bai bai publikua zan bai.
- Eta bitan erderaz, monjekin bai ta?
- Bai. Biyetan erderaz.

5.10. Amonak arropa garbitzen egiten zuen lan

- **Hizlaria(k):** Aldanondo Garmendia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-020/004
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:06:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Bere amonaren lanbidea arropak garbitzea zen. Horri buruzko hainbat kontu azaltzen du: nola ibiltzen ziren, nondik ekartzen zuten arropa, zenbat denbora izaten zuten garbitzeko...

Transkripzioa

- Hemengo usaiera lengua nere amona zanak eta zuten arropa garbitzia, kanpoko arropa.
- Hara.
- Ta haik itten zuten ekarri, pillak ekartzen zittuzten ta garbittu errekan. Alkitxo bat, mahaitxo bat bazuten, bere jaboia han jarritakua ta errekan sartu hankutsik ta bestela kuletan, ebi asko baldin bazan kuletan; ebiya baldin bazan zakua burutik behera hartu ta arropa garbittu. Majiña bat bidar jaboia eskapa in ta maindiriak'e bai.
- Ta nondik ekartzen zuten arropa?
- Donostitik. Donostitik ekarri, garbi-garbi ein, [...] garbittu, lehortu ta

doblatu ta astekuak eraman ta oster a zikiñak ekarri.
- Ta Donostiko jende hoi zer zan, jende aberatsa o...?
- Jende aberatsa, lezaken jendia. pobriak ez zituen nahi ein.

5.11. Erlezainen babesak

- **Hizlaria(k):** Berasategi Mintegi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-025/026
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:49:12. **Bukatu:** 00:50:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Lehen, erlezainek aurpegia eta besoak babesten zituzten. Erleen ziztadei ez zieten garrantzirik ematen. Ziztada egitean, pozoia ateratzea izaten da onena.

Transkripzioa

- Eta oain ikusten dia holako astronauta bezelako trajiakin, eta ez dakit nola jungo ziñaten, o guanteik bai, o sareikan o zerbait behar izaten al zan?

- Guanteik ez, guanteik ez gendun ibiltzen, baiño aurpegiko saria bai. Gendun "pasamontaña", hola, "pasamontaña" gaur hartu eta aurria hola kendu, eta han saria jarri. Saria metalikua, fin-fiña, eta huaxe izaten zan. Jarri eta gaur bestelakuak daude, baiño ordun hala izaten zan. Hua hemen ondo-ondo lotu, ez barrua sartzeko erleik, eta hola juten giñan. Eta eskuk honeaiño mangak, hemen lotu; bestela, ez bazian lotzen, ziriztutik sartu, ta hoi bai, behetik gora iyotzen zian, ta zazta hemendik! Eta, hor lotu eta juten giñan, bai...

- Ta ziztadan bat iñez geo, ziztakon bat iñez geo...?

- "Ni caso", baiño oain oain ez emen dia danak hola e? Oain erlian ziztadakin batzuk oso gaizki ibiltzen emen dia. Bai. Nei ez dia behin'e. Nei ziztakoa, ta, ba! Ta geo haunditu eitten da pixkat. Bai, konforme. Baiño, nada. Ziztakoa eitten baldin bada hartu ta, ahal badezu, harek ein dun ziztako hartako odola ateratzia. Ya garbittu. Harek jartzen dun benenua, hua kendu. Bai. Gaiñontzen, ez du [...].

5.12. Don Saturnino Irisarre, balio handiko gizona eta maisua

- **Hizlaria(k):** Berasategi Mintegi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-025/034
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:05:04. **Bukatu:** 01:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Gerra etorri zenetik, maisu errepublikanoa ez zen gehiago azaldu. Leitzako maisua etorri zen orduan, don Saturnino Irisarre. Oso

gizon ona eta langilea zen hura. Baserriko lanengatik, Antoniok askotan ezin izaten zuenez eskolara joan, libreago zegoenean, maisuak berari bakar-bakarrik ematen zizkion klaseak. Asko balio zuen gizon hark.

Transkripzioa

- Bukatu zan, gerra etorri zanian; gerra etorri zanian, geroztik ez zan azaldu. Republikanuekin ibiltzen zan. Geroztik ez zan azaldu, eta ordun etorri zan "un tal" Irisarre. Saturnino Irisarre, maixua, Leitzatik. Leitzan zeon maixu eta handik etorri zan. Oso ona. Baiño... gizona ona, langillia, dena, dena, dena! Ni akordatzan naiz, jakiña, basarrin lan asko izaten zan; eta nik udan bi hillabete o holaxe belarretan hasi ta artuak eitten, ta artuak jorratzen, ta belarretan. Ta mutil koskorra. Baiño beti [...] izaten baitzan, merienda eramateko, ura ekartzeko... Ta ez nun juteik izaten. Ta gero udazkenian, ya lana bukatzen zanian, eskolara; ta maixu horrek ni bakar-bakarrik hartzen niñun, bakarrik hartu eta erakusten zian. Bai. Zan gizon bat, bueno, gutxi izan leizken bezelakua zan.

5.13. Galdutako eskolak errekuaratzen lagundu zion maisuak

- **Hizlaria(k):** Berasategi Mintegi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-025/037
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:08:20. **Bukatu:** 01:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Lehen, baserriko lanak egiteagatik, umeek askotan ezin izaten zuten eskolara joan. Don Saturnino maisuak, hala ere, asko lagundu zion Antoniori. Orduko mailak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ordun normala izaten zan baserritatan ta gutxi jutia, hola lana zegoian ta pentsatzen det [...] etxe aldea ibiliko zala, ta...
- Bai, basarrin beti lan izaten dezu. Ez baldin bada belarrak eitten, artua jorratzen, babarrunak... Baratzan, ta guk baratzak baratzak ditugu urte epoka guztitan gaiñian egon beharra. Beti lana izaten da. Eta horregatik basarrikua gutxiyo juten zan, juten giñan eskolara; kalekuak, egunero. Ta gure edadekuak alkarrekin eta gero guk jun be bi hillabete pasa, ta gu atzeatuta geatzen giñan. Baiño gure maixu harek, ni akordatzan naiz, bakar-bakarrik hartu ta gauzak erakusten nola aitzen zitzadan. Ta nik bestien modun eraman nittun. Izaten zian aurrenekua "grado preparatorio", gero "grado elemental", "grado medio" eta "grado superior". Hiru, hiru... edo lau kategoriko zea liburuk giñutzen. Eta grado mediotik grado superiorra, edo grado elementaletik grado superiorra pasatzeko, hura jakin behar zun; bestela, ez zeon pasatzeik. Eta beak esaminatzen zun e? Beste iñorrek. Beak maixuek esaminatzen zun. Ta hola ibiltzen giñan. Bueno.

5.14. Bota iltzedunak eta pneumatikozko abarkak

- **Hizlaria(k):** Arzallus Aristi, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-030/028
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:48:19. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Lehen erabiltzen zituzten botak iltzeak izaten zituzten zolan. Abarkak larruzkoak izaten ziren normalean, baina baziren batzuk pneumatikoz egindakoak ere.

Transkripzioa

- Bota asko ibiltzen zan.
- Katiuskak?
- Katiuskak geroxeo hasi zian, bai, baiño botak. Guk gazte denboran botak ibiltzen genittun azpin iltziakin, iltziak, iltziak, baiño perratokiko iltziak. Perratokiko iltziak oso espezialak dia. Perratoki, behiyak perratzeke, badakizu behiya perratzia zer dan?
- Bai, bai.
- E? Perrak jartzia? Ba perrak lotzeko behiyai, ba ibiltzen zian iltziak espezialak, oso... oso mutur zorrotz luze luziak eta buruba izaten zuen kuadrutuba izaten zuen; ta halako iltziakin jositako botak ibiltzen giñun, gehiyo aguantatzeko botak: bota lodik, zakarrak...
- Neumatikoakin indako zola,ala...?
- Abarkak? Ez, ez, ez, ez, larruzkuak, larruzkuak zian ordun ibiltzen zianak. Ibiltzen bazian abarkak neumatiko puskaikin indakuak e? Bazian, baiño... bai, ibiltzen zian, baiño ez hainbeste. Beste abarka normala ibiltzen zan, gomazko abarka.

5.15. Erdara nesken bitartez ikasi zuten

- **Hizlaria(k):** Arzallus Aristi, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-030/039
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:02:58. **Bukatu:** 01:04:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Txikitan maistra eduki zuten; baina gerora, mutilak bakarrik jarri zituztenean, maisua izan zuten. Erdaraz ikasten zuten, nahiz eta erdaraz hasieran hitzik jakin ez. Mutilek nesken bitartez ikasi zuten erdaraz egiten.

Transkripzioa

- Zuek zer zenuten maistra ala maixua?
- Nik txikitan maistra. Alkarrekin neska-mutillak ibiltzen giñanian maistra gendun. Donostitik etortzen zan, doña Pura, akordatzen naiz. Eta gero, geo beste haundita sartzian, gora jutian neskak o mutillak bakarrik eta neskak

bakarrik, ordun maixua gendun.

- Nola zun izena?

- Don Saturnino Irisarri. Irisarri. Goizutako o Leitzakua uste det zala, bai, gaizki ez banao.

- Baiña garai hartan euskeraz ez zenuten ingo.

- Ez, harek ez zakin euskeraz, guk bai, guk erdera ez genun itten, eske ez genakigun ta, ez genakigun.

- Eta eskolan euskeraz hitz egin ezkerro.

- Ez genun [...] izan, nik dakidala, hoi askotan entzun det zenbait tokitan izandu zituztela eragozpenak eta zea, baiño guk euskeraz hitz eitteko ez gendun problemik izan behin'e. Guk erderaz ikasi genun neskan bitartez. Gu baiño leno hasi zian neskak juten Hernania dantzara ta, Hernanin erderaz asko itten zan ordun, Hernani ya herri industrialak zan, eta herri industrialak beti erderaz lenago ikasi dute industri gabeko herrik baiño. Hoi Gipuzkoa guztin ta Bizkai guztin. Ba ordun neska gaztiak juten zian dantza, gu baiño azkarro juten zian, gu hola ibiltzen giñan, gu asto koskorak. Eta haik Hernanin ikasten zuen erderaz eta guri erakustea. Guk neskan bitartez ikasi genun aurreneko erdera, ikasi genun, bai. Gu baiño azkarrok zian neskak, beti bezela.

5.16. Astigarragako maistra

- **Hizlaria(k):** Almandoz Almandoz, Ixabelita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-034/006
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:11:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 - Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena:** Zortea izan zuen Ixabelitak, eta Astigarragako eskolan lana eman zioten. Eskolak euskaraz ematen bazituen ere, ezkutuan egiten zuen.

Transkripzioa

- Eta kasualidadia izandu nun, Astigarragako eskolan eman ziaten lehenbiziko beharra zan, sartu niñuten han sartu nitzan. Ta konturatu nintzan, ba bai, asko gustatzen zaitzaizkidan umeak, asko, asko. Baina pasa're in nun, zeatik hasi ziren lehenbiziko... kastellanuak deitzen genien orduan, eta ezertxo ere ez zakiten. Nola eman behar zenun euskeraz, erderaz, bueno, euskeraz kamuflado totalmente. Eta guk gehiena euskeraz ematen genun baino beti... jende horrentzako ere propiyo in behar zenun, bueno... etxearen ondo-ondoan, zer gehio nahi dezu? Kontentu. Baina, ez negoen gustora. Ya hori denakin, ta etxe ondoan geratu? Ez, ez. Pentsatu nuen ba beste gauzen bat egin beharko nuela.

5.17. Gaztetako moda eta elizaren debekuak

- **Hizlaria(k):** Goñi Mendiguren, Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-045/018
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:42:19. **Bukatu:** 00:43:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Emakumeen artean beti izan dira errezaleak. Arropa kontuetan, modaren arabera ibiltzen ziren gazteak. Elizara galtzerdirik gabe edota manga motz samarrarekin ez zegoen sartzerik.

Transkripzioa

- Erretzea ta, zigarruakin ta... holakorik garai batean ez zen ikusten.
- Ez, ez. Nik ez det behin'e erre, orduan gutxiyo baiño beti izan dira errezaliak e? Bai, bai, bai ta nik donostin ere nola bastante ibiliya nagon, bai, ordun ere bazian e. Hemen baserritan ta gutxiyo. Bai. Hori uste dut ez dala oraingo moda.
- Ta erropa, minifalda ta hori?
- Ba minifalda modukua eramaten gendun, belaunetaraiño, ta gero hurruna etortzen zan luze-luzia. Orain galtzakin gertatzen dana orain ixtu-ixtuk eta gero... baiño minifaldak eta orain bezalakorik ez! Bueno, bueno, bueno, bueno. Orduan elizara galtzerdi gabe ezin zendun jun. Ta juten baziñan honerainoko mangakin, honerainoekin e, segun zein apaiz zan, bueltan bidaltzen zizun, ez zizun komuniyoa ematen.
- Bai?
- Bai.
- Ukalondua...
- Bai, bai, hola. Mangaduna behar zan. Ta elizan sartuko banitzake, eskotiak eta ez zan orain bezela, ez zen pretenditzen ere.

6. Ekonomia eta industria

6.1. Ezkontzean lana uztea zen normalena

- **Hizlaria(k):** Arruabarrena Oiarzabal, Sabina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-004/044
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:10:53. **Bukatu:** 01:12:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Hernaniko emakume guztiak fabrikan zebiltzan lanean, Astigarragan neskame ere bai. Ezkontzean, lana uzten zuten: etxean geratzen zen, neskame. Amonak esaten ziona: emakumea noiz jubilatzen den.

Transkripzioa

- Ordun emakumiak etxetik kanpoa lan in behar zunikan ere...

- Ez, ez, ez, ordun... Baiño Hernanin, Hernaniko emakume guztik, denak fabrikan ibiltzen zian. Hemenguak pues batzuk neskame ta bestia zean, baiño hemendikan ere juten giñan e? Bai, bai. Hemendikan ere juten giñan fabrika're.

- Ta ezkondu ta gero zergatik... zeatik gelditu ziñan?

- Ez, ez zan ordun, etxian gelditzen zan emakumia. Uain bezela lanea? Ez, ez, uan jun biharra dakate, baiño ordun senarran soldatakin pasa bihar zenun. Bai, bai, ordun esposatu ta emakumia etxian gelditzen zan.

- Gaizki ikusiya zeon edo ez zan ohitturik besteik gabe? Esan nahi det, asumittuta zeon "ezkondu ta oain etxea"?

- Etxea, bai, bai, bai.

- Etxekoandre.

- Bai, etxekoandre, o neskame o "lo que sea".

- Etxian?

- Etxian, hoixe.

- Ta neskame?

- Hoixe. Ta oaindikan ere bai.

- Ze hoi behin'e ez da rekonozitu izan ta.

- "Qué va, qué va".

- Baiño etxian lan asko ingo zenuten zuek.

- Amonak beti hoi esaten zian "Ai, ai, ai, zea, jubilaziyua... Emakumia jubilatzen da betiko begik ixten dittunian, orduntxe".

6.2. Fidel Castrok ekarritako aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Olano Zapiain, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-022/005
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:08:13. **Bukatu**: 00:09:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: Fidel Castro Kubako agintean sartu zenean, ordura arteko sistema ekonomikoa aldatu egin zuen. Orduan Ramon gobernuaren tailerretan hasi zen lanean.

Transkripzioa

- Ze in zun Fidel Castrok hoi dena hola izateko?

- Zeatik Kuba zeon ordun, amerikauak zekaten zea guztiyan, martxa guztiya, entenitzen? Bai komertziyua ta bai gauza guztiya. Eta Fidel Castrok moztu zun ziharo hango bizimodua, ta amerikauak ba hango enpresak eta danak utzi eta alde ein bihar izan duen. Eta nik ordun hasi nintzan, ba, gobiernuak zekazkin tailerretan lanian. Bueno, nei ez zaidan batere... Esan nahi nizuke, nere kontura ein beharrian, ba, beste sistema este enpleatu bat, entenitzen? Hala, gero ein nuan amistade bat hango neska batekin ta ordun han ezkondu ta han jarri giñan bizitzen normal.

6.3. Aita zesta puntako eskutakoak egitera Mexikora

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Agirregabiria, Felix

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-027/003
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:04:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena**: Aita "xexterua" zen eta lanera joan zen Mexikora, zesta puntako zestoak egitera. Aita hil zenean osaba gelditu zen han eta gero bere anaia ere hara joan zen.

Transkripzioa

- Zer dela ta atera ziñaten hemendik?
- Ez, akordatu nik ez dakit, behin'e ez det galdetu're gauza hoik. Baiño nik uste det gure aita xexterua nola baitzan, frontoiyak kontratatuta jungo zan. Nik hala pentsatzen det e? Ez zan jun behintzat hola [...], nola juten dia artzantza ta ezta; jun zan fijo, bueno, lanakin jun zan. Lehenbizi aitta jun zan eta gero ama ta ni, txikiya nintzala jun giñan hara.
- Ta xexterua zan zuen aitta ordun? Ze xexto mota itten zun?
- Xextua, zea, zesta puntakuak eta... Bai, bai, eta langilliak eta taillerra. Gero osaba jun zitzaigun, bere anaya, ta biyak aitzen zian, eta gero aitta hil ta zeatu zanian osaba geatu zan han. Eta anaya're bai, nere anaya're gero harea jun zan, xexterua, xexteruak giñan.
- Anaia zaharragua zenun zuk?
- Ez, zaharra ez, zaharra... gaztiagua. Zaharragua ez zan jun. Zaharra jun zan Costa Rica, hua behintzat berriz. Hua aipaiza zan, bueno, agustino zan, hua ez zan jun zeara. Xexterua ez zan hua, Mejikon izandu zan baiño...

6.4. Anaiarekin lanera Ergobira

- **Hizlaria(k)**: Arzallus Aristi, Andoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ATG-030/011
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:15:04. **Bukatu**: 00:16:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzarigintza
- **Laburpena**: Anaiak lantegi bat sortu zuen Ergobin, eta harekin hasi zen orduan lanean, Elorrioko lantegia utzita. Lantegiaren izena zergatik aukeratu zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta geo utzi gendun zeatikan beste lantoki bat sortu zun nere anayak, Ergobin sortu zun, sortu zun ze gero... Hau ezautuko dezu akaso, mueble, sukaldeko altzairak, Xey izena dutenak. Ba horko sortzailliak gu gea. Bai, nere anaya hasi zan, oain hilda dao.
- Ta anaiak eta...?
- Bai, bai, anayak hua hasi zan beste lau soziyokin. Horrek historiya bazun, Xey, Sei izena jarri ziyoten sei lagun juntatu zian hoi fabrika hoi antolatzeke, eta "bueno ba sei jarriko zioguk izena"; eta geo bat atzea bota zan ta bost geatu zian, bost. Baiña sei izena hortatik dator. Ta gure anaya zan sortzaille. Hori sortu zun Ergobin ba sagardotegi batian, hoi sortu zan

fabrika hoi, nola izaten dian gauzak, bai. Hoi milla beatzi ta hirurogeita bigarrenian o hirugarrenian o hola sortu zan.

- Ta handik aurrera zu han ibili ziñan lanian?

- Ba ni hirurogeita bosgarren urtian ni ekarriazi niñun, ni teknikua nintzan orduako eta [...] "bueno, tekniko bat'e bihar dit ba nik hemen", eta ordun sartu nintzan hor, ta ya jubilatatu arte hor lana in det. Ergobin denbora askuan, hor fabrika berriya in gendun Ergobin, oain'e hor do; eta geo hortikan jun giñan Oikiña. Oikiña ez dakit ezautuko dezun.

- Bai.

- Hori dana hantxe do oaindik fabrika. Eta jubilatatu arte hantxe, nere lantokiya hoi izandu da.

6.5. Fabrikako formula saltzen

- **Hizlaria(k)**: Sarasola Idarreta, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ATG-032/031
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:57:27. **Bukatu**: 00:58:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak
- **Laburpena**: Plastiko-fabrikan sortzen zuten hautsa Bartzelonara eta Bilbora saltzen zuten. Geroago, hauts horri forma eman eta plastikozko gaiak ateratzen ziren.

Transkripzioa

- Eta hola hautsa geratzen zan, hori zan saltzen zana, hori zan hautsa, hauts forman.

- Bai, guk hoi saltzen genun.

- Nora saltzen zenuten?

- Esan dizut ba gehiyena Bartzelona juten zala, gehiyena. Baiña bueno, Bilbaora're juten zan.

- Eta gero horrekin?

- Gero horrekin ba horri ze kola ta ze zea sartzen dizkaten. Horrek behar dittu kolak eta behar dittu hamen bere gauzak behar dittu gero forma ateratzeko. "Comansateko", botellak ere hortik ateratzen dia plastikozko botillak.

- Hoi guk itten genun formulatikan ateratzen dia. Ta [...] iteko plastiko hoi're bai, ta beste zea ta, esan dizut ba, espeziala eitten genduna kotxian tapizerirako, ta gaiñuntzian berriz dakittela hoi... Ta tuberik eta.

7. Baserria

7.1. Eskolara ez, baina baserrian gustura

- **Hizlaria(k)**: Goñi Urreaga, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-005/010
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:13:37. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**

Baserrria » Baserriko lanak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Eskolan gutxi ikasi zuen. Garai hartan, eskola ez zen derrigorrezkotzat hartzen. Etxean, itaurrean ibili behar izaten zuten; eta, horregatik, ezin izaten ziren eskolara joan. Beraiek, horrela, gustura.

Transkripzioa

- Ze ikasi zenun eskolan zuk?

- Nik? Gutxi. Guk ez genun asko ikasi, gaztiak giñan. Ta gaur, gaur... Eske garai hartan eskola're ez zan gaur bezela; ya gaur obligatua dao jende guztiya eskola ikastea ondo. Ta komeni da, baiño guk gogoik ez bagenun, piper egin ta... Gaur ez dao piperrik itteik. Ez? Ta garai hartan? Ta jun baiño ez jun nahiyo askotan. Ta etxian ordun basarri ttikiya gendun basarriya. Eta itzaurrean, bakizu zer dan itzaurrea?

- Esplikatu zazu.

- Ganadukin ta itten zan lana zelaiyan, goldia, ta harria... Ta itzaurrea da ganadu aurrean ibiltzeko zana. Gu mutil koskorak oaindik eta guk itzaurrea idikin; idikin ez, hemen behiyak zian, behiyan aurrian akuilluak. Itzaurrea horri deitzen zitzaion. Ta igual zerbait artua itteko o preparatu behar, ta "bueno, gaur o biyar itzaurrean ein behar dek ta ez zioke juteik eskolara". Ta gustoa geatzen giñan, eskola ez jutiagatik. Pentsa, ze gogu eramaten gendun.

- Eskolara ez jun nahiyo?

- Bai, ba, hoixe. Ta aber ze ikasi behar gendun.

7.2. Bizimodu tristea ez, gutxiarekin moldatu behar baizik

- **Hizlaria(k):** Lujanbio Tajdus, Enrike

- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa

- **Erref:** ATG-014/010

- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:48. **Bukatu:** 00:11:24

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**

Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- **Laburpena:** Baserri koskorra zuten eta han zer lan izaten zituzten azaltzen du. Ferian saltzen zuten jeneroa. Abarka pare bat izaten zuen Enrikek, ez baitzegoen gehiago erosteko dirurik. Lehen bizimodua ez zen tristea, baina diru gutxiarekin moldatu behar izaten zuten bizitzeko.

Transkripzioa

- Garai batian, zu mutil koskorra ziñanian eta, ze lan izaten zian baserriyan? Edo, bueno, zu baserriyan hazi zea...

- Bueno, gure basarriya zan txikiya, txiki basarri koskor bat, behi bat edo ezautu nun, bi txekor'e ezautu nittun, ta gero hegazti batzuk. Txerrik bai, txerri asko izaten genun, ta txerrikumiak hazitzen giñun, ta asto batian karruan hartu, ta peria juten giñan. Ta gure amona zanak badakit nola erosten zizkidan abarkak eta ankandora bat edo erosten zien, ta ni kontentu. Gaiñea ebiya ein berriya baldin bazegon, hoik koskor batzuk izaten zittuzten abarkak azpin, ta kanpoa jun ta hola beiratzen, ta... Oain,

oain, oain, igual dakazkie bost zapata pare etxian ze jantzi ez dakigula. Baiño hola hazitakuak ez gea gu.

- Abarka pare bat?

- Bai, bai, ta zapatak...! Ta izaten banun alpargata pare bat, hankutsik pelotan jokatzan. Zeatik ni pelotan asko ibiltzen nintzan, ta hausteko bildurrakin. Zeatik besteik ez zun diruik izaten, beste pareik ekartzeko gure amuna zanak: "Ibili hai oain hankutsik nahi badek!" esaten zun harek. "Hor konpon hai! Kontuk herorrek atera!". Ta egiya, egiya. Gure bizimodua ez da tristia izandu, baiño ez genun izaten. Oiyaluma joten giñan, Oiyaluma're, ta lagunak edo batzuk bazian ondo manejatzen zuenak, eta "Afalduko al deu, ez dakit zer", ta "Ez, etxea jun beharra zakat, bihar goiz jeiki ber dit eta". Diruik ez boltsillun, diruik ez boltsillun! Ta holaxe, holaxe. Gure bizimodua holaxe izandu da.

7.3. Gizonezkoak plazan saltzen

- **Hizlaria(k)**: Arana Agirre, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-017/032
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 01:07:45. **Bukatu**: 01:09:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Egunero Donostiara joaten ziren etxeko emakumeak plazara saltzera. Ergobitik gizonezko bat joaten omen zen baina salbuespena zen. Zerga ordaindu behar izaten zuten saltzaileek.

Transkripzioa

- Dena Donostira eramaten genun, berdura. Egunero zera autobus ta zerak hartu, xexteran sartu, ta martxa, hau're joten zan saltzera, berdura saltzera.

- Zu zeu're bai? Zu zeorre joten ziñan?

- Ez.

- Ama jungo zan hasieran.

- Ama, ama, nere ama, ta aitta're ez. Ta gero ama jun zanian hau, berdura saltzera. Geo zera joten zan, kotxiakin.

- Emakumian lana izaten al zan hoi?

- Bai. Gizasemiak bazian, zeran, Ergobin, mutilzahar bat, bueno bi mutilzahar zian. Hura joten omen zan, ez det bein'e ikusi, adittutakua. Karretillan hartu, lau aza ta lau letxu, ta Donostira. Ta bestia esango dizut, Loiolako [...] egoten zian, Loiolan. Ta kuartelian beti in behar zan pagatu, joten zienak, geatu, ta saten bazizun ta lau tipula ta lau letxu ta bi errial edo, lo que sea pagatu behar zenun. Zean, denbora batean zeran bezela, paguako zera hoiek bezela.

- Mikeletiak bezela.

- Mikeletiak bezela. Nik ezagutu nun kuartelekuak.

- Hori gerra ondoren izan zan?

- Bai, jo ni mutil kozkorretan, ni ari naiz esaten... ezkonduta're bai! Ez dakit ze urteak arte egondu zien kuarteleroak baiño!

7.4. Eguberriak baino lehen errenta ordaintzera

- **Hizlaria(k):** Aramendi Telletxea, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-019/003
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:05:48. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Inaxioren familia maizterra zenez, errenta ordaindu behar izaten zuten, beti eguberriak baino lehen. Diruz eta abere bidez ordaintzen zuten.

Transkripzioa

- Ta baserritarrak eta, pentsatzen det maizter izateagatik edo.
- Bai bai, urtiak ordaintzeko errenta ta gero eguberrian kapoi paria gaiñera.
- A bai e?
- Bai.
- Ordun errenta diruz eta gero...
- Bai, bai, gero kapoiak eguberrian.
- Egun seiñalatu bat izaten al zan errenta hori pagatzeko?
- Bai, ez dakit ba Santo Tomas eguna edo eguberri aurretik, egunen batzuk eguberri aurretik izaten zien.
- Ta harek zer itten omen zun hainbeste kapoiekin?
- Erregalatuko zun bat edo beste ta beste batzuk... familian nola asko baitziren denak jango zituzten noski. Ez zituzten harrika botako.
- Ta haiek berak non bizi zian, familiya?
- Palazio Murguia edo, nola daon elizan ondun palazio horretan bizi zian.

7.5. Plazan ere matematikak ikasten

- **Hizlaria(k):** Aldanondo Garmendia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-020/013
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Etxean amak garrantzi handia ematen zion heziketari. Berak plazan ikasi behar izan zuen kontuak egiteko adina. Gizon batek plazako jendeari erakusten zion kontuak egiten.

Transkripzioa

- Juanita, ordun etxian aittak eta amak eta ematen al ziyen inportantziyik eskolai?
- Nere amak bai, nere amak ez zun eskolik, ta erderaz ez zakin plaza hasi zanian, plazan ikasi zun pixkaka-pixkaka. Ta zeaik'e ez, numeruak eitten ta're ez, ta kobratzeko ta zeatzeko ta hoiek ere ez. Ta han ikasi zun.
- Plazan?
- Plazan. Plazan bazan bat erakusten zuna: "hau honbeste kostatzen da,

hainbeste kostatzen da, ta denen artian sumatu ta hainbeste". Oain konputadoriak daude zeatu ta [...] markatzeko; ordun ez zan halakoik.

- Ta izaten zen ordun pertsonan bat erakusten ibiltzen zana kontuk itten?
- Bai, bai.
- Baserritar asko izango zan behar zuna, ezta, laguntza...
- Behar zuna bai, baiño gu juten giñanak gutxi giñan.

7.6. Eztia ateratzeko garai egokiak

- **Hizlaria(k):** Berasategi Mintegi, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-025/025
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Eztia ilbeheran atera ohi zuten, erleari kalte gutxiago egiteko. Gaur egun, ordea, beste era batera kalkulatzen da hori. Eztia ateratzeko garaian, komeni da erle gutxi egotea inguruan.

Transkripzioa

- Eztiya ateratzeko, ilbehera edo beiratzen al zaiyo illargiyai? Lehen beiratzen al zitzaiyon?

- Bai, ilbeheran. Ilbeheran, daiñu gutxiyo erliai itten emen zaiyo; eitten emen zaiyon esaten zan, ilbehera, beti eztiya ateratzeko garai hartan eskuz hola "a lo bruto" ateratzen zanian, ilbehera. Ilbehera beti. Bai. Eta oain oain ez degu beidatzen. Oain, oain dena ikusi zenbat ezti utzi diyozun ikusten dezu dena, zenbat behar dun urtian, ta zenbat uzten diyozun; dena ta oain, oain, beste gauza. Oain argi-argitan ikusten dezu, ta zuk kalkulatu behar dezu nola... Hola, hola da.

- Ta ilbeheran bai, eta garai batian beiratzen al zitzayon eguerdi eguerdin jun edo goizian goiz, o illunabarrian o...? Noiz jun ba al zeukan aldeik?

- Bueno, horrek izaten du, zu juten bazea egualdi ona daola, egualdi ona, eta eztiya kendu behar diyogu, ta bakizu, hemendik ez daonean hustu behar zendun. Eta komeni zaizu erleik gutxiña barrun don garaiyian jutia. Eta egualdi ona baldin bada, erlia atera itten da, batzuk lanea, bestiak pasiatzea. Konparaziyo bateako, umiak jaiyota, jaiyota umiak, eta oaindik laneako gauza ez dianak, pasiatzea ateratzen dira pixkat, eta beti hemen lekua gehiyo, egualdi onakin. Zuk lana itteko, bai.

7.7. Sagardoa Donostiara

- **Hizlaria(k):** Arrieta Matxain, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ATG-046/009
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:14:17. **Bukatu:** 00:15:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

- **Laburpena:** Sagardoa egina zegoenean eramaten zuten Donostiara. Beste Astigarragako baserriren batek ere ba omen zuen lokala.

Transkripzioa

- Hemendik hara eramateko esan dezu karreto barrikan ez?
- Bai, zeran kaleran. Kaleran bidea iriki, ta zera hori, hemen ikusiko zenun nola ematen duen festeta sagardoa zera estu luzi hori?
- Bai, bai.
- Ba holakua zan, estu luzia, baino hori baiño haundiagua.
- Ta hori zure gurasuena zen ala?
- Bai, bai hemen egoten zan hura hor jasota edo. Hor egoten zan gero zerak sagardua hara eramateko hasi arte.
- Hori horretarako bakarrik erabiltzen zen?
- Bai, bai, bai.
- Eta zer eramaten zen sagardua ala mustioa ta han fermentatu?
- Ez, ez, ez, ez hemen ya fermentatua ta dana iña. Hemen ya itten zanian zeran, hemen ya hasten zianian edaten probatzeko gero zera nahi zuenak, ordun hara eramaten zan. Ta han ya edaten hasteko berehala. Han ya berehala edaten hasteko.
- Ordun arrantzale asko juten zan hara?
- Bai, ordun bai zera inguru hartan sagardotegia ta hori ordun ez omen zan hainbeste han sagardoa, ez dakit [...] bazuten edo... norabaitti adittua edo ez dakit.
- Baziren gehio zu bezela hola lokala zutenak eta...
- Ez naiz ba goatzen, zerbait'e adittu beten bat edo ba ote zan esaten dizut ba [...] edo ba ote zan baiña ni ez naiz goatzen.

8. Lanbideak

8.1. Koipeztatzaile-lanetan, soldadutza bukatu ostean ere

- **Hizlaria(k):** Goñi Urreaga, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** ATG-005/046
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 01:15:44. **Bukatu:** 01:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Soldadutzan egon zen bitartean, koipeztatzaile-lanetan aritu zen. Soldadutza bukatu ostean ere, tailerreko nagusiak deitu egiten zion, laguntzera joateko.

Transkripzioa

- Ba, soldaduska ta... Esan dezu lanean ibili ziñala engrasatzen.
- Soldadu bitarte, soldasuka bitarte.
- Engrasadore soldadu bittartian?
- Bai, ta geo, geo soldaduska inda're, nagusiyak, klaro, nik etxian nakan nahiko lana ordun: sagardua're gehiyoa, beti gehiyo, gehiyo, gehiyo. Ta ni udara partian, lana're gutxiyo izaten zan, ta udara partian, ba, deittu iten zian, udaran nola kanpotarra asko etortzen zan turismoa, nahi izaten zun, ba, jutia. Ta ni juten nintzan, bi hillabetian, o udara partian. Ta xoxak ateratzen nittun, ta gustora. Nik etxian ari baiño nahiyo, baratzan ari baiño.

9. Iritziak

9.1. "Lanik ez egiteko, lan asko egin behar da"

- **Hizlaria(k)**: Goñi Urreaga, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: ATG-005/049
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:20:08. **Bukatu**: 01:21:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Ez zaio lanik falta izan Joxeri. Adarjotzeak aipatzen ditu: "lanik ez egiteko, lan asko egin behar da".

Transkripzioa

- Ez zaizu lanik faltatu orduan?
- Ez, horregatik esaten dizut ba, nik esan, hoi, hoi askok esaten dute: "Jo, hi, hi bizittu haiz...". Bai, bizittu haiz, bai, gaiñetik, gaiñetik hola aitzen dira; baiño nik esan itten diyet, nik'e kontestatzen diyet. "Hau?" neregatikan, "Hau, hau biziko ez dek ba! Ehun urte harrapatuko dizkik honek, sekula ez dik kolpeik in ta!" esaten dute. "Bai, egiye dek hoi", esaten diyet nik, "Egiye dek, baiño sekula golpeik in be bizitzeko, lan asko in behar dik e?", "Bai? Ze in dek ba?", "Ze in dedan? Goizeko hiruretan ta esnatzen nintzan garaiyan, Pentsatzen jartzen niñuken", "A bai?", "Bai, aber hurrengo egunian lanik ein be nola pasako deten eguna" esaten diyet. "A bai? Mekauen dio! Sekula golpeik ez dik in honek, eta ehun urte harrapatuko dizkik honek!". Hola aitzen dira, adarra jotzen.
- Pixuz beharbada golpe haundiyik ez, baiño ibilli [...] behintzat kamioiak in hauntza ta honuntza.
- Kamioiyakin'e, kamioiyakin, bueno, hoi Zikoñan ez zan lanik eitten kamioiak in, zeatik beak kargatzen zuen dana, femitxakin ta. Orduako bazian. ta hemen'e, hemen'e ez, nik ez nun ezer eiten, kamioiya ibili hara ta honea.
- Baiño han egon behar zan.
- Han egon behar zan, bai, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gose urteak; errotak itxita (ATG-001/004)

Gose urteak, gerra ondorenekoak. Olinoa, ogia eta azukrea falta. Errotak itxita zeuden. Goizuetara arto-irin bila, astoarekin. Guardia Zibilaren kontrolak. Kontrabandoa. Nafarroan irekita eta Gipuzkoan itxita, errotak. Esaera polita. Zer jaten zuten. Boniatoa.

2. Urik ez; argia nola jarri zuten (ATG-001/005)

Santio-enea baserria nolakoa zen. 99 metro koadro zen. Behean zegoen sukaldea, ukuilua bezalaxe. Urik ez zuten. Argia bost baserritan, bakoitzak bost bonbilla. 6.000 erreal, 1.500 pezeta. Kinkea eta kandela. Karburoa.

3. Ura ez eta eta hiru balderekin bila; auzolana (ATG-001/006)

Urik eza: ur bila baldeekin. Hiru baldekada ur batera, bata lepoan. Dutxarik ez. Udan beheko askan garbitzen ziren. Astoan arropa eramanda, amak eskuz garbitzen zituen. Bizilagunak, Mariak, esaten ziona. Auzolana galtzen doa.

4. Lantegietako diruak aldarazi zituen baserriak (ATG-001/007)

Ingurua nola aldatu den. Bost baserri txiki ziren. Gazteak lantegietara joateak ekarri zuen aldaketa. Ganadua. Etxe denak zaharrak ziren, eta lantegietako diruarekin konpondu zituzten. Lau gela zituzten. Obra 1961ean egin zuten.

5. Soldadu Loiolan; igeltsero lanetan (ATG-001/008)

Loiolara joan zen soldadu. Afrika tokatu, baina lege bati esker libratu zen. Infanterian. Lizentziatu ostean, igeltsero. Hernani, Astigarraga, Irun... lana zegoen tokian. 24 ordu lanean, gaizki.

6. Astigarragako sagardotegiak; dolarea (ATG-001/009)

Inguruko sagardotegi gehienetan ibili da igeltsero lanetan. Etxean beti ezagutu du dolarea. Soldadutzatik bueltan, gasolinazko motorra jarri zioten. Elektrikoa gero. Botilaratzeko sistemak nola aldatu diren. PISOIAK. Patata txikitzeke erabiltzen zituzten.

7. Sagardoa egiten; muztioa, pitarra eta zizarra (ATG-001/010)

Sagardoa nola egiten zen azaltzen du. Lehenengo sagarra jo. Ardatzera bota eta estutu. Patsa. Sobratzen zena lastoarekin nahastu eta behientzat. Muztioa. Pitarra egiten zuten, ura botata. Zizarra zer den. Bukoia. Karreta-barrika.

8. Sagardoa etxe denetan; ilargiaren garrantzia (ATG-001/011)

Etxe guztietan egiten zuten sagardoa lehen. Astigarragan eta Goierrin ere bai. Dolareak nolakoak ziren. Haritzekoak, hormigoizkoak eta erdoil-ezinak. Zuhaitza noiz bota garrantzitsua da. Ilargiaren arabera. Sagardoa botilaratzeko, ilbeheran.

9. Lehengo sagar arbolak (ATG-001/012)

Sagardoaren prozesua. Irakitea. Sagarrondoak zaintzea; abaraskak moztu. Simaurra abonuaeren orde. Lehengo arbolak handiagoak. 13 zaku sagar arbola batetik: Goikoetxe sagarra.

10. Sagarra biltzen; zakuka eta kiloka (ATG-001/013)

Sagarra iraila bukaeran jasotzen da. Eguberrien aurretik hobe. "Kizkaia". Ondokoari adarra jotzen. Gizon-emakume, denak batera. Ez zuten kantatzen. Idiekin kargatu. Zakuka baino nahiago du sagarra pisatzea. Neurria: "kuela".

11. Kanpotik sagarra ekartzen (ATG-001/015)

Zakuak 50 kilokoak ziren. Asko betetzen zen zakua. Kanpoko sagarra kiloka etortzen zen, eta garbiagoa da. Kanpotik sagarra ekartzen Zapirain hasi zen. Sagar urtea ez bada, falta.

12. Natura, gorputza bezalaxe (ATG-001/017)

Sagarrondoa neguan aldatu behar da, otsailean. Izerdia. Gorputzarekin parekatzen du natura. Arbolak goroldio zuria izaten du, zahartzen hastean. Gaitz berria: arbola gazteak ihartzea.

13. Sagar motak lehen eta orain (ATG-001/019)

Sagar mota asko galtzen ari dira. Potrokilo sagarra, urtebiak, baztan sagarra, ugarte, patzoloa, txalaka... Diputazioa sagar mota berriak ateratzen ari da. Geza asko erabiltzen zen lehen, orain gazia gehiago. Sagar ustelak.

14. Basoka saltzen zen sagardoa (ATG-001/020)

Lehengo sagardotegiak. Basoka saltzen zen gehiena. Txotxa. Ergobian zazpi sagardotegi zeuden eta Martuteneraino. Aste Santuko prozesiotik atera, eta sagardotegira.

15. Emazteak arropa garbia sagardotegira gizonari (ATG-001/021)

Astebete sagardotegitik atera gabe; emaztea arropa garbiarekin bertaraino. Anekdotak: bi gizonen arteko apustua, zeinek gehiago aguantatuko. Bitartean, emaztea behien eta umeen kargu. Gizon eta andreen arteko desberdintasunak. Normala iruditzen zaio biek egitea etxeko lanak, orain. Gurasoak baserrian biak.

16. Ergobiara eskolara; gutxi joaten zen (ATG-001/022)

Ergobiara joaten zen eskolara, baina gutxi. Beti lana baserrian. Gaueko eskolan, Mariarekin. Maistra bizkaitarrak Etxeberria "b"rekin idazteko esaten zion, hurrengoak "Ch" eta "v"rekin. Erdaraz. 7 urtetik 11ra eskolan, Jaunartzea egiteko.

17. Umetako jostaketak; dena zen bekatu (ATG-001/023)

Jostaketak. Gordeketa. "Amarrillun" jolasa nola zen. Astoketa. Neska eta mutil elkarrekin. Sokasalto. Gaiztakeria gutxi egiten zuten. Dena zen bekatu lehen, orain ez. Goizegi jaio zela dio. Ezin musurik eman ezkondu arte.

18. Kilker eta kabi bila; kukuaren arrautzak (ATG-001/024)

Gaztetako entretenimenduak. Jostaketak aldatu egiten ziren. Kilkerrak harrapatzen, belar luzearekin. Kilker gutxi dago orain. Kilkerra nolakoa den. Txori kabi bila; zozokumeak frijitu ta jan. Kukuaren arrautzak. Txepetxa gutxi ikusten da orain. Txantxangorria hiltzea bekatua zen.

19. Zepoa jartzen zuten, txoriak harrapatzeko (ATG-001/025)

Zozoak, birigarroak. Zepoan txantxangorria erortzen zen haien orde. Goseak zeuden eta gustura jaten zituzten. Mikak artoa jaten du. Izkinazoaren izaera, zaila dela botatzen. Esaera zaharra.

20. Zapelaitzak txitoak eraman; azeria, otsoa, basurdea (ATG-001/026)

Zapelaitzak, beleak. Txitoak eramaten zituen zapelaitzak siestan ziren bitartean. Nolakoa den. Arranoak gutxi. Hiltegitako tripak botatzen zizkieten lehen, orain ez. Azeriaren gaiztakeriak. Oraingo artzainen jokaera. Otsoa. Basurdea.

21. Basahuntzak, sagarrei kalte (ATG-001/027)

Basahuntzak sagarrei kalte egiten diete, baina debekatuta dago botatzea. Gaizki iruditzen zaio. Lehen gutxiago zeuden. Ahuntzak arbola zuritu egiten du.

22. "Lasto-bala"rekin argi eginez mezetara (ATG-001/031)

Herri bideak aipatzen ditu. Bide asko eta txarrak baino hobea da bakarra baina ona. Astigarragara. Gariarekin argi eginez joaten ziren Astigarragara mezetara, 05:30erako, igandero. "Lasto-bala". Bideetako lohia. Poliposo baserria. Bezperak. Santioko ermita.

23. Oinez hara eta hona; eskolari garrantzirik ez (ATG-001/032)

Bezperak. Berrogei bat minutuko bidea zuten Astigarragara. Hernani urrutiago geratzen zitzairen. Eskolara Ergobiara. Eskolari ez zitzaion garrantzirik ematen.

24. Igeltsero lanen ondoren lantegira (ATG-001/033)

Azkeneko urteak fabrian egin zituen, erretiroa hartu arte. Obran hogeit bat urte egin zituen, gustura. Behiak gobernatu. Hamaika orduko lan egunak. Fabrikako lanak.

25. Paisaia nola aldatu den (ATG-001/034)

Paisaia nola aldatu den. Lantegiak noiz egin zituzten. Esaera zaharra. Astigarragan 1.000 lagun bizi ziren.

26. Dantzan gutxi, neskatan ere bai (ATG-001/037)

Festatan gutxi ibili da. Oialumara jaisten ziren, eta Hernanira Tilosetara. Dantzarik ez, beti begira. Jai arratsaldean lanean ibilita joaten ziren, nekatuta. Neska-laguntza. Errespetua galdu dela dio.

27. Martzinea baserria (ATG-002/002)

Zazpi senide ziren, lau neska eta hiru mutil. Baserri txikia zen haiena, eta oso zaila zen hortaz bizitzea. Horregatik aitzak fabrika egiten zuen lan.

28. Taloa, esnea eta astoa (ATG-002/003)

Inguruan garia, baba, eta artoa egiten ziren gehienbat. Bi-hiru behi izaten zituzten baserrian. Astoz egiten zituzten joan-etorriak.

29. Arropak puskatzeko beldurrez (ATG-002/004)

Amak etxean egiten zuen lan, besteak beste, arropak konpontzen. Askok zaindu behar izaten zuten arropa, ez puskazeko.

30. Etxean egindako pilotak (ATG-002/006)

Denetariko jokoak zituzten, eta bakoitzerako hamaika izen, kaniketan, triangelun... Pilotan jostatzeko pilota hariarekin egiten zuten, etxean bertan, ez baitzen larruzko pilotarik orduan. Dena partekatzen zen orduan, txirrinda, eskopeta...Bi-hiru motor gogoratzen ditu Joxek, denak hari begira egoten baitziren.

31. Eskolara joan nahi ez (ATG-002/007)

Joxe, nahi ez bazuen ere, Astigarragara jaisten zen eskolara joateko. Moja eskolara hain zuzen. Publiketan ere ibili zen denbora batez, gaur egun udaletxea den horretan. Hala ere, baserriko lana zela eta, ez zen eskolara egunero joaten. Etxean ikasketak egitera bultzatu zuten Joxe, eta gau-eskolan eman zuen izena.

32. Eskolako zigorrak (ATG-002/008)

Mojatan erderaz ikasi zuen, eta publiketan ere bai. Besoak zabaldu eta geldi egotea izaten zen zigorretako bat, baita behatz puntak erregelaz jotzea ere. Aitaren begirada nahikoa zen isiltzeko.

33. Dantzak, parrandak (ATG-002/009)

Oialume, Txikierdi, Irubidieta... izaten ziren gazteetako irtenaldi nagusiak. Gaizki ikusirik zegoen neska edo mutil batekin ilundu arte egotea.

34. Festetan gaueko hamabietan etxera (ATG-002/011)

Musikariak egoten ziren Oialumen, eta Santiago eta San Roke egunean festa zenez, banda militarrek jotzen zuen.

35. Astigarragan kanpoko neska asko (ATG-002/012)

Neskatan ibiltzea ez zen gaur egun bezala egiten. Joxek oroitzen du neskak izu zirela gizonez.

36. Bizikleta alokatu parrandara joateko (ATG-002/013)

Oialume zen irtenaldirik ezagunena gazteen artean, nahiz eta Txikierdin ere jende mordoa ibiltzen zen.

37. Apustu egiteko dirurik ez (ATG-002/014)

Apustuan ibiltzeko dirurik ez zuten izaten garai haietan, baina oroitzen du Joxek batzuk ibiltzen zirela lur sailak eta ondasunak apustuan galdua.

38. Astoarekin erromeriara (ATG-002/015)

Egun berezietan, San Roke eta Santiago egunean giro ederra egoten zen, baserriko oilaskoa jan, eta arroz-esnearekin amaitzen zuten. Erromeria ere izaten zen egun berezi hauetan, astoa janariz bete eta hara joaten ziren egun pasa.

39. Medikua eta emagina (ATG-002/017)

Erditzen laguntzeko, medikua etxez etxe ibiltzen zen, baita emagina ere. Orduan ez zen autorik, eta gurdian ibiltzen ziren gehienbat.

40. Lanbide ibiltariak (ATG-002/018)

Senideren bat zentzen zenean, medikuari abisua ematera joaten ziren oinez. Apezak ere alde batetik bestera ibiltzen ziren, gaixoei jauna ekartzera.

41. Larunbatetako kanpaiak (ATG-002/019)

Larunbat arratsero kanpaiak jotzen zituzten igandeko jaiaren berri emateko. Norbait hiltzen zenean, bederatzi kanpaikada jotzen ziren. Sua zenean ere kanpaikadak jotzen ziren, baina ezberdinak, arriskuaren berri emateko.

42. Etxean ura izatea (ATG-002/020)

Berandu ezagutu zuen Joxek ura etxean izatea, ezkondu ondoren hain zuzen. Ura izan arte, auzoko iturritik biltzen zuten ura. Udan, ordea, bero handia zenean, urik gabe gelditzen zen iturria. Behiak ere bertara eramaten zituzten ura edan zezaten.

43. Haizearekin argirik ez (ATG-002/021)

Argia betidanik ezagutu du Joxek etxean, baina haize pixka bat zegoenean, zutabeek elkar jo eta argirik gabe gelditzen ziren.

44. Ura zutela ospatzeko, gaupasa (ATG-002/023)

Etxean ura jarri zutenean, auzokoak bildu eta auzoan bertan zegoen tabernan afari ederra egin zuten denek, atzetik gaupasa.

45. Errepidea auzolanean (ATG-002/024)

Garai batean auzolanean egiten zen zena. Autoak nagusitzen hasi ziren garaian, jendea kexuka hasi eta errepidea egin zuten denek. Ermita ere auzolanean eraiki zen.

46. Etxetik kanpo lanean (ATG-002/026)

Hamaika tokitan egin zuen lan Joxek. Lehenengo, hamabost bat urterekin, eraikuntza--lanetan hasi zen. Ondoren, paper-fabrikan bost urtez egon zen. Handik Donostiako hiltegira mugitu zen, bertako ofizioa ikasi, eta Hernaniko hiltegian hamabi urte egin zituen. Jarraian, Martutenen beste hamasei urte egin zituen abere-hiltzaile gisa.

47. Egunean 300-400 txerri hil (ATG-002/028)

Lan zikina bazen ere, Joxek gustura egiten zuen lana zen hau. Kanpotik jende asko etortzen zen abere-hilketarako, arkumeak, txerriak, idiak... Egunean hirurehun bat txerri hiltzen zituzten guztira. Lehenengo ganadua hiltzen zuten, eta gero txerriak.

48. Abere-hilketa: bakoitzak bere lana (ATG-002/030)

Berrogei bat lagunek osatzen zuen lantaldea, eta bakoitzak bere egitekoa zuen: larrutu, odolustu, hil...

49. Abere-hilketa asko aldatu da (ATG-002/031)

Lurrean egiten zen abere-hilketa Joxe hasi zenean, orain, ordea, airean. Hiltzeko modua ere aldatu egin da. Kontrola ere handitzen joan da urteen poderioz.

50. Dena oinez (ATG-003/002)

Bizikleta izatea ez zen ohikoa Damiana gaztea zenean.

51. Lehengusua amaren ordeaz (ATG-003/003)

Lau senidetan gazteena zen Damiana. Bi osabekin bizi zen baserrian. Ama hil zitzairenean lehengusina bat etorri zen etxeaz arduratzera.

52. Bustieta, baserri txikia (ATG-003/004)

Bustieta ez zen baserri handi bat. Aita arduratzen zen abereez. Lanera joan zen Damiana, ahizparen inbidiatan.

53. Bost logelako baserria (ATG-003/005)

Bigarren solairuan zuten etxebizitza Bustieta baserrian. Su baxua zuten, eta bost logela zituen. Baserria berritu egin zuten eta dena bota eta ondoren berriro dena eraiki zuten, ura eta komuna jarrita.

54. Arropa eskuz garbitzea, bakoitzak bere moduan (ATG-003/008)

Arropa eskuz garbitzen zuten, jaboia zati batekin, eta eskuz marruskatuz. Kanpotarrekin harrituta gelditu omen ziren, eurek beste modu batean garbitzen baitzuten arropa. Lau harri egoten ziren arropa garbitzeko iturrietan, bi kanpoan eta beste bi uretan.

55. Kanpora lanera (ATG-003/009)

Damianak hamazazpi bat urterekin alde egin zuen kanpora lanera. Ezkondu ostean, ordea, baserrira itzuli zen. "Papelera del Norte" delakoan ibili zen lanean. Erdera asko entzuten zuen lantegian.

56. Eskola publikora (ATG-003/010)

Eskolan ezin izan zuen gaztelaniaz ikasi, oso denbora gutxian joan baitzen Damiana eskolara. Astigarragako eskola publikoan aritu zen bera, neskak eta mutilak bananduta.

57. Umetako jolasak (ATG-003/012)

Denetatik egiten zuten eskolan jolasean. Etxean, ordea, mutil tartean egoten ziren.

58. Ezkondu arte lanean (ATG-003/013)

Lege bat zegoen, ezkondu eta lana utziarazten zuena. Horren truke, ordainsari bat ematen zen.

59. Ezkontza eguna (ATG-003/014)

Eguerdiko hamabietan ezkondu ziren, beraz, meza entzun eta argazkiak ateratzera joan ziren Donostiara. Familia soilik joan zen ezkontzara. Ezkonbidaia Bilbon egin zuten.

60. Erregeek ahizpari ikatza ekarri (ATG-003/018)

Erregeak ospatzen zituzten. Ahizpari behin ikatza jarri ziotela oroitzen du.

61. Apaizak anaia gustuko ez (ATG-003/019)

Elizak indar handia zuen Damiana gaztea zen garaian. Mariaren alabak eta jaunartzea oroitzen ditu. Apaizak ez zion Damianaren anaiari jaunartzerik egin nahi.

62. Ezin dotrina buruan sartu (ATG-003/021)

Dotrina ikasten zuten jaunartzea egiteko. Bi jaunartze egiten ziren, bata zazpi urterekin, eta bestea hamabirekin. Dotrina euskaraz izaten zen.

63. Gerra hasi zenean, Markinara (ATG-004/003)

Gerra hasi zenean, neska koskorra zen. Dena prest zuten joateko, Santiomenditik tiroka hasi zirenean. Ahizpa korrika, eta bera atzetik. Markinara joan ziren, trenean, zaku artean. Lau senide. Anaia zaharrena kartzelan egon zen eta bigarrena kontzentrazio-esparruan; Laredon harrapatu zuten. Espetxetik bidali zion eskulana.

64. Markinan, 11 hilabetez (ATG-004/004)

Lau senideek alde egin zuten; gurasoek ez zuten astirik izan, eta ez zuten denbora askoan jakin seme-alabak non ziren. Markinara joan ziren, koinata izango zena zegoen tokira. Anaia kartzelara. Markinan, 11 hilabete. Koltxoiak lurrean jarrita.

65. Markinako oroitzapenak; jolasak eta ezkutalekuak (ATG-004/005)

Markinako oroitzapen onak ditu. Jolasean ibiltzen zen kalean, lagunekin, bihurrikeriak egiten. Mendira joaten ziren. Hegazkinak zetozenean, kanpaiak joka hasten ziren: ezkutalekura. Lurrean etzanda.

66. Oilo-zorriak, beldurra baino okerragoak (ATG-004/006)

Markinan bizilagunak (koinataren koinatuak) esaten zuena: nazionalak segituan sartuko zirela. Ganbaran egunak pasatu zituen hark, zain; oilo-zorriekin ezin aguantatuta, irten egin zen azkenean. Eta handik 11 hilabetera sartu ziren.

67. Markinatik etxera (ATG-004/007)

Markinatik Bilbora joan ziren izeba-eta; handik Belgikara. Ahizpa eta biak, berriz, etxera bueltatu ziren. Gurasoak beste etxe batera joan ziren nazionalak Astigarragan sartu zirenean.

68. Markinan goserik ez (ATG-004/010)

Markinan goserik ez zuten pasatu. Baserrietatik ekartzen zuten janaria. Zezina. Gosaltzeko, morokila. Mendian ibilita, beltzaran bueltatu zen etxera. Ama kezkatuta egon zen, entzun zuelako arratoiak jaten zebiltzala.

69. Errazionamendu garaia (ATG-004/011)

Gerra ondorena okerrago izan zen: errazionamenduan 100 gramo azukre, ogi torta gogorak... Ogi zuririk ez. Boniatoa patataren ordeztu. Olioaren partez esnegaina babarrunei, eta txerriaren gizena.

70. Plazan bizi arren, ukuilua eta baratzea zuten (ATG-004/014)

Etxea nolakoa zen. Sotoan ukuilua zuten. Txerria, behia eta astoa. Artoa eta babarruna, baratzean. Goserik ez zuten pasatu.

71. Euzko Etxea, etxean bertan (ATG-004/017)

Goiko solairua Euzko Etxea zen. Ondokoa, berriz, errepublikazaleen zentroa. Dantzak, antzerkia. Politika.

72. Leihoan bandera espainola jarri beharra (ATG-004/018)

Gerra garaian, nazionalek herri bat hartzen zuten bakoitzean, kanpaiak. Eta ama negarrez, ez zekitelako anaiak non zebiltzan. Bandera espainola jarri beharra leihoan. Errezatzen egoten ziren. Lehengusu bat Hernanin fusilatu zuten eta beste bat bonbek harrapatuta hil zen.

73. Anaiak izan zituen arazoak, gerra ondoan (ATG-004/019)

Anaia zaharrenak ezin zuen etxetik atera; gordeta egon zen, Urnietan. Gainera, isuna jarri zioten gero. Ama eta biak bisitan joaten ziren. Guardia zibilak ate joka joan, eta udaletxera eramaten zuten anaia, gaua pasatzera.

74. Euzko Etxea eta herritarren arteko liskarrak (ATG-004/020)

Euzko Etxean antzerkia eta dantzak izaten ziren. Zentro errepublikanoa zegoen ondoan. Liskarrak izaten ziren, ezinikusiak. Aita zenak esaten zuena: baziren bertako karlista batzuk oso txarrak zirenak.

75. Umetako jolasak: kanikak, unetakoak... (ATG-004/022)

Umetako jolasak: kaniketan, azkazalak hautsi arte, eta gordeketan. Unetakoak (tabak). Sakristauaren andreak kremazko pastelak zozketatzen zituen. Orduko pastelak. Neska-mutilak elkarrekin jolasean.

76. Eskolan dotrina erdaraz, elizan euskaraz (ATG-004/023)

Jaunartzea berandu egin zuen, 11 urterekin, Markinatik bueltan. Eskolan dotrina erdaraz eta elizan euskaraz. Gehien zekienari manta jartzen zioten,

Jaunartze egunean. Bikarioak neskamea bidaltzen zuen bere bila: opariak egiten zizkioten (jatekoa), pena emanda edo.

77. Arropak, besteek emandakoak (ATG-004/025)

Orain txorakeria asko dagoela dio. Bere jantziak beste batzuek emandakoak ziren. Ama Donostiara joaten zenean tratuarekin, batzuetan arropa ematen zioten, eta etxera poz-pozik. Perkalezko soinekoak. Berokiak, paper fabrikako mantekin eginak; tindatu eta josi.

78. Alpargatak eskuan hartuta, hanka-hutsik (ATG-004/027)

Oinetan, alpargatak. Euria egiten bazuen, eskuetan hartuta, hanka-hutsik. Oialumara joaten ziren oinez, eta handik Hernanira. 20tik gora urterekin. Orain denetik dute, baina ez dira konformatzen!

79. Lehengo oihalak eta antzinako janzkera (ATG-004/028)

Hernaniko ferian erosten zuten tela; ahizpak egiten zituen soinekoak. Loiola kalean zebilen lanean, Donostian. Perkalezko bata. Zaharren janzkera: gizonak brusarekin eta galtza urdinekin; petatxoak. Ama beti beltzez jantzita, mantalarekin; zapirik ez buruan.

80. Gabonetan, barraskiloak eta aza-olioak (ATG-004/029)

Gabonetan barraskiloak jateko ohitura zuten. Aza-olioak eta konpota. Bere Jaunartzean garbantzuk jarri zituen amak. Arratsaldean joan egin behar izaten zen elizara. Amandreak familia guztia Venezuelan zuen. Erretratuak hark ordaindu zituen: Donostiara joan ziren.

81. Kongregazioak eta maiatzeko loreak (ATG-004/030)

Mariaren alabak, zinta urdina eta domina. 06:30ean mezara. Bederatziurrenak. Bezperak, arratsaldeetan. Izebak propina ematen zion joaten bazen. Maiatzeko loreak eta kantak, zuriz jantzita hostoak botatzen. Kantatu egiten du zatitxo bat. Luistarrak. Gaueko adorazioa.

82. Gabonetako mezak eta kantu eskea (ATG-004/032)

Gabonetan gauerdiko meza izaten zen, Misa de Gallo. Batzuek erdi mozkorrak joaten ziren. Abenduaren 24an. Kantu eskeak Gabonetan eta San Nikolasetan. Bildutakoa partitu: intxaurrak, gaztainak, dirua... "San Nikolas Txikia" abestia kantatzen du.

83. Erregeen oparia: laranja eta goxokiak (ATG-004/036)

Urte zahar gauean ez ziren ateratzen. Urte berriari etorrera, karta jokoan; aspertzean, ohera. Erregeak joaten ziren etxera; oparia: laranja eta goxokiak. Panpinarik sekula ez du ezagutu. Lehengo jostailuak. Kartoizko panpinak izaten ziren.

84. Sacamantecas eta ezkilak (ATG-004/038)

Izebak kontatzen zizkion ipuinak. Aita ere oso alaia zen; amak asko sufritu zuen gerran, eta tristeago egoten zen. Sacamantecas eta sorginak aipatzen zituzten, goiz etxeratzeko. "Amezkilak". Kanpai motak.

85. Gerra ondoan, eskolan komeriak (ATG-004/039)

Udaletxeko eskolako kontuak. Neska-mutilak aparte. Maistrak begitan hartu zuen, gerran kanpoan ibilia zelako. Jostorratza puntaz gora eman ziolako errieta egin zion, esanez "gorriek" erakutsi ziotela hori egiten. Berak ez zuen eskolara bueltatu nahi, baina etxean ezin zuten beste ikastetxerik ordaindu.

86. Besoa altxatuta, denen erakusgarri (ATG-004/040)

Eskolan erreztatu eta kantatu egiten zuten. Atze-atzean egoten zen bera, mahairik gabe banku batean eserita, eta aurreraino joanarazten zuen irakasleak, besoa altxatuta abestera. Jostorratzaren pasadizoa aipatzen du.

87. Fabrikan lanean, Hernanin eta Astigarragan (ATG-004/043)

Prodelin fabrikan hasi zen lanean, aurrena Hernanin. Denak oinez joaten ziren, manifestazioan bezala. Tranbian ez, ordaindu egin behar zelako. Gero Astigarragan bertan hasi zen, altzari lantegi batean. Ezkondu arte.

88. Garbigailurik gabe, emakumearen lanak (ATG-004/045)

Etxeko lanak. Otorduak jarri, umeak zaindu, arropa garbitu, etxea garbitu... Garbigailurik ez zegoen. Kaldera buruan hartu, eta putzura, maindireak garbitzera. "Sacamanca". Nola jotzen zuten eta zabaldu. Orduko algarak.

89. Arropa garbitzen, iturrian (ATG-004/046)

Etxean ura bazuten, baina iturrira joaten ziren arropa garbitzera. Ur hotza udan, eta neguan epela ateratzen zen. Harriaren gainean belauniko; bestela, uretan sartuta. Lagun batzuek Donostiarako ere garbitzen zuten, aberatsentzat. Martutenen ere bai, errekan.

90. Labaderoak eta errekek (ATG-004/047)

Labaderoak. Dutxa publikoak. Baserrietakoak ere ahal zuten tokian, askok urik ez zuten. Hernanin, senarraren baserrian, erreka zulora joaten ziren.

91. Lehengo plantxak eta josteko makinak (ATG-004/048)

Plantxak nolakoak izaten ziren, su gainean jartzekoak. Burdinazkoak. Bi erabiltzen zituzten, txandaka. Batzuetan arropa zikintzen zuten. Josteko makinak etxe gehienetan zeuden. Ahizpa ibiltzen zen makinarekin.

92. Lurra garbitzeko, belauniko (ATG-004/049)

Egurrezko lurrak zeuden etxeetan; belauniko jarrita garbitu behar, astean behin. Argizaria emateko, lehenengo alanbrea pasatu behar. Familia izanda oso ahul geratu zen, eta senarra ibiltzen zen lan horietan, baina leihoak itxita, inork ez ikusteko.

93. Astigarragan, etxe gehiegi eta erribera gutxiegi (ATG-004/053)

Astigarragan zer aldatu den. Orain etxez beteta dagoela dio, penatuta, eta erriberak galdu egin direla. Dendak eta tabernak orain ere badaude.

94. Astigarragatik Herrerara, eta Herreratik Astigarragara (ATG-005/002)

Joxe Astigarragan jaio zen, Gurutzetan. Baina aitak Pasaian egiten zuen lan, Luzuriagan; eta, Joxek 4 urte zituela, Herrerara joan ziren bizitzera. Gerra garaia han pasa zuten. Herrerako La Sallen ikasi zuen. 12 urterekin, Gurutzeta baserrira itzuli ziren; izan ere, baserriko maiorazko zen osaba kamioiarekin hasi zen lanean, eta ez zuen bizi nahi izan baserrian.

95. Fraide sartzeko animatzen zuen apaizak (ATG-005/005)

Astigarragako apaizak asko maite zuen Joxe, eta fraide sartzeko adore ematen zion; baina Joxek garbi zeukan ez zuela nahi. Lehen, seminarioan zer baldintzatan bizi ziren azaltzen du.

96. Euskara noiz eta non ahal zuten egin (ATG-005/009)

Gerra ostean, euskara galarazi egin zuten; eskolan, erdaraz egin behar izaten zuten. Baina, gainerakoan, dena euskaraz egiten zuten. La Sallen ikasi zuenean, ordea, gerra aurrean, dena euskaraz egiten zuten.

97. Oialumeko giroa lehen (ATG-005/014)

Oialume dantzalekua nolakoa zen azaltzen du. Orduko soinu-jotzaileez eta giroaz hitz egiten du. Gerora, neska-laguntza hasi zen.

98. Neska-lagunarekin pausoak eta denborak (ATG-005/016)

Neska-laguntza nola izaten zen azaltzen du. Musu emateko, andregaia izanda ere, urtebete itxaron behar izaten zuten. Emakumeek bekatuaren beldurra izaten zuten, dena kontatu beharko ziotela apaizari. Lehengo eta oraingo bizimodua alderatzen ditu. Joxe 21 urterekin hasi zen neska-lagunarekin; eta 6 urte ibili ziren elkarrekin, ezkondu arte. Igandetan bakarrik ikusten zuten elkar, eta ilusio izugarriarekin ibiltzen ziren, noiz elkartuko zain.

99. Neskak eta mutilak aparte normalean (ATG-005/018)

Ergobiko errekarara joaten ziren bainura; hondartzara, ordea, ez ziren joaten. Neskek ez zuten errekarako joerarik. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren bai denbora librean, bai eskolan, bai elizan.

100. Gerrak izeba-osaben bizimodua irauli zuen (ATG-005/022)

Astigarragako "Bar Mikaela" dagoen eraikinean, osaba-izebak bizi ziren. Gerran, osabak alde egin zuen, hilko ez bazuten; izan ere, Astigarragan, hainbat gizon fusilatu zituzten. Osabaren ama, osabaren lau ume txikiak hartuta, Belgikara joan zen; eta izeba Astigarragan gelditu zen, bakar-bakarrik, etxea zaintzearen; bestela, kendu egingo zioten. Gerra bukatu ostean, osaba Venezuelan egon zen, etxera itzuli ezinik. Izebari ez zioten utzi taberna irekitzen. Orduan, tabernan upel batzuk jarri zituzten, sagardoa saltzeko; baina, hala ere, ez zieten baimenik eman. Eta, azkenean, aitaren izenean ireki behar izan zuten taberna.

101. Gerrak lapurtutako biziak (ATG-005/025)

Gerra garaian, Astigarragan aita-semeak hil zituzten itulan zebiltzala. Gaur egun, gerra sortuz gero, gehiago hilko liratekeela uste du. Gerran, Hernanin

fusilatzen zuten jendea. Aretxabaletako emakume baten istorioa kontatzen du, ama fusilatu ziotenekoa. Joxeren osaba gordeta egon zen, eta ezkutuan ibili behar izaten zuen, harrapa ez zezaten.

102. Ikurrina baimendu zuteneko ilusioa (ATG-005/027)

Ikurrina galarazita egon zen. Ikurrina baimendu zuten eguna gogoan du, Atotxan festa izugarria egon zen. Tolosako sagardo-lehiaketa bateko anekdota kontatzen du.

103. Pixkanaka, sagardogintzan sartzen (ATG-005/029)

Beraien garaian, astolan asko egin izan dute. Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Joxek nahiago zuen sagardo-lanean aritu, baserri-lanean aritu baino. Pixkanaka, sagardogintzarako prestatu zuen baserria.

104. Koipeztatzaile, kontrabando garaian (ATG-005/032)

14 urte zituela hasi zen lanean Grosen, koipeztatzaile-lanetan. Garai hartako jorjala amari ematen zion. Eskupekoen bidez, diru asko lortzen zuen. Kontrabando garaia zen orduan, eta ibilgailuetan trikimailuak zituztenek Joxerengana jotzen zuten. Ibilgailuetako tranpa batzuk aipatzen ditu.

105. Errazionamenduko janaria jasotzeko lekuak eta ilarak (ATG-005/034)

Errazionamendu garaian, askotan, ilara egin behar izaten zuten janaria jasotzeko. Beraiek nora joan behar izaten zuten haragi bila.

106. Gerra ostean, ogia nola lortzen zuten (ATG-005/035)

Ogiaren faltarik ez zuten izan. Etxean errota txiki bat zeukaten. Eta kontrabandoko ogia lortzeko, bazekiten nora jo. Ogia nondik ekartzen zuten azaltzen du.

107. Lehengo sagardogintza (ATG-005/036)

Sagardotegia aldatu egin da lehendik hona. Lehen, sagardogintza nolakoa zen azaltzen du.

108. Sagardotegietako ohituren bilakaera (ATG-005/037)

Garai batean, sagardoa nori saltzen zioten azaltzen du. Pixkanaka, hazi egin zen negozioa. Lehen, bazen janaria etxetik ekartzen zuenik.

109. Ergobi lehen eta orain (ATG-005/042)

Ergobi eta Astigarraga lehendik hona zenbat aldatu diren azaltzen du.

110. Ergobin jendea nola bizi zen (ATG-005/043)

Ergobi inguruko jendea baserritik bizi zen lehen. Lehen, baserriko jendea nola moldatzen zen azaltzen du: kanpora saltzen, fabriketan lan egiten, ikasten...

111. Lehengo bideetatik, oraingo bideetara (ATG-005/044)

Lehengo bideak estuak ziren. Gerora egin ziren bide zabalagoak eta hobeak. Bideak auzolanean egiten zituzten, baina bera libratu egiten zen askotan.

112. Kamioiarekin lanean (ATG-005/048)

Sagardoa banatzeko, gauez ibiltzen ziren kamioiez. Gerora, kamioia erosi zuen etxerako, eta nahi zutenean egiten zuten banaketa. Lan asko izaten zuen kamioiarekin. Orduko lan motak eta lan-baldintzak aipatzen ditu.

113. Soldadutzan, kirolari eta topografo (ATG-005/054)

Soldadutzan, edozertan apuntatzen zen Joxe, soldadutzako zereginak ez egiteagatik. Orduko anekdotak kontatzen ditu.

114. Neskamea Tabla baserrian (ATG-006/002)

Garai batean baserria harriz egina zen, eta barrendik dena egurrezkoa. Bi etxebizitzatan zegoen banaturik. Bittorirenak lau gela zituen. Lau logela hauetan banatzen ziren denak, bost senide eta gurasoak. Aitonak eta amonak izaten zituzten neskame eta morroiak etxean. Hauek euren gela izaten zuten, eta familiako beste kide bat balira bezala bizi ziren baserrian. Neskame nafar bat izan zutela kontatzen du Bittorik.

115. Tabla baserria aitaren aldekoa (ATG-006/003)

Bittoriren aitona bera (aitaren aita) Tabla baserrira ezkondu zen, eta aita bertan jaio zen. Ama, berriz, andoaindarra zuen.

116. Hernanitik Donostiara joateko, tranbia (ATG-006/004)

Baserriko lanak egitetik bizi ziren Tablan. Abereak zituzten, baratzea ere bai. Ama Donostiara joaten zen tratua saltzera Bittorik lagunduta. Tranbian joan ohi ziren Hernanitik Donostiara.

117. Tranbiako bidaia ez zen batere lasaia (ATG-006/005)

Baserritarrez josita joaten zen tranbia Hernanitik Donostiara, bakoitza bere saski eta barazkiekin. Eskupekoa ematen zioten tranbiako langileari euren saskia errespeta zezan.

118. Eskolara zapatarik gabe (ATG-006/006)

Alpargata bustiekin joaten zen askotan Bittori eskolara, eta beste askotan zapatarik gabe. Eskola gaur egun Udaletxea den horretan zen. Moja eskola zen hori, eta Bittoriri laguntza eskatzen zion sukaldeaz arduratzen zen mojak.

119. Laguna zaborretara bota zuenekoa (ATG-006/007)

Eskolan, atsedenean, jolasean ibiltzen ziren denak, txingoka, kaniketan... Oso bihurria zen Bittori umetan, eta behin lagun baten anaia zaborretara bota zuen.

120. Anaiaren jaunartzeko alkandora moztu zuenekoa (ATG-006/009)

Anaiak jaunartzea egin behar zuela eta, Bittorik bere alkandora hartu eta lepoa moztu zion guraizeekin, eta ondoren ezkutatu egin zuen. Amak, zigortzeko, ipurdiko bat eman zion.

121. Bezero batekin haserretu zen Bittori (ATG-006/010)

Behin, letxugak saltzen ari zela, bezero bat prezioaz kexuka hasi, eta Bittorik gogor erantzun zion.

122. Parranda ondoren goiz jaiki beharra (ATG-006/012)

Santiago eguna eta Amabirjinaren eguna ospatzen zituzten herrian. Gaueko hamabietan izaten zen azken kalejira, eta hau bukatutakoan etxera joaten ziren. Hurrengo goizean, ordea, amak oso goiz esnatzen zituen denak, lanera bidaltzeko.

123. Iruñeako San Ferminetara I (ATG-006/013)

Hernaniko lagun baten bitartez, Iruñean etxea lortu eta San Ferminetara joan ziren biak parrandan. Etxe hartan bizi zen aita goizean goiz mehatsu egin zien, zezenak ikusteko esnatzen ez baziren, urez betetako kuboia gainera botako ziela esanez.

124. Iruñeako San Ferminetara II (ATG-006/014)

Erdi lo, baina Iruñeako San Ferminetan zezenak ikustera joan ziren Bittori eta laguna, lo egin zuten etxeko jabeekin. Geroago konturatu ziren zezenak harrapatutako mutila Bittori eta lagunarekin dantzan aritutako mutil bera zela.

125. San Ferminetan mutilei zapatak kendu (ATG-006/015)

San Ferminetan, etxera bueltan zihoazela, kalean lotan ari ziren mutil batzuek euren burua eskaini zuten Bittori eta lagunei etxera laguntzeko. Honen aurrean, hauei zapatak kendu eta zapatei ostikoka egin zuten bidea.

126. "Banda de ingenieros" (ATG-006/017)

Herriko festetan "banda de ingenieros" zelakoak jotzen zuen. Ordaindu egiten zitzaion hauei, eta Bittoriren iritziz, nahi zutena egiten zuten, nahi zutenean jo, nahi zutenean gelditu... Anaia izaten zen batez ere parrandatik bueltako ordua kontrolatzen ziona, gurasoak baino zorrotzagoa baitzen hau.

127. Parrandatik bueltan atea itxita (ATG-006/018)

Ergobiako jaiak zirela eta, amak enkargutara bidali zuela baliatuz, Ergobiako jaietara joan zen Bittori. Anaiak hamarrak baino lehenago iristeko esan zion, bestela atea itxita topatuko zuela. Bittori, kasurik egin gabe, esan baino beranduago iritsi eta atea itxita topatu zuen, eta kanpoan egin behar izan zuen lo.

128. Tabernatik etxera egin zuten ihes (ATG-006/022)

Bittori eta Donostiakoa zuen Maria Luisa laguna afaltzera gonbidatu zituen mutil batek. Hauek, komunera joan beharra zutela esan, eta ihes egin zuten tabernatik, mutila haien zain utzita. Anaiak guztia ikusi, eta korrika jarraitu zituen atzetik.

129. Zinemara Hernanira (ATG-006/023)

Zortzi lagun joaten ziren zinemara. Haietako egun batean, "Cantinflas" zegoen zineman, eta emakume batekin haserretu zen Bittori, zalapartaz kexuka ari baitzen hura.

130. Autobusean Tolosako inauterietara (ATG-006/024)

Tolosara iritsi eta bazkaldu zuten. Mutil bati entzun zion Bittorik zirriak egin nahi zizkiola, eta muturreko galanta eman zion honi. Mutila, harrituta eta haserre, bi astez egon zen Bittoriri hitzik egin gabe.

131. Turroia jateko gonbitea (ATG-006/026)

Behin, mutilzahar batek turroia jatera gonbidatu zituen Bittori eta lagunak, hauekin ligatzeko asmoz. Ezezkoa eman zioten neskek ordea, baina gizona, tematuta, nesketako bati bidera atera zitzaion.

132. Mutilzaharren fama (ATG-006/028)

Bittoriren iritziz, mutilzaharrei segituan nabaritzen zitzaaien multizaharrek zirela. Adibidez, dantzaldietan, ez zuten dantzarik egiten, eta amaitzeaz zenean, neskaz neska ibiltzen ziren.

133. Igoera eguna eta Gorputz eguna (ATG-006/030)

San Tomas egunean Donostiara joaten ziren, eta San Juan egunean Astigarragan suteak egiten zituzten, baina geroago Hernanira joaten hasi ziren. Jai bereziak izaten ziren Igoera eguna eta Gorputz eguna. Igoera egunean berrogei kredo errezatu behar izaten ziren, baina elizatik kanpo, eliza barnean errezatutakoek ez zuten balio izaten.

134. Gorputz egunean prozesioa (ATG-006/032)

Astigarragan prozesioa egiten zen Gorputz egunean, eta askotan jaunartzea ere ospatzen zen. San Pedro eguna oroitzen du Bittorik, errespetu kontuagatik ezin baitzen belarra ikutu ere egin.

135. Jaiean lanik ez (ATG-006/034)

Igandetan, jainkoaren eguna izaki, janaria prestatzeaz gain ez zen lan handirik egiten etxean, errespetatu egiten zen egun hau.

136. Erramu eguna (ATG-006/035)

Erramu egunean eliza kanpoan utzi zuen Bittorik bere erramua, eta elizatik irtetea konturatu zen norbaitek lapurtu egin ziola. Erramua etxea babesteko erabiltzen zen, ezbeharrik gerta ez zedin.

137. Elorria Santa Krutzetan (ATG-006/037)

Andoaingo San Krutz jaietan elorria erabili hoi zen, gurutze forma emanaz, soroetan piztirik edo gaitzik egon ez zedin.

138. Espainiako bandera eta gurutzea (ATG-006/039)

Balkoietan espainiako bandera jartzen zuten gurutze kristaua erdian zuela.

139. Tiroen ondorioz platerak dantzan (ATG-006/041)

Gerran Bittorik beldur handia pasa zutela kontatzen du, batzuetan, San Markos aldean tiroak entzun eta platerak dantzan hasten ziren burrunbagatik. Orduan, altxa eta ihes egiten zuten, bakoitzak ahal zuen tokira. Behin amari tratua lapurtzen saiatu ziren hiru atso.

140. Guardia Zibila etxea arakatzen (ATG-006/042)

Bittorik oroitzen du Guardia Zibilak nola arakatzen zuen baserria, koltxoia zulatuz eta oheak deseginez. Beste garai batean, babarruna, artoa eta patata eman behar zen udaletxean. Aitak meta barruan babarrunak ezkutatu zituen.

141. Errazionamenduko janaria (ATG-006/043)

Errazionamenduko olioa gogor-gogorra gelditzen zen etxera iristerako, eta ematen zien ogi zatia ere oso txikia zen.

142. Estraperloan txerria hil (ATG-006/044)

Estraperloan erositako txerria sukaldean hil izanaz gogoratzen da Bittori. Guadia Zibilek baserriko animaliak tiroz hil eta lapurtu egiten zituzten askotan.

143. Salbokonduktua ahaztu zuenekoa (ATG-006/045)

Andoaingo izeba bisitatzera joan zen behin Bittori, eta salbokonduktua etxean ahaztu zuen. Harrapatu egin zuten Bittori dokumentaioz gabe, eta geralekuan jaistera behartu zuten.

144. Tropengandik ihesi (ATG-006/046)

San Markosetik jaisten ziren tropek ikus ez zitzaizten, erreka bazterretan ezkutatu ohi ziren.

145. Hamabietako sirena (ATG-006/047)

Gerra hasi zela konturatu zirenean, Doostian bizi ziren izebengana jo zuen Bittorik eta familiak. Oroitzen du eguerdiko hamabietan sinerak jotzen zuela, eta Donsotiako kaleak hutsik gelditzen zirela.

146. Granada batek eztanda (ATG-006/048)

Bonbardaketak hasi eta bizilagunak mugitu nahi ez zuela eta, granada bat harengandik gertu erori eta eztanda egin zuen. Segituan aldatu zuen iritziz.

147. Gerraren eragina Astigarragan (ATG-006/049)

Bittorik gogoan du aitak kontatu zion gertakari bat, izan ere, aitaren ezagun baten etxera bi gizon joan baitziren, eta bertako gizona iritsi orduko, mendi batera eraman eta hil egin zuten.

148. Aitari eskopeta kendu ziotenekoa (ATG-006/050)

Behin, udaletxearen aginduz, gizon batek Bittoriren aitari eskopeta kendu behar izan zion, itzuliko ziola esanez, baina ez zuen berriro ikusi eskopeta hura.

149. Astigarragako etxe batean ezkutatuta (ATG-006/052)

Gerra garaian, Bittoriren amak familia Andoainera eraman nahi izan zuen, baina baseritik herrira jaistean, herriko bizilagun batek haren etxean gorde zituen herritik irtetzea oso arriskutsua baitzen.

150. Tabla: sagardotegia eta bolatokia (ATG-006/054)

Bitorrik bolatokia nolakoa zen kontatzen du pasarte honetan. Donostiatik jende asko joaten zen bertara bazkaltzera.

151. Txirrita eta Altzoko Handia etxean (ATG-006/055)

Apopilo egoten zen Txirrita Tabla baserrian. Altzoko Handia ere bertan ibiltzen zen, ezin sukaldean sartu honen tamainagatik.

152. Txirritari buruzko bertsoa (ATG-006/057)

153. Bertso zaharren liburua (ATG-006/058)

Ahizpak bertso zaharren liburu handi bat lortu zuen, eta bertatik ikasi zituzten bertsoak.

154. Euskara gaztelaniaren truke (ATG-006/060)

Bittorik Donostiako bikote baten semeei euskaraz egiteagatik, gaztelaniaz ikasi zuen trukean. Etxean dena euskaraz egiten zuen Bittorik, eta kalean ez zuen gaztelania ulertzen.

155. Bakero baserrian bizi (ATG-007/002)

Maizter moduan egon ziren lehenengo baserrian, eta gero Iñaxiren gurasoek erosi egin zuten. Bost senide eta gurasoak bizi ziren bertan. Aita hargina zuen eta anaiak fabrika egiten zuen lan.

156. Amonaren heriotza gogoan (ATG-007/004)

Amona bat ezagutu zuen Iñaxik, baina bera oso gazte zela hil zen. Ganadua gobernatu eta plazara joaten zen goizero-goizero.

157. Sacamantecasen beldur (ATG-007/006)

Gurasoek bertan esaten zieten umeei kontuz ibiltzeko Sacamantecas delakoarekin. Beldurrez ibiltzen ziren gauez ilunpetan Iñaxi eta lagunak.

158. Astoarekin alde batetik bestera (ATG-007/008)

Iñaxiren baserrian ekonomika zuten, baina senarraren baserrira ezkondu eta lurreko sua ezagutu zuen. Azken honetan ez zen argirik ere.

159. Dena eskuz egiten zuten (ATG-007/009)

Emakumeek makina bat lan egiten zuten, etxean eta etxetik kanpo. Iñaxik oroitzen du dena eskuz egiten zutela, gaur egungoarekin alderatuz.

160. Parrandatik berandu iristearen ondorioak (ATG-007/010)

Tabernaz taberna ibiltzen zen emakumeak fama txarra izan ohi zuen. Iñaxi hogeit bat urterekin hasi zen Oialumera joaten, eta hamarretarako etxera buelta egiten zuen. Etxera berandu iristen zenean, amak erratza eskuan itxoiten zion. Behin, autobusa beteta, ezin izan zuen garaiz etxera itzuli, eta amonak San Juanetan ateratzea debekatu zion, zigor moduan. Zigorra barkatzeko helburuz, artoa jorratzen jardun zuten.

161. Sexuaz ezin hitz egin (ATG-007/011)

Iñaxi gaztea zenean, etxean zeharo debekaturik zuen mutil kontuez eta sexuaz hitz egitea. Gizonekiko beldurra sartzen zieten neska gazteei. Mutilarekin hasi zenean ere amak Iñaxi behatzen zuen.

162. Haurdun geldituz gero, ezkondu ez (ATG-007/012)

Nobiotan ari zirena haurdun gelditzen ziren emakumeak egon bazeuden herrian, baina orokorrean ez ziren ezkontzen fama txarra zela eta.

163. Haurdunaldia lotsaren pareko (ATG-007/013)

Alaba ezkongabea haurdun geldituz gero, auzolotsa sentitzen zen. Hala ere, sexuari buruz hitz egiten ez zenez, emakumeek ez zuten inongo sexu-heziketarik izaten.

164. Familiakoen arteko ezkontzak (ATG-007/015)

Behartuta ezkontzen zirela oroitzen du Iñaxik. Neskameekin ezkontzen zirenak ere asko izaten ziren.

165. Atsolorra egiteko ohitura (ATG-007/017)

Atsolorra egiten zen ezkontza gertu zenean, neskaren lagunek eta mutilaren lagunek afaria edo bazkaria prestatzen zuten.

166. Sexu heziketarik ez (ATG-007/019)

Heziketa sexualik ez zuten izaten emakumeek. Etxean bertan amak ez zien sexuaz hitz egiten uzten. Hilerokoa jaitsi zitzaionean Iñaxik ez zekien zer zen ere.

167. Gereziak buruan eta umeak besotan (ATG-007/021)

Sei gizon eta bi emakume ziren senarraren baserrira ezkondu zenean. Hogeita lau urterekin ezkondu zen Iñaxi, eta denbora gutxian sei seme-alaba izan zituen.

168. Sorotik bizi (ATG-007/022)

Baratzea eta gereziak izaten ziren lan gehien ematen zizkienak. Amaginarreba Donostiara joaten zenez tratua saltzera, Iñaxi baserrian gelditu behar izaten zen lanean.

169. Garai bateko abeltzaintza (ATG-007/024)

Garai bateko abeltzaintza eta gaur egungoa ez dira berdinak. Garai batean arrautzak izatea gehiago kostatzen omen zen. Oiloak ukuiluan izaten zituzten.

170. Amak ogia ekartzen zuen gona azpian (ATG-007/026)

Abere-hiltzea oso ohikoa zen garai batean. Iñaxiren etxean urtero-urtero egiten zen txerri-hilketa, eta zatiak oliotan mantentzen zituzten. Francoren garaian, aldiz, askotan joan zen Iñaxi Hernanira haien errazioaren bila eta esku-hutsik bueltatu.

171. Taloa ogiaren ordeaz (ATG-007/027)

Hendaian izaten zen kotrabandoa nagusiki. Etxean azukre faltarik ez du oroitzen Iñaxik, baina bai olio eta ogi falta.

172. Erreketearen burua eskopetan (ATG-007/029)

Bizilagunaren senarrak erreketek bat hil eta Hernani osoan zehar ibili zuen erreketekaren burua bere eskopetako muturrean sartuta, erakutsiz. Ondoren, erreketek Hernani hartu zutenean, susmagarri guztiak kartzelan sartu zituzten. Hauetako asko mozkortu egin zituzten, eta Urbasa aldean bota egin zituzten kamioitik.

173. Sirenadun hotela (ATG-007/030)

Iñaxiren amak Astigarragako hotel batera ekarri zituen Iñaxi eta bere anai-arrebak. Hotel honek sirena bat zuen, arriskua zenean martxan jartzen zena. Sirenak jotzen zuenean, korrika joaten ziren biltegian ezkutatzera. Geletako leihoak koltxoiz tapatuta egoten ziren.

174. Gerra garaiko faltsukeria (ATG-007/032)

Iñaxik oroitzen du erreketen kontra zegoen jendea, erreketen alde agertu zela hauek Hernani hartu zutenean.

175. Eliza, bigarren etxea (ATG-007/035)

Hamaika aldiz joan behar izaten zuten elizara, jaiero eta egun berezietan. Igandetako arropa ezin izaten zuten gainontzeko egunetan ikutu ere egin. Meza zegoenean, aukera ona izaten zuen apaizak bekatuaren inguruan hitz egiteko, ez omen zuen besterik egiten, dena bekatua baitzen.

176. Gurasoak Lasarte-Oriatik (ATG-008/002)

Gurasoak Lasarte-Oriakoak ziren, eta maizter etorri ziren Astigarragako baserrira.

177. Zazpi urterekin eskolara (ATG-008/003)

Zazpi urterekin joan zen eskolara, Astigarragako udaletxean zegoen eskola publikora. Oinez joaten zen bertara, eta dena gaztelaniaz ikasi zuen.

178. Gaztetako bihurrikeriak (ATG-008/004)

Gaztetan egiten zituen zenbait bihurrikeria kontatzen ditu pasarte honetan Prudentziok.

179. Neskak ukitu ere ez (ATG-008/005)

Neska eta mutilak bananduta ibiltzen ziren. Mutilek ez zituzten neskak ukitu ere egiten, neskak ez baitzieten uzten. Ez zituzten eskutik hartzen, ezta musurik ematen ere. Ilhoria zen Prudentzio, eta asko ligatzen omen zuen horregatik.

180. Kanpoko festetara (ATG-008/009)

Hamaika tokitara joaten ziren Prudentzio eta haren lagunak festetara, Hernanira, Oiartzunera, Erreteriarara...

181. Jaunartzea egiteko aurpegia garbitu (ATG-008/011)

Amonak aurpegia eta mihia garbitzera behartu zuen Prudentzio Jaunartzea egin baino lehen.

182. Bere ezkontzan agertu ez zen gizona (ATG-008/013)

Behin emakume batek umea galdu zuela konfesatu zion apaizari, eta apaizak gizongaiari esateko agindu zion. Gizona ez zen ezkontzan agertu.

183. Mutilzahar eta neskazaharrak (ATG-008/015)

Neskazahar asko moja joaten ziren, eta mutil asko fraile.

184. Emakumeak ezkondu ondoren etxean (ATG-008/016)

Emakumeak etxeko eta familiako ardurak zituen ezkondu ondoren, eta senarrak etxetik kanpo egiten zuen lan. Prudentzio bera haurrak zaintzen eta etxeko lanak egiten ibili zen, sei seme baitziren, eta alaba bakarra oso txikia baitzen.

185. Hamaika talo janda (ATG-008/018)

Amak egiten zuena azaltzen du Prudentziok, eta beranduago bera egiten hasten zena. Taloak, kazuelak, lekak... Goizuetara joaten ziren irina egitera, taloak egiteko.

186. Sei semetan hirugarrena (ATG-008/019)

Lehen semea ezkondu gabe izan zuten, eta ondorengoak ezkontuta.

187. Ama arropa garbitzen (ATG-008/020)

Amak garbitzen bazuen ere, askotan Prudentzio ibiltzen zen plantxan. Sugarrak plantxan bertan sartuta egiten zuten.

188. Sacamantecas eta sorginak (ATG-008/022)

Amonak beti kontatzen zizkien Sacamantecas eta sorginen inguruko txiste eta kontakizunak, beldur izan zitezen.

189. Precio desberdina orduan (ATG-008/023)

Amuarraín eta angula mordoa harrapatzen zituzten. Zigorrak, isunak, eta orokorrean prezioak, oso desberdinak ziren garai batean.

190. Hamaika lanbide eta errenta aitorpena (ATG-008/025)

Etxean, harrobian, almidoi-fabrikan, etxez etxe, hiltegian... egin zuen lan.

191. Burgosen soldadu (ATG-008/026)

Hogeita zortzi hilabetez egon zen Burgosen soldadu. Zaldiak garbitzen eta zaldi gainean ibiltzen aritu zen han.

192. Kalean euskaraz egiten zuten (ATG-008/027)

Eskolan txikitatik gaztelania ikasi zuten arren, lagunartean euskaraz egiten zuten.

193. Francoren garaian kanpotar esko (ATG-008/028)

Astigarragara kanpotar jendea joan zen lanera Frankismo garaian.

194. Behi langileak etxean (ATG-009/008)

Idiak baino gehiago, behiak erabiltzen zituzten baserriko lanetarako. Behi onak izan zituzten etxean. Lanean ibiltzen ziren beraien behiak; baina, hala ere, esnea ematen zuten. Gaztetatik ikasiz gero, behiak ohitu egiten dira lan mota bakoitzean; uztarrian, adibidez.

195. Aitonarekin batera, behiak gobernatzen (ATG-009/010)

Ganadua hezteko onena, lurra lantzeko erabiltzea izaten da. Gogoan du aitonak nola hitz egiten zuen behiekin lan egitean. Behiak nola antolatzen

zituzten azaltzen du. Aitona bilobekin aritzen zen lanean baserrian. Aitonak pipa erretzen zuen.

196. Autobusean, bere kontura egindako apustua (ATG-009/026)

Autobuseko gidari izan zen garaian, apustua egin zuten bere kontura, emakumeen buru gaineko otarreak autobus gainera igotzen ari zela. Orduko anekdota kontatzen du.

197. Sagardotegian izandako borrokak (ATG-009/034)

Garai batean, sagardotegia eduki zuten; behin, borroka izan zen, eta banandu egin zituen Antoniok. Orduko kontuak aipatzen ditu.

198. Ipintza baserrian jaioa; ama alargun bost seme-alabarekin (ATG-010/002)

Astigarragan jaioa, Ipintza baserrian. Oso zaharra zen; behean sukaldea eta ukuilua. Bi bizilagun izan dira beti. Bost senide izan ziren aurrerakoak. 22 urteko anaia nola hil zen, tifusarekin. Aita umea zela hil zitzaion, trenak harrapatuta.

199. Etxea erosi berria, eta dena zorrak (ATG-010/003)

Amaren bi ahizpa eta anai bat Ipintzara joan ziren bizitzera, eta elkarrekin bizitu ziren. Miseria. Etxea erosi berria, baina dena zorretan: bestek utzitako dirua bueltatu beharra.

200. Gobada egiten I: denen artean, errekan (ATG-010/004)

Amak zein lan egiten zituen, familia aurrera ateratzeko: gobada egiten zuen Donostiarako eta komentuko arropak. Bi fardel astero. Denen artean egiten zuten, hankak errekan sartuta. Dena eskuz. Kuela. Ura irakin. Buru gainean errekara. Buruteak mojak egiten zituzten, eta beraiek Donostiako denda batera eramaten zituzten, saltzeko. Lan gogorra, astoa ekarri arte.

201. Gobada egiten II: fardelak buru gainean (ATG-010/005)

Gobada egiteko prozesua. Kuela. Errekan jo, hankak uretan sartuta. Plazan bertan, Goiko Iturrin. Fardelarekin gora eta behera, eguraldia txarra izan arren. Mojen arropa zuria garbitzen zuten. Etxeko arropa aparte garbitzen zuten. Donostiarako ere bai.

202. Gobada egiten III: inudeen arropak (ATG-010/006)

Udan inudeen arropak ere garbitzen zituzten, puntillaz beteak. Inudeak oso dotore janzten ziren. Madrildik eta Zaragozatik etorriak. Plazan egoten zenean, berarengana joaten ziren lekak eroatera.

203. Beti lanean; paseatzera joatea gaizki ikusia (ATG-010/007)

Ez zuten arropa plantxatzen, doblatuta entregatzen zuten. Orduko plantxak. Baratzeko lanak ere bazituzten. Beti lanean. Paseatzera joateak lotsa ematen zion; gaur, berriz... Baratzea kendu zutenean zer esaten zioten.

204. Gurdibidea zegoen lehen (ATG-010/008)

Baserria kaletik hurbil. Lehen, gurdibidea zen. Garotara joaten ziren. "Iñiztorra".

205. Garotara, auzolanean (ATG-010/010)

Garo metak. Garotara nora joaten ziren, markesaren basora; ordaindu egin beharko zen zerbait. Auzolana. Baserri txikia zen, eta lur sailak urruti zituen. Bi behi eta txekorra. Gurdirik ez zuten.

206. Eskolan ez zuen askorik ikasi (ATG-010/011)

Eskola garaia. Udaletxean ibili zen, mojetan ere bai. 13-14 urterekin neskame Donostiara. Eskola erdaraz zen, eta beraiek jakin ez. Jostea gustatzen zitzaion berari, arratsaldeetan. Ez zuen asko ikasi eskolan. Zatiketak egiten erakutsi zion semeari, eta bera egiteko gai izan ez.

207. Jaunartzea egiteko, dotrina jakin behar (ATG-010/012)

Eskolan, neskak eta mutilak aparte. Elizan ere bai lehen. Entziklopedia eta dotrina. Jaunartzea egiteko dotrina jakin behar. Anaia urduri jartzen zen apaizaren aurrean, eta ezin esan. Bost apaiz Astigarragan. Dotrina buruz, eta erdaraz.

208. Neskame fina, beti etxe berean egondakoa (ATG-010/014)

Denbora libre askorik ez. Baserrian beti bazen lana. Urte askoan neskame toki berean egotea ondo ikusia zegoen; batetik bestera ibiltzea ez. Gaizki egon arren, aguantatu egin behar!

209. Umetako jolasak (ATG-010/015)

Plazan ibiltzen ziren denbora librean, jolasean. "Harrapazketan", kaniketan, sokasaltoan... Unetakoak (tabak). Txingoka, astoketan.

210. Egunero Donostiara, baina hondartzara ez (ATG-010/017)

Ez ziren hondartzara joaten, egunero Donostiara joan arren. Etxez etxe, txerri-jana batzen. Zestera buruan. Oso gutxitan zebilen ondo tranbia. Gerra garaian, 10-15 litro plazan bertan saltzera behartuta. Konstituzio plazan. Kimikoa ibiltzen zen esneak begiratzen; anekdota.

211. Gerra ostean, babarruna entregatu beharra (ATG-010/020)

Gerra ondoan. Gerezia saltzen jarri plazan, eta ordua baino lehenago saldu zuelako isuna "guardavino"-ek. Kontrabandorik ez. Babarruna entregatu beharra. Esnea erosi behar igual, bezeroei eramateko. Bizimodu gogorra.

212. Astigarraga asko aldatu da; desagertutako baserriak (ATG-010/021)

Astigarraga asko aldatu da: etxe asko dago orain. Santiozearra auzoa, lehen Santiomendi. Astigarragako auzoak. Txalaka aldea industriad bete da, baserriak botata. Desagertutako baserriak.

213. Santio eguna eta San Rokeak (ATG-010/023)

Erromeriak. Santioak eta San Roke eguna. Txistua eta filarmonika. "Txipitixonean" jaisten ziren, kalejiran. Meza nagusia, dantzariak, herri-kirolak.

214. San Roke eguna (ATG-010/025)

Santiomenditik behera, ilunabarrean. Izeba Karmenek etxe aurrean dantzatzen zuen pieza bat, soltean. Bi meta zeuden. Gero, festa plazan. San Roke eguna. Santa Ana egunean idi apustuak izaten ziren, eta aizkolariak. Ez da idi dema zalea.

215. Oialumera eta Hernanira dantzara (ATG-010/027)

Oialumeko dantzak; handik korrika Hernanira. Soltean eta lotuta ere bai, gustukoa agertuz gero. Sabina eta biak hasten ziren dantzan, eta gero denak. Dantzazalea da. Taberna aurrean. Gero, Hernanira. Pieza bat gehiago dantzatzeagatik, gero oinez etxera, korrika. Goiz erretiratu beharra.

216. Angelusa, eguerdian; elizaren indarra (ATG-010/029)

Osabak angelusa errezatzen zuen. Nolako otoitza zen, eguerdikoa. Pilota partidatan ere errezatzen zen. Elizaren indarra, lehen eta orain. Komentuan moja gutxi orain, eta denak zaharrak; lehengusuak 86 urte ditu.

217. Beti elizan sartuta; bederatziurrenak (ATG-010/031)

Igandero mezara. Bederatziurrenak: abenduaren zortzian hasi, eta mordoa. San Jose. 06:00etako mezara. Kandelaria egunean, kandelak bedeinkatzera. Erramua, ur bedeinkatuan bustitzeko. Erramu eguna. San Juanetan, lizarra.

218. San Isidro; baserritar kofradiak (ATG-010/033)

San Isidro, meza eta prozesioa. Baserritarren zaindaria. Aingeruek lanak egin zizkioten, baina orain ez dituzte egiten. Baserritar kofradiak bazeuden, baina beraiek ez ziren kide, baserri txikia izaki. Hildako ganaduekin zer egiten zuten. Kobazuloa.

219. Sexualitatea eta hilerokoa, tabuak (ATG-010/041)

Sexualitatea. Arropa garbitzen errekan, eta belarriak erne izaten zituzten, baina amak ez zien entzuten uzten. Umeak nondik zetozen, Paristik. Ez zieten ezer kontatzen. Neskame zegoela Donostian, ama hilerokoaz galdetzeko lotsaz. Garbitasuna.

220. Umeak etxean, emaginarekin (ATG-010/044)

Haurdun geratu eta aurreratu arte ez ziren joaten medikura. Lana berdin-berdin egiten zuten. Behin, arrandegian erori zen. Umea izateko, emaginarekin, etxean. Asegururik ez zuen. Emaginaren lanak. Amarentzat, salda.

221. Elizan sartzea (ATG-010/046)

Ama erditu berria. Bataioa eta elizan sartzea. Teilaren ohitura entzuna du.

222. Bataiatu gabe hildako umeak linbora (ATG-010/047)

Bataiatu gabe hildako umeak linbora joaten ziren: bedeinkatu gabeko lurretan lurperatzen zituzten.

223. Lehengo bataioak; umearen izena (ATG-010/048)

Bataioko eguna ez zen oso berezia; ospakizunik ez kanpoan. Haurra inudeak eramaten zuen bataiatzera. Aitajauna eta amandrea. Bere amonaren izena jarri zioten berari; izeba Margarita zen, baina amak ez zuen gustuko izen hori. Sosak airean botatzeko ohitura (boloa).

224. Heriotza I: agonia, azken igurtzia (ATG-010/050)

Heriotza. Etxe aurrean mahaia izaten zen, gorpua uzteko, eta plazan ere bai. Agonia jotzen zuten, kanpaiak. Bederatzi. Elizakoak ematera joaten zen apaiza; azken igurtzia. Zerura sartzeko zenbat gauza!

225. Heriotza II: hilkutxa etxean (ATG-010/052)

Hildakoa etxean izaten zen. Bulak jartzen ziren gorpuan. Hilkutxa non jartzen zen. Auzoko guztiak joaten ziren.

226. Heriotza III: hilkutxa bizkarrean elizaraino (ATG-010/054)

Hilkutxa lau kandelabroekin; lau zinta. Erramua, ur bedeinkatuarekin. Trajea jartzen zieten, abituak ere bai. Hileta elizkizunak. Auzokoek eramaten zuten hilkutxa, bizkarrean hartuta. Entierro zibilak, gutxi.

227. Lutoa, bi urtean (ATG-010/055)

Lutoa: bi urtean beltzez jantzita. Arropak etxean tindatzen zituzten. Zuri-beltza gero. Jaunartzea beltzez jantzita egin zuen koinatak, aita hil zitzaiolako.

228. Hika, zuka, berorika (ATG-010/060)

Hika hitz egiten die seme-alabei. Gurasoei zuka egiten zien. Apaizei berorika, baina bati ez zitzaion gustatzen. Adinekoei zuka.

229. Baserriko bizimodu gogorra (ATG-011/003)

Ikuluan abereak zituzten eta sagardoa egiten zuten. Lehen dena eskuz botilaratzen zen. Tolarea beti motorrarekin ezagutu izan du etxean. Bizimodu gogorragoa zuten lehen, bereziki emakumeek. Orduan lana norberak topatu behar zuela dio.

230. Idiekin basora (ATG-011/005)

Basora joaten zen idiekin lanera. Negu guztia mendian pasatzen zuen: txilarrarekin ohea egin, manta bota eta idien ondoan egoten zen. Nagusia zein zen aipatzen du. Pasadizo bat kontaktzen du.

231. Idiekin nola moldatzen zen (ATG-011/007)

Idiak ondo hezita zituen. Nola moldatzen zen kontaktzen du.

232. Iñistorretara joaten zirenean (ATG-011/008)

Garoa biltzera goizeko lauretarako abiatzen zen eta eguna zabaltzerako gurdia kargatua izaten zuen. Lagun taldea joaten ziren. Egunero berrogei kilometro inguru ibiltzen ziren. Abarketak segituan apurtzen zituztenez, abarkekin ibili behar izaten zuten askotan.

233. Gau-eskoletan irakurtzen ikasten (ATG-011/010)

Maisuak errietan egiten zion bere aitari, eskolara alabak bidaltzen zituelako baina semeak ez. Gaueko eskolan hasi zirenean, arreta gehiago jartzen zuten eta zerbait ikasi zuen. Dena erdaraz izaten zen. Pasadizo bat kontaktzen du, lehenengoz neska bat euskaraz irakurtzen ikusi zuenekoa.

234. Arrebekin erdaraz ikasten (ATG-011/011)

Dotrina euskaraz eta erdaraz ikasi zuten. Aitak arrebei etxean erdaraz egin zezaten eskatzen zien, besteek ere moldatzen ikas zezaten, bizimoduak hala eskatzen baitzuen.

235. Aita alkate (ATG-011/012)

Bere aita alkate izan zen eta Sebastianek ez zuen gustoko. Urteko jorjala zein izaten zen kontaktzen du. Sebastianek ekartzen zuen dirua etxera idiekin ibilita, aita hil eta gero hamabi lagun bizi baitziren.

236. Dantzari eta neska-laguntzen (ATG-011/013)

Oialumen, Hirubidetan, Hernanin, Oartzunen eta beste hainbatetan ibiltzen ziren dantzari. Jaiero neska-laguntzera joaten zirela gogoan du. Ilusio handia izaten zuten neskak ikusteko. Anekdotak bat kontaktzen du.

237. Mezetara neskak ikustearren (ATG-011/015)

Neskak eta mutilak bananduta ibiltzen ziren. Misioak izaten zirenean, denak batera egoten ziren eta mezetara neskak ikustearren joaten zirela kontaktzen du. Pasadizo bat kontaktzen du. Konfesatzera joaten zirenean, neska gazteak denbora luzez edukitzen zituzten apaizek.

238. Mezetara baraurik eta tapatuta (ATG-011/016)

Nahi gabe ur pixka bat edanez gero, ez zeukaten jauna hartzerik. Baraurik joan behar izaten zen. Luistarretan lepoan zinta jarrita ibiltzen ziren. Emakumeek buruan mantila erabili behar izaten zuten eta mauka luzetan, elizan sartzekotan.

239. Astigarragako kofradiak (ATG-011/017)

Ermitan Santiago eguneko meza izaten zen eta kofradiak antolatutako egunetan ere bai. Kofradiakoak batzen ziren eta ondoren bazkaltzera joaten ziren. Zela funtzionatzen zuten kontaktzen du.

240. Kofradiako baserriak eta funtzionamendua (ATG-011/018)

Bakoitzak bere eremuan izaten zuen kofradia. Aseguru modukoa zen. Bere kofradiako baserriak izendatzen ditu. Dozena bat inguru ziren. Zerrendagile izanda, behi, idi eta txekorrak markatu behar izaten zituen baserriz baserri.

241. Gizonek bizimodu errazagoa (ATG-011/020)

Emakumea ezkontzen zenean, bizimodu gogorra izaten zuen; lan guztia egin behar eta inora irtetzerik ez. Gizonek askatasun handiagoa izaten zuten. Sagardotegi garaian ere gizonak lasai asko ibiltzen ziren, baita hiru-lau egunez etxetik kanpora ere. Emazte batzuek arropa garbiak eramaten zizkieten aldatzeko.

242. Ezin auzokoei ezetz esan (ATG-011/021)

Pasadizo bat kontatzen du, auzokoei ezetz esatea oso zaila zela azaltzeko. Lehengo eta oraingo bizimodua oso desberdinak direla dio.

243. Upelak montatzen (ATG-011/022)

Gizonezkoek ofizio asko jakiten zituzten, lanak norberak egin behar izaten zituelako. Baziren inguruan erlojuak egiten zituztenak. Upelak ere edozeinek egiten zituen. Sebastianek upelak montatzen ikasi zuen. Nola egiten zuten kontatzen du.

244. Upeletako seboa (ATG-011/023)

Upelek urte askoan irauten dute zainduz gero. Seboa beti erosi egin izan dute. Seboa egiten zuenak ez zuen kontaktu nahi izan nola egiten zuen.

245. Upelak eta sagardoa garraiatzeko gurdia (ATG-011/024)

Upeletako uztaiak errementariak egiten zituen. Ez omen zen lan zaila. Sagardoa batetik bestera eramateko gurdi berezia egoten zen. Nolakoa izaten zen kontatzen du. Barrika haiek beste lan batzuetarako ere erabiltzen ziren.

246. Basotik enborrak ateratzeko gurdia (ATG-011/025)

Basotik enborrak ateratzeko gurdiak deskribatzen ditu. Timoia nola lotzen zen kontatzen du.

247. Ximaurra edo hondarra ekartzeko gurdia (ATG-011/026)

Galera handia: ximaurra edo hondarra ekartzeko gurdia, atzean gurpil handiak eta aurrean txikiak izaten zituena. Trenarekin izan zuen istripua kontatzen du.

248. Gerraosteko gosea eta errotak (ATG-011/029)

Gerrako kontuak. Beti beldurrez. Gerra ondorean, gosea eta miseria geratu ziren. Artoak salbatzen zituen. Errazionamenduko kartilla erabiltzen zuten. Inguruko errotak itxi egin zituzten. Ikaztegietako errotara bidaltzen zituzten zakuak. Taloa, ogia, boniatoa...

249. Gerraosteko janari eta edariak (ATG-011/030)

Arano eta Goizueta aldeko kontrabandistak etortzen ziren, zakuetan ogiak eta bestelakoak ekartzera. Olinoa eta azukrea gutxi izaten zituzten; txerriaren gantza erabiltzen zen. Ardo gutxi izaten zen etxean. Sagardoa eta bereziki pitarra edaten zuten.

250. Txerriak ezkutatzeko, mozkortu (ATG-011/032)

Txerriak nola ezkutatzen zituzten kontatzen du, sagardoarekin mozkortuta.

251. Sakamantekasa eta beste kontu batzuk (ATG-011/035)

Sakamantekasen kontua gazte zirela ezagutu zuten. Neska-laguntzera joan ziren batean pasatu zitzaiena kontatzen du. Aita eta izebari sorginen kontuak entzuten zizkieten. Eskopeta erabiltzen hasi zirenean, sorgin kontuak bukatu omen ziren. Kalabazak ere jartzen ziren bideetan kandela bat sartuta, giza-burua irudikatuz.

252. Hernaniko hizkera eta ingurukoak (ATG-011/041)

Hernani aldera ez da hizkera aldatzen. Orereta eta Oiartzun aldera aldatzen dela dio. Azpeitiarrei erraz nabaritzen diela esaten du.

253. Osabarekin ikatza egiten (ATG-012/002)

Handia zen etxea, zazpi logelaz hornituta. Hamabi urterekin martxa egin zuen baserritik, osabarekin lan egiteko.

254. Ereñozuko eskola, Errepublika garaikoa (ATG-012/003)

Errepublika garaian Ereñozuko eskolan ibili zen Antonio. Gaizki portatuz gero, zigorra berogailurako egurra txikitzea izan ohi zen. Gerra hasi zenean, ordea, itxi egin zuten eskola. Hortaz, Milagrosan hasi zen eskolan. Arreba moja zuen, eta Nafarroan egon ondoren Bilbora joan zen. Errepublika garaiko eskolan asteen behin egiten zituzten erlijio-ikasketak. Frankismo garaian eskolan "Cara al Sol" eta horrelakoak abestu behar izaten zituzten.

255. Kredoa ez jakiteagatik zigortuta (ATG-012/004)

Dotrina bakarrik eramaten zuen eskolara. Kredoa apur bat bazekien ere, ez zen nahikoa izan, eta maistrak zigortu egin zituen Antonio eta laguna.

256. Gaztetako denborapasak (ATG-012/005)

Hamaika gauza egiten zituzten Antoniok eta lagunek umetan, entretenimendua bilatzeko. Errekan ibiltzen ziren askotan, arrantzan eta jolasten.

257. Arranbidera neskari laguntzera (ATG-012/006)

Ereñozun meza entzun ondoren, Aranoko jaietara joaten ziren koadrilan. Behin, neska bati etxera lagundu zion Arranbidera, eta gero buelta egin zuen Aranora.

258. Anaiak elkarren kontra gerran (ATG-012/007)

Hiru anaiatatik bat nazionalista zen, eta gerrara joan zen kanpora. Beste biak, aldiz, bertan gelitu ziren nazionalisten kontra borrokan.

259. Antonioren bertsoak (ATG-012/009)

Bertso batzuk botatzen ditu Antoniok pasarte honetan, bere bizitzaren nondik norakoaren inguruan.

260. Astigarragako zapatari "xapatero" (ATG-012/011)

Hogeita zazpi urtez baserrian bizi eta hogeita zortzi urterekin Astigarragara ezkondu zen. Hala ere, lehenagotik zapatari lanetan hasia zen Antonio Astigarraga eta inguruetan. Centro Republicano zen lokala hartu eta zapatak egiteari ekin zion anaiak.

261. Takoizko zapatak neurrira (ATG-012/012)

Batez ere mendian ibiltzeko zapatak egiten zituzten anaiak eta Antoniok euren lokalean. Emakumeentzat ere neurrira egiten zituzten zapatak.

262. Lanpostua zapatak egitearen truke (ATG-012/013)

Zapatari izateari utzi eta Donostiako Amara auzoko gas-hornitzaile enpresa batean hasi zen lanean. Arduraduna ezagutzen zuen Antoniok, eta zapatak egiten jarraituko zuela agindu zion, lanpostua lortzeko.

263. Gasaren kontsumoa kontrolatzeko lana (ATG-012/014)

Amarako gas-hornitzaile lantegi batean hasi zen Antonio lanean, eta pasarte honetan egiten zuen lanaren xehetasunak ematen ditu.

264. Farolak banan-banan pizten (ATG-012/015)

Akolitoek elizan bezala, metxadun makil luze handi batekin pizten zituzten Donostiako farolak banan-banan.

265. Ikatza eta galipota trenera bota (ATG-012/016)

Ikatza eta egurra presionatuz galipota nola ateratzen zen kontatzen du Antoniok pasarte honetan. Ondoren, prozesutik irtendakoa biltegi azpian zegoen trenbidera botatzen zuten.

266. Txondorra egiteko prozesua I (ATG-012/017)

Hamabi urterekin hasi, eta bost urtez ibili zen Antonio ikazkin moduan. Ikatza egiteko prozesua azaltzen du pasarte honetan.

267. Txondorra egiteko prozesua II (ATG-012/018)

Hamabi urterekin hasi, eta bost urtez ibili zen Antonio ikazkin moduan. Ikatza egiteko prozesua azaltzen du pasarte honetan.

268. Agoazilari gaiztakeriak (ATG-012/021)

Garai bateko agoazilaz gogoratzen da Antonio. Udaletxean bertan bizi zen hau, eta tranpa bat jatzen zioten atea ireki bezain laster urez bustitzeko. Pregoneroaren kontura ere barre egiten zuten maiz.

269. Hondakinak eta kale-garbitzaileak (ATG-012/022)

Sutarako hautsa izaten zen hondakin nagusia, ez baitzen ia plastikorik erabiltzen. Denek baratza zutenez, baratzerako ongari gisa erabiltzen zuten hauts hau.

270. Aita Beasaindik Astigarragara (ATG-012/023)

Beasaindarra zuen aita Antoniok, Muñagorri baserrikoa. Familiarekin joan zen Astigarragako Tellerira bizitzera, hutsik baitzegoen hau. CAF lantegian egin zuen lan aitak.

271. Inguruko saskigileak eta garai bateko lanbideak (ATG-012/024)

Beizamatar gizon bat famatua zen inguruan, egiten zituen saskiak oso onak baitziren. Denborarekin lanbide hau desagertu egin zen, beste lanbide askorekin batera.

272. Uztarria etxe guztietan (ATG-012/026)

Garai batean etxe guztietan izaten zen uztarri bat, eta ondorioz, inguruan uztargile bat. Bi uztarri mota egoten ziren, bakarkakoa eta binakakoa.

273. Karobia baserrian (ATG-012/027)

Karobia ere ezagutu zuen Antoniok Tellerin, baina beste etxeokoe egindakoa zen. Hau baratzerako simaurrarekin erabiltzen zen, batez ere babarruna ereiteko.

274. Astigarragako harginak (ATG-012/029)

Astigarragan bi hargin zeuden, oso ezagunak biak. Txoritokietan harrobiak zeudela oroitzen du Antoniok. Dinamita erabiltzen zuten orduan harria ateratzeko.

275. Irin bila joaten ziren gauez (ATG-012/031)

Irina egiteko errotara joaten ziren, baina gauez, Francoren lege baten ondorioz errota guztiak itxita baitzeuden. Hogei urteko kartzela zigorra zen errotako itxidura hausten zuenarentzat. Nafarroan lehe hori aplikatzen ez zenez, nafarroako errotetara joaten zen jendea, ezkutuan.

276. Tren bidezko kontrabandoa (ATG-012/033)

Antonio umea zen kontrabandoa bizi zuenean, baina oroitzen du tren geltokira iritsi baino kilometro bat lehenago janariz beteriko zakuak kanpora botatzen zituztela, trena geltokira iritsi orduko kontrabandoaren arrastorik gera ez zedin. Baserrian bitzeak gosea pasatzetik salbatu zituen, ordea, patata eta haragia behintzat bazituztelako.

277. Tabakoa laguntzaren truke (ATG-012/034)

Erretzaile ez zena erretzaile gisa deklaratura, tabakoarekin kontrabandoa egiten zen.

278. Lehenengo asfaltoak (ATG-012/035)

Asfaltoak jartzen hasi ziren garaia gogoratzen du Antoniok. Autorik ez zenez, ez zen ia asfaltozko biderik, eta lo kuluxkak egiten zituzten bide bazterretan.

279. Bertsolari ona izateko baldintzak (ATG-012/037)

Bertsolari ona izateko hiru baldintza bete behar dira Antonioren iritziz: lasaia izatea, baliabideak edukitzea eta ahots ona.

280. Atsolorrak, ospakizun bereziak (ATG-012/039)

Garai batean bertsolariak bertsotan aritzen ziren tokiez ari da Antonio pasarte honetan. Opakizun gehienak etxean egiten ziren, atsolorra eta jaunartzea izan ezik.

281. Zapata ona egiteko hamar ordu (ATG-012/041)

Anaiak eta Antoniok zapatari gisa egiten zuten lana azaltzen du pasarte honetan, zapatak nola egiten zituzten, zein tresna eta material erabiltzen zituzten...

282. Zapaten takoia: ezkutaleku ederra (ATG-012/042)

Anaiak lagun bati zapata batzuk egin zizkion, Ameriketara joan behar zenean takoian gauzak ezkuta zitzaizkion.

283. Emakumeentzat zapata txikiagoak (ATG-012/043)

Moda zela eta, batzuetan emakumeek zuten oina baino zapata txikiagoa eskatzen zuten.

284. Neska bati takoia konpondu zionekoa (ATG-012/045)

Soldadu zela, herrira itzultzeko baimena eman zioten Antoniori, eta San Pedroak ospatzera joan ziren. Dantzan zebilen neska bati takoia puskatu zitzaion, eta ondoko baserri batera eraman zituen Antoniok lagunak eta neskak, takoia konpontzeko.

285. Baserria vs. Kalea (ATG-012/047)

Baserriko jendeak harremantzeko zailtasunak zituela uste zen. Antonioren iritziz, baserrian bakarrik egotera ohituta, herrira jaistea giroz asko aldatzea zen, eta zaila egiten zitzaion baserritarrei girora egokitzea.

286. Baserritarrek euskara garbiagoa (ATG-012/048)

Antionioren iritziz, Astigarragako baserritarrek euskara zailagoa zuten, baina garbiagoa.

287. Inguruko euskara eta euskalkiak (ATG-012/050)

Inguruko euskarak eta berezitasunak aipatzen ditu Antoniok.

288. Kanpaikada motak (ATG-012/052)

Egoeraren arabera kanpaikadak egiten ziren.

289. Perretxiko garaia (ATG-012/053)

Perretxiko, intxaur eta gaztaian garaia bera zela esaten zuen Antonioren amak.

290. Perretxikoak orain gutxiago (ATG-012/054)

Geroz eta perretxiku pozointsu gehiago daude orain.

291. Desagertu diren perretxikuak (ATG-012/055)

292. Bertso batzuk (ATG-012/057)

293. Hamaika pezetako jornala (ATG-013/002)

Santiomendin jaio zen, baserrian. Hamasei urterekin adreilu-fabrikan hasi bazen ere, pinuekin lanean aritu zen lehenago.

294. Goizuetan lasterketa irabazi (ATG-013/003)

Denbora librean korrika eta pilotan aritzen zen. Udaletxe azpiko frontoian ibiltzen ziren pilotan, erositako pilotekin. Goizuetako beste mutiko baten aurka lasterketa egin zuen, eta irabazi egin zion Xantik.

295. Xantik lasterka egindako marka (ATG-013/004)

Xantik egindako denbora oraindik ez du inork hobetu. Galtza luzeak eta kamiseta izaten zen korri egiteko arropa, batzuk alpargata eta abarkekin bertan.

296. Oialumen dantzan (ATG-013/006)

Arrautzak edan egiten zituen Xantik, indarra emateko. Oialumera joaten ziren dantza egitera, baita Txikierrira ere (Oiartzun).

297. Balsean aritzea bekatu (ATG-013/008)

Balsean aritzea bekatua omen zen, eta Xanti urduri jartzen zenez, beste dantzak nahiago izaten zituen.

298. Santiomendiko trintxerak (ATG-013/010)

Gerra hasi zen eguna gogoan du Xantik, belarra banatzen ari baitzen Donostian. Santiomendin trintxerak zeuden, eta bertara joaten zen Xanti edaria ematera.

299. Anaia gerran galdu (ATG-013/011)

Gerra garaian anaia fusilatu egin zuten erreketee. Ama eta Xanti anaiaren bila ibili ziren, baina ez zuten auritu. Azkenean, herriko Guardia Zibilak esan zien gertatutakoa.

300. Txapela gorria jartzera behartuta (ATG-013/012)

Erreketeek Xanti txapela gorria jartzera behartu zuten. Guadalupe eta San Markos aldean lurra erabat zulaturik zegoen, bertara gorputzak botatzeko.

301. Hiru fusilamendu ikusi (ATG-013/013)

Arrebarengana Hernanira zihoala, hiru gizon nola hiltzen zituzten ikusi zuen Xantik.

302. Komuneko leihotik ihes (ATG-013/015)

Taberna bateko komuneko leihotik alde egin zuen Xantik batean, tabernako jabea kartzelara eraman baitzuten.

303. Zortzigarren senidea (ATG-013/017)

Zortzi senidetatik gazteena zen Xanti.

304. Neska-lagunaren musua lortzeko komeriak (ATG-014/011)

Neska-lagunarekin hasi zenekoa gogoan du. Lehenengo musua eman zionean, masailekoa jaso zuen. Gerora, musua lortzeko komeriak pasa zituen.

305. Helduak eta gazteak elkarrekin jokoan (ATG-014/013)

Helduak eta gazteak gustura aritzen ziren elkarrekin jokoan lehen.

306. Pilota ala Iberduero? (ATG-014/014)

Mutil gazteak pilotan aritzen ziren beraien artean. Enrike profesional bihurtzeko puntuan egon zen, baina pilota eta Iberdueroko lanaren artean aukeratzeko eskatu zioten; azkenean, Iberduero aukeratu zuen.

307. Umetan, pilotak lortzeko moduak (ATG-014/015)

Umetan pilotan non aritzen ziren azaltzen du. Beraiek egiten zituzten harizko pilotak. Astigarragako apaiz batek pilotak ematen zizkion noizean behin Enrikeri.

308. Amak hartu beharreko erabaki gogorra (ATG-014/020)

Ama Parisen jaio zen eta ez zen ohitu Astigarragako bizimodura; horregatik, alde egin zuen. Alabarekin joan zen Bartzelonara, baina aita alabaren bila joan eta azkenean Astigarragara ekartzea lortu zuen. Gerora, amak Astigarragako udaletxera idazten zuen seme-alabengatik galdezka.

309. Gaztetako musika eta arropa (ATG-014/024)

Musika entzuteko, jai arratsaldetan, baserri batera joaten ziren. Han, dantza egiten zuten, eta gustura aritzen ziren. Alpargata urdinak erabili zituen gehienbat gaztetan. Gabardina galdu zuenekoak gogoan du.

310. Bizikletak aurrerapena zireneko garaia (ATG-014/025)

Lehen oinez, zaldiz, gurdiz... ibiltzen ziren gehienak. Gutxik zeukaten bizikleta garai hartan; eta haiek ere nola-hala moldatzen ziren bizikleta zenbait bidetatik eramateko. Lehengo bideei buruz hitz egiten du.

311. 1977an ur-korrontea ekarri zutenekoa (ATG-014/027)

1977an ekarri zuten ur-korrontea Santiagomendira auzolanean. Lehenago, ura menditik ekartzen zuten, baina udan agortu egiten zen.

312. Gabonetako janaria erosteko egindako bilketak (ATG-014/028)

Landarbasoko kobazuloetara joaten ziren "basarratsen" bila Gabonetan, geroago Donostian saltzeko: nori eta zertarako azaltzen du. Gorostia ere eramaten zuten Donostiara. Diru harekin, janari berezia erosten zuten, etxean Gabonak ospatzeko.

313. Amonaren janzkera (ATG-014/033)

Amonaren janzkerari buruz hitz egiten du: arropa ilunak, mantala, oinetakoak...

314. Martuteneko harrobiko langile (ATG-015/001)

Hamabi urterekin harrobian lanean hasi zen Enrike. Langileei ardoa ematea zen bere lana, pintxe moduan. Ateratako harria hormigoia egiteko erabiltzen zen gero.

315. Hondarra ateratzeko lana (ATG-015/002)

Loiolan aritzen zen lanean, hondarra ateratzen. Lan arriskutsua izaten zen hau, eta mareak oso ondo kontrolatzea beharrezkoa izaten zen.

316. Gauzak ilbeheran egiteko ohitura (ATG-015/003)

Gaur egun askotan errespetatzen ez bada ere garai batean ohitura zen txerri-hilketa, sagardoa etab. ilbeheran egitea.

317. Loiolako harrizko etxean (ATG-015/005)

Hondarra ateratzen lanean egon zen Enrike, Loiolako harrizko etxe bakarrean. Marea txarra zenean, ordea, Santa Barbarara eramaten zuten karobiarekin lan egitera.

318. Karobiarekin lanean (ATG-015/006)

Karobiarekin nola egiten zuen lan kontatzen du Enrikek.

319. Abere-hiltzaile lanetan (ATG-015/008)

Harrobian eta hondarra ateratzen ibili ondoren, abere-hiltzaile gisa hasi zen lanean. Osaba tratularia zuen, eta honek erakutsi zion lana. Diru kontuak zirela eta utzi egin zuen lana, Iberdueron lanean hasteko.

320. Iberdueroko lana, arriskutsua (ATG-015/009)

Iberdueron hasi zenean, bazkaltzeko dirua ematen zieten. Bertan gelditu zen jubilatu zen arte. Iberdueron hasi zenetik, gauzak asko aldatu ziren. Hasiera batean orduak eta orduak pasatzen zituzten zutabeetan. Makinak erabiltzen geroago hasi ziren.

321. Eskuz egitetik makinaz egitera (ATG-015/010)

Elektrizitatea jartzeko material guztia astoz eta zaldiz mugitzen zuten batetik bestera.

322. Gerra Zibila Astigarragan (ATG-015/012)

Hegazkin bat pasatzen zen Parisetik zetorrena, eta denak beldurrez egoten ziren herrian. Santiomendin trintxerak egon zirela oroitzen du Enrikek, eta inguruko abere guztiak Enrikeren etxera eraman zituzten.

323. Tiroengandik ihesi (ATG-015/014)

Karlistak herrian sartu zirenean oso ohikoak ziren tiroak. Behin, baserri baten azpian ezkutatu behar izan zuten Enrikek eta lagunek, tiroz bota ez zitzaten.

324. Kanpaiak abisu moduan (ATG-015/016)

Arriskua zenean, kanpaiak jotzen zituzten, herritarrek arriskuaren berri izan zezaten.

325. Zer da euskara zuretzat? (ATG-015/018)

Euskara oso maite du Enrikek. Astigarraga euskalduna bada ere, gerran euskara galarazteak asko eragin zuen honen erabileran. Cara al Sol abestu behar izaten zuten.

326. Lanean ezin euskaraz hitz egin (ATG-015/019)

Laneko arduradunak euskaraz hitz egitea galarazten zion Enrikeri, nahiz eta Enrikek gaztelariarik ez ondo jakin.

327. Enrike estraperloan (ATG-015/020)

Zuhaitzera lotzen zuten kontrabandoan ekarritakoa. Txekorrak estraperloan hiltzen ere asko aritu zen, galarazita baitzegoen hau. Ganadua markatu egiten zuten, eta markatzeko zigiluak lapurtu egiten zituzten inspektorea ez konturatzeko. Haragia saski handitan eramaten zuten, letxugaz estalita.

328. Osabak kontrabandoan harrapatu zuen (ATG-015/022)

Osabak ere estraperloan saltzen zuenez, Enrikeren berri eman zion osabari haragia erosten zionak. Ogi bila ere Goizuetara joaten ziren, bidean Goardia Zibilak ateratzeko beldurrez.

329. Txekorrak Guardia Zibilari kendu (ATG-015/023)

Kontrabandoan pasatako txekorrak topatu zituen Enrikek. Guardia Zibilek txekorrak kontrabandistei kendu, baina kontrabandistek atzera kendu zizkieten txekorrak, lanbroa sartu zela baliatuta.

330. Gurpil-azalak kontrabandoan (ATG-015/024)

Autoen eta autobusen gurpil-azalekin egiten zuten kontrabandoa.

331. Perretxikotan asko ibilitakoa (ATG-015/026)

Enrikek askotan biltzen zituen perretxikoak. Asko izan dira inguruan perretxiko txarra jateagatik gertatutako istripuak.

332. Ibardueroko ekonomatoa (ATG-016/001)

Gizonak Ibardueron lan egiten zuenez, Ibardueroko ekonomatura joaten ziren hilean behin errazionamenduaren bila, kartilarekin.

333. Baserritarren elkarlana (ATG-016/002)

Gerra garaian elkarlan handia egiten zuten baserritarren artean, janaria trukatzuz etab.

334. Euskaraz egitea galarazita (ATG-016/004)

Gaztelaniaz hitz egiten ez jakiteagatik beldurrez ibiltzen zen Ramoni.

335. Astigarragako euskara (ATG-016/005)

Astigarragako euskara eta beste euskalkien inguruan dihardu Ramonik pasarte honetan.

336. Besamotzaren etxea (ATG-017/002)

Gazteluberrin bertan jaioa. Aitona besamotza zuenez, "Besamotzan etxia" izenez ezagutu izan da etxea. Kaleak izan dituen izenak aipatzen ditu.

337. Gerraosteko bizimodua (ATG-017/005)

Sei behi inguru zituzten. Lehengo bizimoduari buruzko iritzia. Bere aita txerri hiltzen ibiltzen zen kontrabandoan. Zezina nola egiten zuten kontaktzen du. Aranoko errotaraino joaten ziren astoarekin arto-irina egiteko.

338. Aranora lehenengoz joan zenekoa (ATG-017/006)

Pasadizo bat kontaktzen du, Aranora lehenengo aldiz joan zenekoa. Ez zekien Arano non zegoen; gauez joan zen, ilargi betearekin. Iritsi zirenean, bi talo eman zizkieten sardin zaharrekin.

339. Soldadutza Loiolan, lotara etxera (ATG-017/008)

Hiru urte eman zituen soldadutzan, Loiolan. Etxera etortzen zen bizikletaz gaua pasatzera. Kuartelean lo egitera derrigortu zuten zenbaitetan.

340. Mojekin erdaraz ikasten (ATG-017/009)

Soldadutzara joaterako erdaraz bazekien. Mojetan ikasi zuen eta derrigorrean erdaraz egin behar izaten zuten frankismo garaian. Mojak baserrietara joaten ziren barazki eske. Pasadizo bat kontaktzen du. Udaletxean eskola publikoa zegoen.

341. Uztaren zati bat eman ezinda (ATG-017/011)

Artoa ereiteko, lehenengo karramarroarekin pasatzen zen belarra harrotzeko; gero goldea eta harria. Gerra garaian, uztaren ehuneko bat entregatu egin behar izaten zuten. Ezin emanda egon zirenekoa kontaktzen du.

342. Erreketeak sartu zirenekoa (ATG-017/012)

Tiroak entzun zituztenean, ama beraien bila joan zen tabernara. Hurrengo egunean erreketek ikusi zituen. Herriren bat hartzen zutenean, Astigarragan desfilea egiten zuten falangistek eta. Alemaniar batek antolatzen zuen.

343. Astigarragako hildakoak, fusilatuak eta presoak (ATG-017/013)

Gerran izandako hildakoak izendatzen ditu. Fusilatu asko izan ziren Astigarragan; batzuk izendatzen ditu. Lan gogorretara derrigortu zituzten presoak.

344. Apaizen sexuari buruzko aholkuak (ATG-017/016)

Konfesatzera joaten zirenean, ez zuten bekatu handirik izaten. Ezkondu zenean, apaizari zer esan ere ez zuen jakiten. Sexualitateari buruzko aholkuak ematen aritzen ziren.

345. Ezkondu gabe haurdun geratzea (ATG-017/017)

Emakumeek sexu harremanak ez izateko aitzakiak izaten zituztela uste du. Emakumeentzat lotsagarrikeria zen ezkondu gabe haurdun geratzea. Etxetik bidali egiten zituzten.

346. Etxekoen garbitasuna (ATG-017/021)

Emakumeak orain hobeto bizi direla dio. Dutxarik ez zuten etxean, ura bai. Arropak amak nola garbitzen zituen kontaktzen du.

347. Neskak bizikletaz eramaten (ATG-017/023)

Bentaberrira dantzara joaten ziren bizikletaz. Neskak erabiltzen zituzten bizikletan; berotuta joaten ziren mutilak baina dena bekatu zenez, musurik ere ez zieten ematen.

348. Donostiako faroleroak (ATG-017/026)

Ezkundu eta gero, gas-lantegian hasi zen lanean Amaran (Donostian) eta hantxe hartu zuen erretiroa. Farolak gasarekin pizten ziren. Donostian bi farolero zeuden eta farolak ilunabarrean piztu eta goizaldean itzali egiten zituzten. Bizikletaz aritzen omen ziren faroleroak. Nola pizten zituzten kontatzen du. Farolak Donostiako zein auzotan izaten ziren kontatzen du.

349. Sagardotegietan tokan (ATG-017/028)

Bere aitonak sagardoa saltzen zuen, basokadaka. Hamar zentimo ordainduta, hiru edalontzi sagardo hartzen zituzten. Toka aritzen ziren eta sagardoa zeinek ordainduko jokatzen zuten. Ilunben, Antiguan eta beste hainbat lekutan aritzen ziren.

350. Zaborra erre kara edo sutara (ATG-017/030)

Orduan ez zen kale-garbitzailerik izaten; dena erre kara botatzen zuten edo bestela sua ematen zioten. Astigarraga Donostia izan zen garaian, kale-garbitzailea jarri zuten, baita zaindariak ere.

351. Kontrabandistak etxean (ATG-017/033)

Kontrabandoa beti izan dela dio. Goizuetatik ogia ekartzen zuten. Guardia Zibilak bueltara ari ziren bitartean, etxean gordetzen zituzten kontrabandistak. Nola moldatzen ziren kontatzen du.

352. Haragiaren kontrabandoa barazki artean (ATG-017/034)

Baratzeko gauzak plazara eramatea baimendua zegoen. Emakumeek barazki artean haragia nola pasatzen zuten kontatzen du.

353. Baserriko tresnak eskutan (ATG-017/036)

Baserriko tresnak: hauspoa, danbolina, talo-pala, kinkia, laratza eta neskamea.

354. Inguruko herrietako hizkera (ATG-017/038)

Oiartzunen, Goizuetan, Lesakan, Hondarribin desberdin hitz egiten dela dio. Tolosaldean antzera egiten dutela dio.

355. Euskara garbiena Tolosakoa (ATG-017/039)

Tolosakoa omen da euskara garbiena. Ondarroa eta inguruko hizkerak ulertzeko zailtasunak izan ditu.

356. Sagardoa saltzen gaztetatik (ATG-018/003)

Oiarbide baserria nolakoa zen. Sagardotegia Hernanin eta Astigarragan izan zuten. Sagardoa saltzen ibili izan zen baina nahiago zuen beste gauza batzuk ikasteko aprobetxatu izan balu. Zer lan izaten zuen eta nolako giroa egoten zen kontatzen du.

357. Anaiekin inistorra biltzera (ATG-018/005)

Anaiekin lanean aritzen zen baserrian. Garoa ebaki eta bila joaten ziren. Anaia idiekin joaten zen. Etxetik bi-hiru lagun joaten ziren eta mendian jende asko batzen zen.

358. Etxeko fruta saltzera plazara (ATG-018/006)

Fruta asko zeukaten etxean: sagarrak, madariak, muxikak, gaztainak, intxaurrak, pikuak, gereziak... Izebak saltzen zuen plazan fruta eta Manolik dendetara eramaten zuen. Esnea etxez etxe saltzen zuten Donostian eta "guardavino"ek esnearen kalitatea neurtzen zuten.

359. Eguneroko jatorduak (ATG-018/007)

Urte guztian zehar barazkiak saltzen zituzten. Baba txiki beltza, babarruna eta aza jaten zituzten eta arraina ere egunero izaten zuten, izebak Donostiatik ekarrita.

360. Kontserbak (ATG-018/008)

Gatzituta mantentzen ziren txerrikiak. Nola kontserbatzen zituzten kontatzen du. Gantzarekin manteka egiten zuten eta harekin ere kontserbatzen zituzten txerrikiak.

361. Oiarbideko sukaldea (ATG-018/009)

Oiarbideko sukaldea deskribatzen du: beheko sukaldea eta labetxoa zituen. Gerora ekonomika jarri zuten. Laratza eta neskamea izaten ziren, eltzea sutan jartzeko. Sagar erreak nola egiten zituzten azaltzen du.

362. Gerraostean, artoa azukrearekin eta esnearekin (ATG-018/010)

Gerraostean, makina bat jarri zuen bere aitak artoa txikitzeko. Azukrearekin eta esnearekin nahastuta jaten zuten. Azukrea, ogia eta olioak erosten zituzten. Gainontzekoa etxean egiten zuten.

363. Igandeetako menua eta bokarta garaia (ATG-018/011)

Igandeetan salda egiten zen haragia, porrua, perrexila eta saldarekin. Haragi harekin otordua prestatzen zen. Bokarta garaian, saltsan jartzen zuten meriendatzeko eta tolarera joaten ziren lanera.

364. Santiago eguneko menua (ATG-018/012)

Santiago egunean, zopa, garbantzua txorixoarekin eta oilasko errea jaten zituzten. Postrea arroz-esnea izaten zen. Zeinek hobe prestatu lehian aritzen ziren. Egunerokoan fruta izaten zen postrea. Izebak plazatik naranjak ekartzen zituen eta estimatu egiten zuten.

365. Gobara, kuela eta lixiba (ATG-018/013)

Zortzi egunean behin garbitzen zuten arropa. Eskuz xaboitu eta "kuela" izeneko ontzian beratzen uzten zuten arropa. Kuela betetakoa, sutako hautsarekin berotutako ura botatzen zuten eta nahaste ura arropen gainetik botatzen zitzairen. Ur hori, lixiba, ontziaren azpikaldeko kanilatik batu eta berriz berotzen zuten. Horrela, behin eta berriz sei bat aldiz. Arropa zuritzeko egiten zen hori. Hurrengo egunean arropa jotzen zuten erreko askan, erroa zabaldu eta eguzkitan bildu.

366. Eguzkia arropak zuritzeko (ATG-018/014)

Belazean arropak zabaltzea kale aldeko ohitura zen. Haurrak izandakoa, haien arroparekin egiten zuten hori. Arropak mantxaren bat izanez gero, ondo xaboitu eta eguzkitan eduki behar izaten da. Gobara barruko arropak, maindireak... izaten ziren, arropa zuria.

367. Gizonezkoen eta emakumeen arropak (ATG-018/015)

Koloretako arropa mutilena izaten zen, mahoizko galtzak eta alkandora. Emakumeek mantala erabiltzen zuten beti: etxeko lanetarako ogitik beherakoa eta plazarako motza. Amak bata zuri-beltza eta mantal beltza jutzen zuen eta kalerako beti beltzez, gazte alargundu baitzen.

368. Hilekoarekin erabiltzeko zapiak (ATG-018/016)

Gurasoen garbi hitz egiten zuten beraiekin. Amak hilekoaren inguruko azalpenak eman zitzaizkien. Zapiak nola jarri eta garbitu behar ziren azaltzen du.

369. Santiagotarako etxe garbiketa (ATG-018/018)

Santiago jailetarako, etxea garbitu eta txukuntzen zuten: etxea zuritzen zuten, koadroak eta kurtinak garbitzen ziren, leihoak ere bai, lurra fregatu eta argizaria ematen zuten. Garbiketa handia egiten zuten.

370. Menda-belarra logeletan (ATG-018/019)

Menda-belarra bildu eta logeletan usain ona egon zedin erabiltzen zuten. Arkakusoak uxatzeko balio zuela esaten zuten. Egunero pasatzen zuten menda ohean.

371. Otearen lorea eta huntza xaboi modura (ATG-018/020)

Burua garbitzeko otearen lorea erabiltzen zuten: ura berotu, loreak bertan igurtzi eta aparra ateratzen zuen. Arropa beltza garbitzeko huntzaren ura erabiltzen zuten: huntza irakin, zapiarekin iragazi eta barrinori batera botatzen zuten. Apar handia ateratzen zuen.

372. Pareta-belarra, pasmo-belarra eta berbena-belarra (ATG-018/022)

Sendabelarrak. Pareta-belarra gibela garbitzeko izaten da. Pasmobelarra zaurientzat edo ebakuntza egin aurretik. Berbena-belarrarekin enplastuak egiten dira, zauri edo ebakiletarako edota bronkioetarako.

373. Berbena-belarrarekin sendatzen (ATG-018/023)

Alabari sinusitisa sendatzeko berbena-belarra erabili zuenekoa kontatzen du. Enplastuak zenbat denborak eduki kontu izan behar da, kalte egin dezakeelako.

374. Pixa-belarra eta arto-bizarrak (ATG-018/024)

Plazara joaten hasi zenean, hoztu egin zela eta gernuko infekzioa sendatzeko pixa-belarra erabili zuen. Arto-bizarrak ere erabiltzen dira.

375. Plantina belarra eta baratxuriak (ATG-018/025)

Plantina belarra zizareentzat erabiltzen da infusioan. Amak baratxurizko lepokoa jartzen zion Manoliri.

376. Iodo-belarra (ATG-018/026)

Iodo-belarra karetxentzat erabiltzen zen.

377. Malma-belarra, mantzanila eta azeri buztana (ATG-018/027)

Malma-belarra behiei ematen zitzairen, umea egin eta gero. Lore morea izaten du. Mantzanila erabiltzen zuten tripako minarentzat. Azeri buztana pixa egiteko erabiltzen zen.

378. Osina eta larra sendabide (ATG-018/028)

Osinaren ura katarroarentzat hartzen zen. Adineko jendeak osina erabiltzen zuen odola mehetzeko: zainak irakin eta hurrengo goizean ura hori hartzen zen. Beherakoarentzat larraren puntak erabiltzen ziren.

379. Azaren hostoak sendagarri (ATG-018/029)

Azaren hostoa enplastuetarako erabiltzen zen, azaleko granoentzat. "Dotorzikin" sasimedikuaren aholkuak aipatzen ditu.

380. Bostorria almorranentzat (ATG-018/030)

Bostorria almorranentzat erabiltzen da. Belar asko erabiltzen ziren sendatzeko.

381. Erdararen garrantzia bere gazte garaian (ATG-018/032)

Etxean hitz egiten zutena zen euskara. Aitak anai-arreben artean erdaraz aritzeko esaten zien, ikas zezaten. Frankismo garaia zenez, beharrezkoa zuten erdaraz jakitea sagardotegian aritzeko. Sagardozaileen gremio sortu zenean, bera joaten zen bertara. Emakume bakarra izaten zen gizon artean eta dena erdaraz egiten zen han. Kaleko familietan gertatu zen gurasoek erdaraz jakin ez eta seme-alabek erdara besterik ez.

382. Hizkera aldakorra herritik herrira (ATG-018/034)

Herri batetik bestera asko aldatzen dira hitzak. Bere amak Tolosako hizkera garbiena zela esaten omen zuen. Tolosatik Astigarragara hitzak aldatzen dira.

383. Ergobia markesaren esku (ATG-019/002)

Astigarragako markesaren maizterra zen Inaxioren familia. Lursail asko zituen markesak Ergobia aldean, baina bere seme-alabek saldu egin zituzten azkenerako.

384. Bederatzi senideko etxea (ATG-019/004)

Bederatzi senidetan hirugarrena zen Inaxio. Hamalau urterekin ikasi zuen ofizioa, baina etxean ere lan egin behar izaten zuen, barazkiak saltzetik bizi baitziren baserrian.

385. Inaxio errementaria (ATG-019/005)

Errementari ofizioa ikasi zuen Inaxiok hamalau urterekin. Soldadutzatik itzulitakoan ere lan horri ekin zion, eta geroago aluminioarekin lanean ibili zen.

386. Burnia lantzea eta sutegiak (ATG-019/006)

Burnia nola lantzen zuten azaltzen du Inaxiok pasarte honetan.

387. Maisu-maistrak, erregela eskuan (ATG-019/008)

Moja eta maistrek euren lana arintzen zuten ahal zuten guztietan. Errespetu handia izaten zitzairen hauei, erregelaz zigortzen baitzituzten ikasleak. Neskak eta mutilak bananduta egoten ziren beti eskolan.

388. Gerra hasi zen eguna (ATG-019/009)

Gerra hasi eta soldaduak Astigarragan sartu ziren eguna oroitzen du Inaxiok. Larunbata zen, eta eskolara bidean zihoala, balen hotsa entzun zuen. Etxera abiatu zen berriro.

389. Emakumeak politikatik at (ATG-019/010)

Batez ere gizonak izaten ziren politikan sartuta zeudenak. Herritik ihes egindakoak ere izan ziren batzuk Astigarragan.

390. Soldaduak txandaka egoten ziren herrian (ATG-019/011)

Inaxioren hemeretzi urteko osaba gerrara joan zen, soldadu. Noizean behin, etxera idazten zuen haren berri emateko.

391. Hitzaldi politikora joatea behartuta (ATG-019/012)

Soldaduek herri berri bat hartzen zutenean, hitzaldi politikoa egiten zen, jende askoren borondatearen kontra. Kontra zeuden hauek, askotan, behartu egiten zituzten hitzaldira joatea.

392. Gerraosteko egoera: gosea, baina janaririk ez (ATG-019/014)

Lan gutxi zegoen gerraostean, baina gosea, aldiz handia. Janaria oso kontrolatuta egoten zen errazionamenduaren bidez. Ogia estraperloan erosi behar izaten zen.

393. Aranoko errotara irin bila (ATG-019/015)

Abere-hiltzea debekaturik zegoen gerraostean, baina etxean txerriak eta hegaztiak izateari esker egin zuten aurrera Inaxiok eta familiak. Artoa ehotzera errotara joan behar izaten zuten, gero taloa egiteko.

394. Umetako jolasak (ATG-019/018)

Umetan denbora pasa kaniketan, astoketan... jolasean aritzen ziren.

395. Alikateen jolasa (ATG-019/019)

Alikateen jolasa zertan zetzan azaltzen du Inaxiok.

396. Pilotan ibiltzeko edozein pareta (ATG-019/020)

Pilotan asko ibiltzen ziren gaztetan, frontoirik ez eta etxe bateko paretan. Futbolean ere aritzen ziren pilota zahar batekin.

397. Mutilei hika, neskei zuka (ATG-019/021)

Hiketa erabiltzeko oso gertukoa izan behar zuen besteak. Hala ere, neskengana zuzentzeko zuketa erabiltzen zuten.

398. Aingira bila errekan (ATG-019/022)

Erreka hurbil zutenez, askotan bertara joaten ziren umetan jolastera. Hamaika jolas ezberdin egiten zituzten.

399. Hernaniko zinema (ATG-019/023)

Neskak eta mutilak bananduta egoten ziren beti, hamazortzi bat urte bete zituzten arte.

400. Dantza lotua bekatu (ATG-019/024)

Garai batean dena bekatua zela dio Inaxiok, baita neskak etxera laguntzea ere.

401. Iganderoko meza (ATG-019/026)

Igandero joaten ziren mezara, eta umetan bezperetara ere bai.

402. Mendizaletasuna lagun (ATG-019/027)

Lagun bati esker hasi zen mendian ibiltzen Inaxio, eta hasi zenez geroztik horretan jarraitu zuen.

403. Ergobiarako joera (ATG-019/029)

Astigarragako gazte jendea Ergobiara joan ohi zen.

404. Astigarraga Donostiaren parte (ATG-019/030)

Garai batean Astigarraga Donostiaren zatia bazen ere, Donostia ez zen Astigarragaz ia arduratzen.

405. Kale-simaurraren kudeaketa (ATG-019/031)

Ia hondakinik ez zen sortzen, baina sortzen zenari kale-simaurrea deitzen zioten. Errekara gauzak botatzeko ohitura handia zen, kristalak, zaborra...

406. Inguruko euskarak (ATG-019/033)

Gaur egungo euskara eta garai batekoa berdinak ez diren arren, Inaxiori gustatzen zaio oraingoa. Oiartzun eta Goizueta aldeko euskara ezberdin sumatzen ditu.

407. Jaiotetxea nolakoa zen (ATG-020/002)

Bere jaiotetxearen deskribapena egiten du.

408. Upelaren inguruko bizimodua (ATG-020/006)

Arropa guztiak ez ziren berdin garbitzen. Orduan sagardotegi asko izaten ziren Astigarragan eta beraiek ere bazuten upela, lehengusu batzuek betetzen zutena. Jendea sagardoa edatera etortzen zen; eginbeharrak egin eta zapi zuri zikinduak mendian biltzen zituen hurrengo egunetan. Amonak sutara botatzen zituen, ordea.

409. Plazako giroa (ATG-020/010)

Berak Donostian plazan bertan gosaltzen zuen etxetik eramandako esnea. Esnea berotzen aritzen zen emakume bat bazen plazan; egunkariak eta loteria ere saltzen zituen. Plazara joaten ziren baserritarren artean pobreak eta aberatsak, denetik zegoen.

410. Eskolarako bide "debekatua" (ATG-020/015)

Eskolan 4 urterekin hasi zen eta aldameneko emakume batek eramaten zuen hara hasieran. Gerora bakarrik ikasi zuen bidea, debekatua zegoen bidetik ere "lau saltotan" joanez. Harrapatu zuten batean zigortu egin zuten, baina alde egin zuen mojak ohartu gabe.

411. Mojekin arreoaren prestatzen (ATG-020/016)

Mojak zintzoak ziren erakusten. Josten eta bordatzen ikasi zuen, besteak beste, eta arreoarako jaso zituen han egindako zenbait gauza. Arreoaren zerez osatu behar izaten zen azaltzen du.

412. Arreoaren ezkontzako egunean (ATG-020/017)

Arreoaren gurdian ekarri zion amari bere anaiak. Jendeak ezkongaiaren arreoaren ikus zezakeen bide horretan.

413. Ezkon-bidaia luzea (ATG-020/019)

Beren ezkon-bidaia egiteko aitzak eman zien dirua eta amaginarreba ez zen pozik bidaia hain luzea egin zutelako. Arreoaren erakusketan jarri zuen. Lehenengo gauerako kamisoia ere arreoan zegoen.

414. Arreoaren erakusten (ATG-020/024)

Arreoaren ezkondu aurretik erakusketan jartzen zuten. Arreoaren ikustera amaginarreba, bere alabak, auzokoak... etortzen ziren. Arreoaren ezkondu aurretik etxera ekartzen zen, egun batzuk lehenago.

415. Merienda Ergobin (ATG-020/025)

Ezkontzaren inguruko "errefreskua" edo merienda izaten zen. Ergobin egin zuen lagun eta senideekin. Zer afari jarri zuten eta zenbat jende joan zen aipatzen du.

416. Izeba-osabak Ameriketari (ATG-020/027)

Bere izeba zergatik joan zen Ameriketara azaltzen du. Hara iritsitakoan, jendea portura joaten omen zen lana eskaintzeko. Behizain egon ziren izeba eta osaba Ameriketari.

417. Garai bateko haurdunaldiak eta jaiotzak (ATG-020/029)

Garai bateko jaiotzak nolakoak ziren azaltzen du. Haurdunaldian lana egin beharra izaten zuten azken egunera arte. Medikuari deitu behar izan zioten bere lehen semea jaiotzeko. Orduan medikua Donostiatik ekarri zuten.

418. Erditu osteko zainketak (ATG-020/030)

Plazenta ateratzeko lanak okerragoak ziren. Oilaskoa eta jereza ematen zieten amari erditu ostean indartzeko. Esnea emateko arazoak izan zituen eta Oartzungo partera bati esker arazoa konpondu zen. Titia emateko arazoak baziren, beste erremedio batzuk bilatu behar ziren.

419. Amaginarreba medikuari laguntzen jaiotzak zirenean (ATG-020/031)

Orduan esnea ateratzen ibiltzen zen jendea bazen, bere ezagueran emakumeak. Bere amaginarreba ere medikuari laguntzen ibiltzen zen jaiotzeko garaian: behin medikua baino lehen konturatu zen jaioberri baten arazoaz.

420. Kubara joan zenekoa (ATG-022/004)

Kubatik etorritako lagun batzuk egin zituen behin, eta haiekin harremanetan, Kubara joateko animatu zuten. Haien laguntzarekin, Kubara joateko paperak prestatu zituen. Kuban mekaniko-lanetan hasi zen. Halako batean, Fidel Castro sartu zen boterean, eta orduan sistema ekonomikoa aldatu egin zen.

421. Kubatik Astigarragara itzultzeko erabakia (ATG-022/006)

Kuban emakume batekin ezkondu zen. Orduan egoera zaildu egin zen, Estatu Batuek blokeatu egin baitzuten Kubarekiko harremana. Urteak pasa ahala, gauzak estuago jarri ziren eta azkenean Astigarragara itzultzeko konbentzitu zituen emaztea eta amaginarreba; 1968an itzuli ziren.

422. Errurik gabe ihes egin behar (ATG-022/016)

Nazionalak indarra hartzen joan zirenean, jende askok ihes egin zuen Astigarragatik. Baziren Frantzia eta Belgika aldera zabaldu zirenak ere. Batzuk itzuli ziren, baina besteak ez. Errurik gabeko jendea ibili zen ihesi; ideia desberdinak izateagatik hil zituzten mutil gazteak gogoan ditu. Askotan inbidiagatik hil zuten jendea.

423. Gerrak ematen duen boterea (ATG-022/017)

Astigarragan, gerra garaian, bertakoek esan zieten kanpokoei nor hil; boteretsu sentitzen omen ziren. Mutil gazte batzuek ozta-ozta egin zuten ihesi heriotzatik.

424. Errentako kapoien neurriari begira (ATG-023/007)

Valdespinako markesaren lursailetan garotan ibili nahi izanez gero, lanarekin ordaintzen zuten. Etheen errentak ordaintzeko, ordea, abenduan ordaindu behar izaten zen. Maizterrek kapoiak ekartzen zituzten markesarenera. Neurri onekoak ez baziren, markesak itzuli egiten zizkien, txikiak zirela-eta.

425. Valdespinako markesen etxeak (ATG-023/010)

Valdespinako markesek etxe ugari zituzten errentan emanda.

426. Apaizen engainuak (ATG-023/011)

7 apaiz ezagutu izan ditu Astigarragan. Apaizek ondo engainatu zituztela uste du.

427. Pelaioekin eta Fletxekin korneta jo behar (ATG-023/013)

Pelaioak eta Fletxak ziren garai hartan (erreketeak eta falangistak); 13 urte zituela, Nazionalek Santander hartu zutenean, desfilea korneta jotzera ekarri zuten Joxe Antonio. Pelaio eta Fletxen desfileetara nahitaez joan behar izaten zen, bestela seinalatu egiten zuten eta. Orduko uniformeak nolakoak ziren azaltzen du.

428. Gerra hasi zenean, pilotan jokatzeko (ATG-023/015)

Gerra hasiera gogoan du: uztailearen 18an hasi zen, eta pilota-partidua jokatu zuen, gerra hasi zeneko abisua ematera etorri baino lehen. Lehen, jende asko joaten zen pilota-partiduetara; Alberto Gurutzeagak antolatzen zituen txapelketak.

429. Harri-apustuan hautsitako marka (ATG-023/019)

Harri-apustuan ibilia da Joxe Antonio. Beraiek hautsitako markari buruz hitz egiten du.

430. Harri-apustuetako "dopping" eta arauak (ATG-023/020)

Lehen, drogarik ez zen, eta ardoarekin konpontzen ziren "dopping" egiteko. Lehengo harriak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Ordu erdi irauten zuen harri-apustuak.

431. Harri-apustuetako tranpa (ATG-023/021)

Behin, harri-apustuetan egindako tranpa kontatzen du.

432. Apustuetako giroa lehen (ATG-023/022)

Lehen, garai batean, Astigarragan, diru asko jokatzeko zen harri-apustuetan. Apustuetan dena galdu zutenei buruzko esanak aipatzen dituzte. Estropadetan 4-5 milioi jokatu izan duten lagunak badauzka Joxe Antoniok. Apustu-giro handia zegoen lehen Astigarragan.

433. Umetan arkupeetan, eta gaztetan sagardotegietan (ATG-023/024)

Umetan, arkupeetan egoten ziren denborapasa. Apretak puskatzen zituztenean, etxean errieta egiten zieten, ez baitzegoen berriak erosteko

dirurik. Gazteak zirela, musean ere jokatzeko zuten, sagardotegietan eta. Lehen jende asko etortzen zen inguruko herrietatik Astigarragako sagardotegietara. Upela ireki, eta bi egunean bukatu izan dute.

434. Aitonaren jenio txarra eta babesa (ATG-023/031)

Bezperak zirenean, etxera egiten zuen alde Joxe Antoniok. Behin, apaizak astindu ederra eman zion horregatik; etxera iristean, amak ere bai. Aitona enteratu zenean, ordea, apaizari egurra ematera joan zen.

435. Beizamatik Astigarragara (ATG-024/002)

Aita Beizamakoa zen, saskigilea. Eta Astigarragan familiak tailer bat jarriko zuela eta, bertara joan zen bizitzera.

436. Poliomieltis gaixotasuna (ATG-024/004)

Anaia txiki bat hil egin zizaion Maria Jesusi "polio" edo poliomieltis gaixotasuna zela eta. Egon ziren beste kasu batzuk Astigarragan.

437. Apaiztegiberri etxea (ATG-024/005)

Apaiztegiberri etxea nolakoa zen azaltzen du Maria Jesusek. Garbitasunak egiteko eskuz egiten zuten dena.

438. Moja eskola (ATG-024/007)

Moja eskolara joan zen Maria Jesus. Frankistak ziren mojak, eta ezin izaten zuten euskaraz hitz bat ere egin.

439. Eskolan abesti elizkoiak (ATG-024/009)

Ez zioten Francori abesten, mojak frankistak ziren arren. Eskola publikotan aldiz, bai.

440. Markesak ihes egin zuenekoak (ATG-024/010)

Gerrak bere marka utzi zuen Astigarraga herrian. Maria Jesusek oroitzen du soldaduek herriko bikarioa atxilotu zutela, izurrgarritzko zarata egin baitzuten. Markesaren etxean gordetzen ziren herritarrek, gerratik babesteko.

441. Aitak babarruna ezkutatu (ATG-024/012)

Aitari familiak baserriko babarruna ematen zion, eta honek etxera eramaten zuen tranbian, errege sagarren azpian.

442. Jostun bizimodua (ATG-024/014)

Hamalau urterekin eskola utzi zuen, eta jostun joan zen Donostiako tailer batera. Hogeita bat urte bete zituenean, bere kontura jarri zen lanean jostun gisa. Lan mordoa izaten zuen, eta bi nesken laguntzaz egiten zuen dena. Ezkontzako soinekoak egiteagatik mila pezeta irabazten zituen Maria Jesusek.

443. Umeentzat apaindurak (ATG-024/016)

Alabaren haurdunaldia gaizki pasa zuen, baina ongi jaio zen alaba. Semea ere bai. Garai batean umeentzat egiten ziren apaindurak azaltzen dizkigu Maria Jesusek.

444. Sexuaz ez zen orain bezala hitz egiten (ATG-024/018)

Sexu kontuez errespetuz eta diskrezioz hitz egiten zuten.

445. Bataiorako arropa berezia (ATG-024/019)

Garai batean haurrak bi edo hiru egun zituenean bataiatzen zen.

446. Heriotza gertatzen zenean (ATG-024/021)

Norbait hiltzen zenean egiten zituztenak azaltzen ditu Maria Jesusek.

447. Entierro motak (ATG-024/023)

Diruaren arabera entierroak egiten ziren garai batean.

448. Mezatik ihes (ATG-024/026)

Maria Jesusek, ahal zuenean, bezperetara joan beharrean Hernaniko zinemara egiten zuen ihes.

449. Kalea vs. baserria (ATG-024/028)

Hernani eta Donostia aldera joaten ziren zinemara eta dantzara. Oialumen baserritar jendea biltzen zen batez ere, eta giro hori ez zitzaion Maria Jesusi gustatzen.

450. Donostian gehiena erdaraz (ATG-024/030)

Donostian ez zuen jende euskaldunik ezagutu ia.

451. Gurasoei zuka (ATG-024/032)

Berorika ez zuen ikasi Maria Jesusek. Gurasoei zuka egiten zien, eta senideei hika.

452. Seguratik Astigarragara bizitzera joateko erabakia (ATG-025/002)

Gurasoak Segurakoak ziren, Astigarragara Borda baserrira bizitzera etorritakoak. Izan ere, hango baserriko nagusia gaiztoa zen. Aitona Ameriketara izandakoa zen, nortasun handiko gizona, hitzekoa. Aitonak nagusiari aurre egin; eta, egun batetik bestera, Astigarragara joatea erabaki zuen.

453. Borda baserrira iritsi eta txukundu egin zutenekoa (ATG-025/004)

Antonioren familia Seguratik etorri zen Astigarragara, Borda baserrira. Baserria txukundu, garbitu eta zuzendu egin zuten. Garoa bakarrik falta zitzaion baserriari.

454. Urdaburuko harriaren kondaira (ATG-025/005)

Baserrirako garoa Urdaburutik ekarri behar izaten zuten. Urdaburuko harriari buruzko kondaira kontatzen du.

455. Urdaburura idiekin igotzeko sistema (ATG-025/008)

Urdabururaino joaten ziren beraiek garo bila. Idiekin joaten ziren hara, goizean goiz. Idien atzean, gurdia zegoen; eta, gurdiaren atzean erantsita, narra.

456. Iturraldeko aldapa igotzeko lanak (ATG-025/009)

Iturraldeko aldapan, arazoak izaten zituen jendeak, ganaduak ezin izaten baitzuen aldapa hura igo. Garai hartan, asko laguntzen zioten elkarri.

457. Idi pare ona edukitzearen abantaila (ATG-025/010)

Lehen, norbait ezinean ikusita, gizalegez, lagundu egiten zioten. Idi pare ona zeukaten beraiek etxean, eta inguruko baserritarrei lurra lantzen laguntzeko erabiltzen zituen aitak. Horrela lortu zuten baserria ordaintzea.

458. 1918ko gripe-izurritea (ATG-025/012)

1918an etorri ziren gurasoak Astigarragara, gripearean garaian. Aitak gripea pasa zuen. Jende asko hil zen garai hartan. Gripe oso kutsakorra zen; gripear aurka egiteko, urik ez emateko esaten zuten medikuek. Behin, ura edaten ematen zioten gaixo bati, eta sendatu egin zen.

459. Gaitz kutsakorren aurkako neurriak (ATG-025/013)

Gripe garaian, norbait hiltzen zenean, neurriak hartzen zituzten beste inor ez kutsatzeko: bisitarik ez, gaixoak erabilitako bideetatik ez ibiltzea, hildakoak zuzenean kanposantura eramatea... Tifusarengatik hildako lagunak ere zuzenean eraman zituzten kanposantura.

460. Erlauntza eta erleak (ATG-025/018)

Erlauntzean bizi ohi dira erleak. Haren egiturari eta erleen mugimenduei buruz hitz egiten du. Erlezaintzari buruzko azalpenak.

461. Erle motak eta haien ugaltzea (ATG-025/019)

Erleen familia batean, 6.000-10.000 erle inguru eta erregina bat egon ohi dira. Erle arrak gutxi izaten dira; beste guztiak, erle langileak. Erle motak, nola ugaltzen diren...

462. Erlearen izaeran, elikadurak duen garrantzia (ATG-025/021)

Erleek, erregina sortzeko, zer egiten duten azaltzen du. Ugaltze-prozesuaren nondik norakoak; janariaren garrantzia.

463. Eztia lortzeko jakin beharrekoak (ATG-025/023)

Erlezaintzan, eztia lortzeko kontuan izan beharrekoak azaltzen ditu.

464. Erleek izandako gaitz handiak (ATG-025/027)

Erleek gaixotasun handiak izan izan dituzte. Antoniok ezagutu duen gaixotasunik handiena erleen diarrea izan zen. Hura harrapatuz gero, erle guztiak galtzen ziren. Halako batean, hala ere, sendatu ziren. Gaur egun, berriro gaixo daude erleak: buruan dute gaitza; ez dute etxera itzultzeko bidea aurkitzen.

465. Eztia jasotzeko garai bateko tresnak (ATG-025/030)

Garai batean, eztia jasotzeko ontzi eta tresna bereziak izaten zituzten; nolakoak izaten ziren eta nola erabiltzen zituzten azaltzen du.

466. Errepublika garaiko maisu alproja (ATG-025/033)

Eskolan, maisu errepublikanoa zeukaten, "golfo galanta". Eskolara apenas joaten zen, parranda asko egiten baitzuen. Maisuaren emazteak zaintzen zituen ikasleak. Maisuak makila zeukan, eta ikasleak jo egiten zituen. Behin, makilaren inguruan gertatutako gertaera kontatzen du.

467. Baserria erosteko ordaindutakoa (ATG-025/035)

Baserria erosteko, 22.000 pezeta eta 2.000 erreal ordaindu zuten gurasoek. Garai hartan, diru asko zen hura.

468. "Hamar ilun" jolasa, besteak beste (ATG-025/038)

Eskola garaiko jolasak gogoan ditu. "Hamar ilun" jolasa azaltzen du.

469. Maisu parrandazalea eta errepublikarra (ATG-026/002)

Udaletxeko eskolara joan zen, herriko eskolara. Errepublika garaian, maisua kanpotarra zen, oso parrandazalea. Gela berean, maila ezberdineko ikasleak egoten ziren, garapenaren arabera eserita. Aurreratuenak aurrean, atzeratuenak atzean. Gerra hasi eta desagertu egin zen maisua. Honen ordez, nafarroako maisu bat joan zitzaien. Oso maisu ona omen zen hau. Ikasle aurreratuenek, askotan, atzeratuenei irakasten zizkieten irakatsi beharrekoak, gazteenei.

470. Errepublikaren etorrera (ATG-026/003)

Errepublika ezarri zen egunean eskolarik ez zuten izan, hauteskundeak baitzeuden. Maisua espainiarra zenez, lehenengo gaztelania ikasi behar izan zuten eskolara joateko. Gerra garaian etorri zen beste maisua ere ez zen euskalduna.

471. Hiru politika Astigarragan (ATG-026/004)

Eskola inguruan hiru politikak biltzen ziren, nazionalistak, errepublikarrak eta tradizionalistak. Haien artean haserre egon ohi ziren askotan. Behin karlisten mitin batean egon zen Antonio. Hamaika greba izaten ziren errepublika garaian. Behin greba batean pistoladun gizonak ikusi zituzten.

472. "Pistola edozein umek zeukan" (ATG-026/006)

"Guardias de asalto" zirelakoak egon ohi ziren grebak egiten zirenean, gatazkarik sortu ez zedin. Paisanoz ere ikusi izan zituzten poliziak, pistola alboan. Garai hartan jende askok izaten zuen pistola.

473. Markesak bere apaiza (ATG-026/008)

Errepublikan eskola eta erlijioa banandurik zegoen, erlijioak ez baitzuen lekurik irakaskuntzan. Astigarragan sei apaiz ezagutu zituen Antoniok. Oroitzen du markesak bere apaiza zuela.

474. Astigarragako markesa (ATG-026/009)

Astigarragan betidanik ezagutu da markesa eta haren familia.

475. Markesaren semea, militarra (ATG-026/011)

Markesaren oinordekoa zen seme zaharrena, militarra. Istripuz zalditik erori eta hil egin zen. Gainontzeko semeak herritarren lagunak ziren.

476. Gerra garaia (ATG-026/012)

Astigarragako markesari eta haren familiari ere eragin zion gerrak. Hauek karlistak ziren, eta gero falangearekin batu ziren ofizialki.

477. Gerra hasi zela konturatu zenekoa (ATG-026/014)

Amak egunkaria ekartzen zuen Donostiatik egunero-egunero, eta gerra giroaren berri horrela jakin zuten, Euskal Herritik kanpo lehenengo, eta Euskal Herrian ondoren.

478. Anaia bat gerrara joatetik salbu (ATG-026/015)

Bigarren anaia, tamaia txikikoa izateagatik gerrara joatetik salbu gelditu zen. Anaia zaharrena eta hirugarrena, ordea, gerrara joan ziren. Gutun bidez jakiten zuten etxean haien berri.

479. Santiagomendiko trintxerak (ATG-026/016)

Erreketeak Goizuetatik zetoze jakin orduko, errepublikarrek trintxerak antolatu zituzten Astigarragako Santiagomendin.

480. Gerra Zibila: fusilatzeak eta ihesaldiak (ATG-026/018)

Gerra graian herritik ihes egin zuen jende asko ez zen berriro bertara itzuli, beste batzuk, ordea, gerra amaitutakoan itzuli ziren, pixkanaka-pixkanaka. Gauerdian etxetik atera zituztenak ere baziren Astigarragan, ezkutuan fusilatzeke.

481. Gerra emakumen ikuspegitik (ATG-026/019)

Gizon gehienak gerrara eraman zituzten, eta beraz, herrian nagusiki haurrak eta umeak gelditu ziren, libratutako gizon batzuekin batera. Emakumeak zigortzeko modurik ohikoena ilea moztea izaten zen.

482. Gerra garaiko desfileak (ATG-026/021)

Karlistek herri bat hartzean desfileak eta hitzaldiak egiten ziren, nagusiki alkateak egiten zituen hitzaldiak herriko plazan. Aita nazionalista zuen Antoniok, eta bere bi arrebak Margaritas Carlistas erakundean sartu ziren. aita eramango zuten beldurrez. Antonio, ordea, Pelayos Carlistas erakundean sartu zen.

483. Pelayos Carlistaseko korneta-jole (ATG-026/023)

Pelayos Carlistaseko kide zen Antonio, aita nazionalista baitzuen, eta honen bila joan ez zitezen. Gainera, kide izanagatik soldadutzako instrukzioa egitetik libre geratu zen. Pelayotan bezalaxe, korneta jotzeaz arduratzen zen Antonio.

484. Soldadutzan korneta-jolea (ATG-026/024)

Soldadutza injenieri akademian egin zuen, eta banda militarrekin egiten zituzten entseguak, korneta-jolea baitzen Antonio.

485. Antoniok, lanbide mordo (ATG-026/025)

Soldadutzan sartu arte baserrian egon zen lanean Antonio. Bueltakoan Iberdueron ibili zen lanean, baina istripuz bi lankide hil eta utzi egin zuen lan hau. Txofer moduan ere ibili zen ondoren, eta azkenik mekaniko.

486. Eskopetak entregatu beharra (ATG-026/027)

Hiru eskopeta zituzten etxean hasiera batean, baina gerraren eraginez udaletxean entregatu behar izan zituzten, eta eskopetetako bat erreketen baten esku gelditu zen, beranduago errekuatu egin zuten hau.

487. Ehizara joan zirenekoa (ATG-026/029)

Goizueta aldera joan ziren behin ehizan, Astigarratik oinez irtenda. Hiru egun ehizan eman ondoren, lagun baten tabernatik zintzilik jarri zituzten harrapatutako hogeita hamalau oilagorrak.

488. Ilberria ehizarako onena (ATG-026/030)

Oilagorretarako denborarik onena urriko ilberria izaten da. Hala ere, arrakasta izateko garrantzitsua da oilagorrak egoten diren tokiak jakitea.

489. Oilagorren ehiza (ATG-026/031)

Oilagorren ehiza nolakoa zen azaltzen du Antoniok pasarte honetan.

490. Hegaztiak orain eta lehen (ATG-026/033)

Lehen zeuden baina orain ez dauden txoriak aipatzen ditu Antoniok pasarte honetan.

491. Zer da euskara zuretzat? (ATG-026/035)

492. Euskara lehen eta orain (ATG-026/036)

Euskarazko zenbait hitz berri sortu badira ere, beste zenbait galdu direla aipatzen du Antoniok.

493. Ama ausarta (ATG-027/005)

Ama ausarta izan zen eta bera ez da asko gogoratzen bidaiaz.

494. Gerra garaian ez ziren konturatzen zer ari zen gertatzen (ATG-027/009)

Gerra etorri zenean, ez zuten asko jarraitu. Portaleko koltxoia, gordeta egon zirela momenturen batean... baina ez du asko gogoan. Ez ziren ikaratu. Gose garaia gogoan du.

495. Istorioak entzutea baino nahiago jolas egitea (ATG-027/010)

Ez da inoiz istorio zalea izan. Aspertu egiten zen aitonarekin kontutan; nahiago zuen jostaketan ibili, Mexikotik ekarritako jostailuren bat ere bazuen. Edozer gauzarekin jolasten ziren; loreekin, betunen tapekin...

496. Jolas askotan ibiltzen ziren (ATG-027/011)

Trapuekin egindako panpinekin jolasten ziren; bere anaiak automobil bat ekarri zuen Mexikotik, ontzi handien uztaiekin... "Anikotian" jolasa azaltzen du. Hainbat jolasetan aritzen ziren: txingoka, unetakoak, kromoetan, kaniketan, "arrapazketan", gordeketan, sokasaltoan...

497. Gerra garaiko jostaketak (ATG-027/012)

Jolasteko kantak erdaraz izaten ziren, gaizki esango bazituzten ere. Neskak eta mutilak ez ziren hainbeste elkartzen jolasteko. Gerra garaian bere anaiak eta lagunek txabola bat egin zuten eta bonbaz (harri koskorrez) eraso zuten neskak barruan zirela. Trintxerak egiten ere jolasten ziren mutil koskorrak.

498. Mojen kaperako zapiak egiten zituzten ikasleak (ATG-027/013)

Mojen eskolan ibili ziren eta haien kaperako bordatuak eta gerran apurtutako gauzak berriro egiten ibili ziren hango ikasleak.

499. Parrokiako zapiak josten mojen ikasleak (ATG-027/017)

Ez zuen lan asko egiten etxean. Parrokiara joateko pronto izaten zen beti, eta etxeko lanetan neskamea izaten zuten. Parrokian lan asko egiten zuten gazteek. Markesa-eneko izebarekin josten ibili ziren zenbait neska.

500. 'Acción Católica'n ibili zen (ATG-027/020)

Elizak indar handia izaten zuen orduan. Orain, berriz, kontrakoa. Elizako ospakizunak aipatzen ditu. Elizako koroan ere ibili zen; bi koro izaten ziren. Elizan bakarrik kantatzen zuten.

501. Bezperak eta gero festa ahal zuten lekuan (ATG-027/022)

Bezperak eta gero txistularia izaten zen plazan; beraiek, ordea, Oialumen eta Hernanin ibili ziren. Festetan gehiago ateratzen ziren, baina iluntzerako etxera itzuli behar izaten zuten. Behin berandu egin zitzairen eta etxean kezkatu egin ziren. Gaztetan mutilek etxera laguntzen zituzten neskak.

502. Zutenarekin konformatzen ikasi zuten (ATG-027/023)

Bekatua zen dena eta obeditu egin behar, besterik pentsatu gabe. Ez zitzairen gauza handiegirik tokatzen eta ez zuten gehiagoren ametsik. Zutenarekin konformatzen ziren, arroparekin esaterako. Astigarragan bazen denetarako jendea. Lehengusuen arropak erabiltzen zituzten.

503. Lehenengo eta bigarren jaunartzea (ATG-028/002)

Lehenengo jaunartzerako baino, bigarren jaunartzerako prestatzen ziren umetan, dotrika ikasiz. Apaiza gogorra zela oroitzen du Pilarrek, zigortu egiten zituztela.

504. Etxean emakume mordoa (ATG-028/004)

Garrantzitsua zen emakumeentzat laboreak ikastea, baina etxean lan handia zutenez horretan ematen zuten denbora Pilarrek eta ahizpek. Batzuk zerbitzatzera joan ziren lanera, etxetik kanpo.

505. Gerezi bilketa zuhaitz gainean (ATG-028/006)

Barazkiak eta esnea saltzen zituzten. Gerezi asko saltzen zituzten. Zuhaitz gainean pasatzen zuten eguna gerezi bilketan.

506. Krabelinak saldu (ATG-028/008)

Etxean krabelinak zituzten, eta saldu egiten zituzten barazkiak bezalaxe.

507. Krabelinen landaketa (ATG-028/009)

Krabelinak nola landatzen zituzten azaltzen du Pilarrek pasarte honetan.

508. Ergobiako eskola (ATG-028/011)

Ergobian eskola txiki bat zen, nahasturik joaten ziren bertara ikastera neska-mutilak. Liburu bakarrarekin egiten zuten dena. Maistraren ondoan belauniko jarri behar izaten zuten askotan, bestetan erregelarekin jotzen zien eskumuturretan.

509. Eskolan euskaraz (ATG-028/012)

Eskolan nagisiki euskaraz egiten zuten, bai ikasleen artean eta bai irakaslearekin ere. Ariketak gaztelaniaz zirenean, hauek ulertzeko arazoak izaten ohi zituzten.

510. Mutilak gaueskolara (ATG-028/013)

Mutilek euren formakuntza gau-eskolen bitartez osaten zuten, neskek, ordea, ez. Eskolaren garrantzia lehen eta gaur egun ez da berdina izan.

511. Umetako jolasak (ATG-028/014)

Umetan igandero jolasean ibiltzen ziren. Inguruko baserrietako umeak elkartzen ziren, neska zein mutil, elkarrekin jolasteko. Askotan, jostailu moduan, arbiburua erabiltzen zuten.

512. Arropa errekan garbitzen zuten (ATG-028/016)

Etxean urik ez zuten, eta iturrira joaten ziren ur bila. Arropa ere errekan garbitzen zuten, buru gainean eramanda.

513. Eguraldia asko aldatu da (ATG-028/017)

Garai batean orain baino hotz eta bero handiagoa egiten zuela oroitzen du Pilarrek.

514. Txori-harrapaketa (ATG-028/018)

Eguraldi ona zenean, txorriak harrapatzen ibili ohi ziren, ondoren jateko.

515. Soinekoa jantzita, festara (ATG-028/019)

Koxkorragoak zirenean, soineko polita jantzi eta jaietara joaten ziren igande arratsaldetan. Prestatzen bazen ere, makillatzeko ohiturarik ez zuen Pilarrek.

516. Ile kizkurra zen erakargarriena (ATG-028/020)

Garai hartan erakargarriena ile kizkurra zenez, dantzara joan aurretik ilea erruz apaintzen zuten.

517. Estereotipo ideala (ATG-028/021)

Neska erakargarrienak sendoak izan ohi ziren, eta ez gaur egungo argaltasuna. Indarra zuten neskak ziren ederrenak.

518. Daltzatik buelta iluntzean (ATG-028/022)

Inguruko herrietara joaten zen Pilar dantzatzera, eta iluntzen hasten zenerako dantzatik alde egiten zuen, etxerantz.

519. Astigarragatik Lizartzara (ATG-028/023)

Pentsamoldean itxiagoak zirela sentitu zuen Pilarrek Lizartzan. Bertako bizimodua nola izan zuen azaltzen du pasarte honetan.

520. Ahizpa eta Pilar familia berera ezkondu (ATG-028/024)

Bere gizona obretan aritzen zen lanean, eta festatokian ezagutu zuten elkar. Pilar eta bere ahizpa bat haietako birekin ezkondu ziren.

521. Etxeko arreo (ATG-028/025)

Ezkondu ondoren arreo egin eta ikusgai egoten zen etxeetan, askariarekin batera.

522. Betirako ezkontuta (ATG-028/026)

Behin ezkontutakoan, luzarorako izaten zen, ez zen banantzeko edo dibortziazeko ohiturarik.

523. Lizartza vs. Astigarraga (ATG-028/027)

Lizartzako bizitza desberdina zen, lan gehiago, umeak izatearen ardurak etorri ziren... Giroaren aldetik, tradizioaren eta garai berrien arteko talka bizi zen bertan.

524. Beste herrietako jaiak (ATG-028/028)

525. Astigarragako hizkera (ATG-028/029)

Lizartzan erraz nabaritzen dioten Pilarri bertakoa ez zela, euskaragatik.

526. Aita Rezola porlandegian lanean (ATG-030/003)

Aitak Rezola porlandegian egiten zuen lan Añorgan eta bizikletaz joaten zen hara. Rezolako argindarra nondik lortzen zuten azaltzen du. Aita arduraduna zen Rezolan.

527. Iruñean egin zituen mekaniko izateko ikasketak (ATG-030/006)

Amona hil zenean, Andoni Iruñean zegoen, han ikasi baitzuen mekanika. 250 ikasle ziren han eta hainbat lanbide ikasteko aukera zegoen. Ikastetxe pribatua zen hura. Handik mekaniko-maisu tituluarekin atera zen.

528. Olaztiko porlandegian lanean (ATG-030/007)

Iruñean mekaniko-ikasketak bukatu bezain laster, lanerako deitu zioten Olaztiko porlandegitik. Han lanean zebilela, labe berri bat ekarri zuten Danimarkatik porlana egiteko, eta Danimarkako ingeniariari laguntzen aritu zen Andoni. Urtebete eman zuen han.

529. Industri peritu izateko ikasketak Donostian (ATG-030/008)

Industri peritu izateko ikasketak egitera joan zen Donostiara; 5 urteko ikasketak izan ziren haiek.

530. Ikasi bitartean soldadutza egin behar (ATG-030/009)

Industri peritu izateko ikasketak egiten zebilela, soldadutzara joan behar izan zuen Afrikara. Handik itzuli zenean, ikasten jarraitu zuen; eta bukatutakoan, lanean hasi zen.

531. Fabrika txiki bat sortu zutenekoa (ATG-030/010)

Industri peritu ikasketak egin ostean, Lesakara joan zen lanera. Handik Elorriara joan zen eta fabrika txiki bat sortu zuten: material berri batekin hasi ziren lanean eta hainbat sarraila-lantegirekin izan zuten harremana. Material berri haren ezaugarriak aipatzen ditu.

532. Eskolarik ez zenean, etxeko sagardotegian laguntzen (ATG-030/013)

Andonik Astigarragako eskolan ikasi zuen 15 urte zituen arte; eskolara joan behar ez zuenean, etxeko sagardotegian aritzen zen laguntzen. Orduan sagardoa nola zerbitzatzen zen azaltzen du. Sagardotegian etxetik edo tabernatik ekartzen zuten bezeroek jatekoa, bertan ez baitzen ematen otordurik.

533. Ogia falta zeneko janaria (ATG-030/015)

Lehen arto asko landatzen zen eta animalientzat izaten zen. Gaztetan, ogi falta ezagutu zuten, eta talo asko jan behar izan zuten. Garai batean, okindegietan arto-irinarekin egindako opilak saltzen zituzten ogiaren ordeaz.

534. Baserriko jeneroa eramateko saskiak (ATG-030/017)

Arbia ganaduantzat egiten zuten: 6 behi eta txekorren bat izaten zuten beraiek baserrian. Esnea eta barazkiak saldu egiten zituzten. Lehengusua joaten zen jeneroa Bretxan saltzera; karga hura nola eramaten zen azaltzen du. Saskigileak lehen garrantzitsuak ziren, saski asko erabiltzen zirelako.

535. Saski motak (ATG-030/018)

Hainbat saski mota deskribatzen ditu.

536. Txerria hiltzeko prozesua (ATG-030/019)

Behiak, astoa, txekorra, txerriak, oiloak, untxiak... denetik zeukaten etxean. Txerria etxean hiltzen zuten; txerria hil eta hesteak garbitu arteko prozesua nola izaten zen azaltzen du.

537. Odolkiak egiteko prozesua (ATG-030/020)

Txerriaren hesteak garbitzean, odolkiak egiten zituzten. Prozesua nola izaten zen azaltzen du.

538. Txerrikia kontserbatzeko modua (ATG-030/022)

Txerrikia ondo kontserbatzeko, gatzetan sartzen zuten.

539. Arrautzak erostera Tolosara (ATG-030/024)

Ama Tolosako feriara joaten zen larunbatero eta handik ekartzen zituen arrautzak, bai etxerako, bai tabernarako. Ama trenez joaten zen; arrautza-saltzailea Ezkurakoa zen eta autobusez joaten zen Tolosara. Arrautza dozenak kontatu egiten ziren saltzeko. Arrautzak belar artean eramaten zituzten.

540. Tabernako janaria (ATG-030/025)

Ama ibiltzen zen sukaldean etxean. Lehen tabernan tortilla eta bakailaoa jaten zen gehienbat. Horrez gain, beste zer janari jaten zituzten azaltzen du. Arrain-saltzaileak Astigarragara etortzen ziren.

541. Tabernako edariak (ATG-030/026)

Tabernan ardoa eta sagardoa edaten ziren gehienbat. Gabonetan edari bereziak edaten ziren. Gainerakoan, pattarra, anisa eta uxuala ere edaten ziren, besteak beste.

542. Tabernaz gain, denda ere bai (ATG-030/027)

Tabernatan normalean emakumeak ez ziren sartzen; beraien tabernan, ordea, janaria saltzen zutenez, hartara sartzen ziren. Dendan denetik saltzen zuten: alpargatak, janaria...

543. Upelen tamaina eta haiek nola bete eta hustu (ATG-030/030)

Sagardotegian 22 upel zeuzkaten, baina upel txikiak ziren oraingoan aldean. Astigarragan Martin Berrondok egiten zuen sagardo gehien garai hartan; sagardoa Ergobitik Donostiara nola eramaten zuen azaltzen du. Lehen upelak nola betetzen zituzten azaltzen du.

544. Upelak nondik eta nolakoak (ATG-030/031)

Upelak egiten zituen arotzak hainbat lekutan zeuden: Ergobin, Martutenen... Gerora, Asturiastik hasi ziren ekartzen upelak. Upel gehienak egiteko haritza erabiltzen zen lehen.

545. Upelak garbitzen (ATG-030/032)

Upelak ondo mantentzeko, garbitu eta itxita edukitzen zituzten. Upelak nola garbitzen zituzten azaltzen du.

546. Ganadua eta herritarrak kale berean aurrera eta atzera (ATG-030/037)

Ergobi lehen nolakoa zen azaltzen du: ganadua libre uzten zuten eta askara joaten zen ura edatera; bidean simaurra uzten zuten eta gero jendea handik igarotzen zen asko inporta gabe. Baserri inguruan alpargatak erabiltzen zituzten; baina Donostiara eta elizara joateko, zapatak.

547. Lurra lantzeko tresnak eta ongarriak (ATG-032/004)

Lurra lantzeko, hainbat tresna erabiltzen zituzten: goldea, karramarroa, alferra... Nolakoak ziren eta nola erabiltzen zituzten deskribatzen du. Simaurra eta ganaduaren pixa erabiltzen zuten lurraren ongarri gisa.

548. Guardia zibilaren ondoan egindako eskapada (ATG-032/006)

Errotak itxita egon ziren garai batean. 14 urte bete baino lehen, Pedro Oiartzuna joaten zen behorrarekin artoa ehotzera. Behin errotariak irina eman eta guardia zibilak ia-ia harrapatu zuenekoak kontatzen du.

549. Jeneroa ez entregatzeko, ezkutatu (ATG-032/007)

Baserriko jeneroa entregatu egin behar izaten ziren udaletxeko eraikinera; gerora gai haiek usteldu egiten zirela konturatu ziren. Orduan saiatzen ziren jeneroa ezkutatzen, baina beti ez zen ondo ateratzen.

550. Urdaiazpikoa kontserbatzeko erak (ATG-032/011)

Txerriaren urdaiazpikoa kontserbatzeko, gazi-kutxan sartzen zuten; bi egunetik behin mugitu egiten zuten haragia eta 20 bat egun pasatakoan, zintzilik jartzen zuten piper-hautsa emanda.

551. Plastiko-fabrikaren izenak eta han erabiltzen ziren materialak (ATG-032/029)

35 urtean aritu izan da plastiko-fabrian lanean. Hainbat izen izan ditu fabrika horrek. Plastikoaren formula egiteko zer material erabiltzen zuten aipatzen ditu.

552. Likido kantzerigenoarekin lanean (ATG-032/030)

Plastikoa egiteko prozesuan oso likido kantzerigenoarekin egiten zuten lan fabrian; anestesiak egiteko erabiltzen omen zen. Likido hura nola sortzen zen azaltzen du.

553. Zortzi urterekin barnetegira (ATG-034/003)

Ixabelita, oso bihurria zenez, etxetik hurbil zen eskolara joan zen, eskapa ez zedin. Handik Donostiako barnetegi batera joan zen ikastera. Mojak ziren bertan, frantsesak. Sei urtez egon zen han, eta lo eta jan ere bertan egiten zituen. Igandetan, ordea, familiarekin elkartzen zen harrremana gal ez zedin.

554. Valladoliden azterketak (ATG-034/005)

Barnetegian ikasi ondoren, Valladoliden errebalida egin zuen, Donostian ez baitzen aukerarik. Pastel mordoa jan zuen bertan. Horrela, hamasei urte bete zituenerako, ixabelitak maistra titulua lortu zuen.

555. Ramon Vizcainora lanera (ATG-034/007)

Herriko maistra izateari utzi eta mekangrafia prestauntza ikasi ondoren, Ramon Vizcaino enpresan hasi zen lanean. Bertan ezagutu zuen bere senarra, bere nagusia baitzen.

556. Etxeetako arreoak ikusgai (ATG-034/009)

Senarra lanean ezagutu eta Ramon Vizcainoko lana utzi zuen, nobiotan baitzeuden, elkarrekin denbora gehiegi pasatzen zutelakoan. Etxean lan egiten hasi zen orduan Ixabelita, maindireak josten.

557. Lana uzteagatik ordainsaria (ATG-034/011)

Lege bat egon zen, emakumea ezkondu ondoren lana utziarazten zuena, eta ordainsari bat ematen zitzaion trukean emakumeari.

558. Ramon Vizcainoko administraria (ATG-034/013)

Itsasontzietako hotza jarri zuen lehen enpresa izan zen Ramon Vizcaino, eta Ixabeltak prozesu honen kudeaketa egiten zuen.

559. Izotza egiteko hozkailuak (ATG-034/014)

Ramon Vizcaino ezaguna bihurtu zen bere lan onagatik, eta ekoizten zituzten hozkailuengatik ere bai.

560. Almandoztarrak Astigarragan (ATG-034/016)

Almandoztarrak Astigarraga aldera joan ziren. Apaiztegi baserria hartu zuten eta bi familia bizi izan ziren han. Amona, senarra hildakoan, komertzioan aritu zen Frantziarekin.

561. Amona kontrabandoan (ATG-034/018)

Amonak kontrabandoa egiten zuen bere gurdiarekin. Frantziatik ekartzen zituen gauzak, baina behin harrapatu egin zuten.

562. Familiarteko akordioak (ATG-034/019)

Familiek adostu egiten zuten euren alaba eta semeak ezkontzea, oso ohikoa zene hau. Apaizak ere askotan izaten zuen zer esan.

563. Dantza-lotua festetan (ATG-034/020)

Ligatzea oso zaila izaten zen, herriko festetako dantza-lotua baliatzen zen askotan. Hernaniko plazara dantzan jaotea ere tentagarria izaten zen oso.

564. "Ez genuen pentsatzen" (ATG-034/022)

Gaztea zen garaiko bizimoduari buruz dihardu Ixabelitak pasarte honetan.

565. Aiton-amonei berorika (ATG-035/002)

Aitona eta amonari berorika hitz egin behar izaten zion Ixabelitak. Amari ere denbora luzez berorika zuzentzen zitzaion.

566. Andrea eta jauna (ATG-035/004)

Amona Mutriku aldekoa zenez, Ixabelita "andrea" deitzera ohitu zuen, baita harengana berorika zuzentzera ere.

567. Aitona pilotaria (ATG-035/006)

Amona mutrikuarra zuen. Aitona pilotari gisa joan zen Montevideora.

568. Aitonaren Hego Ameriketako bitxiak (ATG-035/007)

Aitona Buenos Airesen eta Montevideon ibili zen pilotari gisa, anaiarekin. Handik, ordea, dirurik ez zuten ekartzen, bitxiak baizik.

569. Amonaren denda (ATG-035/011)

Dendako atea beti zabalik zegola gogoraten du Ixabelitak. Aza mordoa saltzen zuten bertan.

570. Amonaren dendako produktuak: trukea (ATG-035/013)

Dendan saltzen ziren gauzak aipatzen ditu Ixabelitak, besteak beste, tabakoa, albarkak, muki zapiak, baserritarren barazkiak...

571. Ikasteko aukera ez zuen edonork (ATG-035/016)

Etxean maisra izateko aukera eman zioten, orduan oso ohikoa ez bazen ere.

572. Herriko eskola (ATG-035/018)

Kanpotik etortzen ziren beti maisu eta maistrak herriko eskolara. Ume asko izaten ziren beti, baina neskak eta mutilak bananduta.

573. Mutrikura ihes (ATG-035/025)

Amona mutrikuarra zuen, eta familiak bertara egin zuen ihes gerra garaian. Hegazkin batzuek babarrun txuriak botatzen zituzten, eta hauen bila joaten ziren ume guztiak.

574. Erreketeak sartu zirenekoa (ATG-035/027)

Mutrikun erreketeak sartu eta haietako bat ezagutu zuen Ixabelitak.

575. Garai bateko Astigarraga (ATG-035/029)

Astigarraga nolakoa zen azaltzen du Ixabelitak pasarte honetan.

576. Astigarragako euskara (ATG-035/032)

Maistra lanetan ibili zen Ixabelita, dotrina euskaraz erakusten. Donostiako eta Astigarragako euskara oso desberdinak direla dio.

577. Donostiaren eta Astigarragaren arteko aldea (ATG-036/004)

Astigarragan giro lasaiagoa eta etxeagoa. Donostian prezioak garestiagoak dira.

578. Asteburu bat Astigarragan (ATG-036/007)

Asteburuan Astigarragan geratuz gero, plana zernolakoa izaten den kontatzen dute. Donostiara afaltzera joan baino, nahiago izaten dute zentro komertzialetara joatea.

579. Iruñera egunpasa (ATG-036/008)

Tarteka autoa hartu eta Iruñera joaten dira, egunpasa, arropa eroatera-eta. Yeelenen ama ehungintzan aritzen da, eta moda kontuez informatuta eduki ohi ditu alaba eta haren lagunak.

580. Arropa asko garestitu da (ATG-036/009)

Arropa asko garestitu omen da azken urteetan. Euskal Herriko dendetan ia edozein arropa mota aurki daiteke. Hala ere, gaur egun, bada internetetik erosketak egiten dituenik ere.

581. Moda "globalizatua" (ATG-036/010)

Gaur egun herrialde gehienek egiten diote men moda korrante berari. Deportibak kaletik ibiltzeko modan jarri zirenekoa. Moda tendentzien sortzaileak.

582. Modakoa erosten (ATG-036/011)

Yeelen eta Leire neraberzaroan hasi ziren erosi nahi zuten arroparen (eta nahi ez zutenaren) berri gurasoei ematen, eta jantzi nahi zuena hautatzen, Yeelenen kasuan, umetatik.

583. Moda, komunikabideak eta IKTak (ATG-036/012)

Modak hainbat komunikabide baliatuz hedatu daitezke: telebista, aldizkariak, internet... Euskaraz ez dago modari buruzko aldizkaririk, gazteleraz topa daitekeen modukorik, behintzat. Gaztelerazkoetan oso arruntak dira txutxumutxua eta pertsonai famatuen kontuak haizatzea.

584. Modari buruzko blogak (ATG-036/013)

Modari buruzko blogak badira, eta horien artean, jende famatuarenak (normalki oso axalekoak eta funts handirik gabeak) eta adituenak bereiz daitezke. Yeelenek eta Leirek ez dute halakorik jarraitzeko ohiturarik.

585. Zinezaleak (ATG-036/014)

Yeelen zinezale purrukatua da. Ia astebururo joaten da. Leirek gustuko du filmak ikustea, baina etxeko patxara nahiago, zine-aretoa joan baino.

586. Beldurrezko pelikularik ez (ATG-036/015)

Pelikula erromantikoak gustatzen zaizkio Yeeleni, edo akzio askokoak, bestela. Beldurtzeko eginak direnak ezin ditu jasan. "Lasa eta Zabala" filma bera ere, esaterako, oso gogorra egin zitzaion. Yeelenek ez bezala, Leirek gustuko ditu beldurrezko filmak.

587. Zinera joatea, garesti (ATG-036/016)

Zineko sarrerak ez dira merkeak, baina hain zalea denez, prezioa ez da muga Yeelenentzat. Zine areto merkerik ere ezagutzen du, gainera.

588. Bertako filmak vs. kanpoko filmak (ATG-036/017)

Yeelenek estimu handiagoan ditu euskal aktoreak eta aktore espainolak, Amerikarrak baino. Leirek nahiago izaten ditu Hollywooden egiten diren filmak. Bypass filma ikusi zuten Yeelenen eskolan, euskaraz, eta ikasleak oso gustura atera ziren aretotik.

589. Bypass filma (ATG-036/018)

Bypass filma zertaz den kontatzen du Yeelenek.

590. Gustuko aktoreak (ATG-036/019)

Leireri Morgan Freeman aktorea gustatzen zaio. Yeeleni bertako eta Espainiako hainbat aktoreren bizitzaren eta lanaren berri jakitea gustatzen zaio.

591. Bertsio originala (ATG-036/021)

Leire eta Yeelen ez dira filmak bertsio originalean ikustearen aldekoak, jatorrizko hizkuntza ezagutzen ez dutenetan, behinik behin, azpitoluak irakurtzeko astirik ez die ematen eta.

592. EGA azterketa prestatzen AEKn (ATG-036/023)

Oso gustura ari dira EGA azterketa prestatzen, Astigarragako AEKn. Gustura daude irakaslearekin eta gustura ere metodologiarekin zein jasotzen duten arretarekin.

593. EGA azterketari buruzkoak (ATG-036/024)

EGA azterketak sortzen dizkien kezak aletzen dituzte Leirek eta Yeelenek.

594. Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da (ATG-036/029)

Hizkuntza ohiturak aldatzeko zailtasunari buruz mintzo dira.

595. EGari buruzko iritzia (ATG-036/035)

Euskarazko Gaitasun Agiriari buruzko iritzia ematen dute Leirek eta Yeelenek.

596. Giro ona euskaltegian (ATG-036/036)

Euskarazko Gaitasun Agiria lortzeko prestaketa lanetan ederki pasatzen dute biek, Hernanialdeko AEK-k Astigarragan duen euskaltegia.

597. Zilegi eskola (ATG-036/037)

Hernanialdeko AEK-k euskalduntze prozesua eta alfabetatzea modu naturalean lantzeko abian jarritako ekimena.

598. Kultur Etxean ekimen franko (ATG-036/039)

Astigarragako liburutegia Kultur Etxean dago. Jende dezente ibili ohi da bertan, eta ekimen franko antolatzen omen dituzte. Indarkeria matxistaren aurka bufanda erraldoi bat egin omen zuten. Jende asko hurbildu omen zen parte hartzera, tartean, Yeelenen amona.

599. Astigarragako gaztelekua (ATG-036/040)

Astigarragan gaztelekua bada, eta aktibitate asko izaten omen da 18 urte bitarteko gazteentzat. Hortik gorakoek, aldiz, ez daukate non egon.

600. Txakurra dugu etxean (ATG-037/004)

Labrador arrazako txakurra du Ainhoak etxean.

601. Txakurrak eta katua etxean (ATG-037/005)

Yorkshire arrazako txakurra du Lidiak etxean.

602. etxe-animaien eta jabeen arteko lotura (ATG-037/006)

Lotura afektibo handia sortzen da etxe-animaliaren eta jabearen artean.

603. Etxe-animaliak eta oporrak (ATG-037/007)

Etxe-animaliak dituenak konponbideak bilatu behar ditu oporretan kanpora atera nahi duenean.

604. Txakurrak eta katua lagunetan lagun (ATG-037/008)

Ederki asko moldatzen dira elkarrekin Lidiaren txakurrak eta katua.

605. Drogen inguruko informazio gutxi (ATG-037/013)

606. Gurasoekin drogari eta sexuari buruzko kontu gutxi (ATG-037/014)

Gurasoekin drogari eta sexuari buruzko kontu gutxi komentatzen omen da, orokorrean. Lagun artean komentatzeko ez omen da arazorik. Hala ere, aurrerapausoak sumatzen dira.

607. Ligatze kontuak (ATG-037/016)

Ligatzeko ez dira konbinazio ona gaua eta parranda. Gehiegi edan eta paperak galtzeko arriskua dago. Egoera deserosoak izaten dira, eta horregatik, Ainhoaren kuadrillak talde jarrera itxia azaldu ohi du.

608. Ligatzeko egoera aproposak (ATG-037/017)

Ligatzeko egoera aproposak izan daitezkeen batzuren errepasoa.

609. Parrandako zenbait une deseroso (ATG-037/019)

Parrandan atera eta deserosoak izan daitezkeen hainbat egoera aipatzen dituzte.

610. Dendarik denda (ATG-037/021)

Ainhoa bada dendarik denda ibiltzekoa; Lidia, aldiz, ez. Hala ere, arropa probatu eta aurrenekotik gustukorik aurkitu ezean, martxa etxera; horretan biak datoz bat.

611. Arropatan zer da garesti? (ATG-037/022)

Arroparengatik zenbat ordaintzeko prest egon ohi diren kontatzen dute.

612. Arroparik ez internet bidez (ATG-037/023)

Arroparik ez dute internet bidez erosten, non eta, Ainhoaren kasuan, marka ezagutzen ez duen, eta erosi eta gero bertako dendaren batean aldatzeko aukera eskaintzen badiote, beti ere. Lidiak arroparen berri jakiteko erabiltzen du internet.

613. Sare sozialak (ATG-037/024)

Ainhoak "Instagram" erabiltzen du asko. Lidiari mesfidantza puntua pizten diote sare sozialek. Kontrola eta gaizki ulertuak aipatzen dituzte, sare sozialekin lotuta.

614. Telefonoarekiko menpekotasuna (ATG-037/025)

Ezin etxetik irten telefonorik gabe. Eta ahaztekotan, buelta erdia eman eta haren bila.

615. Sakeleko telefonoa eta "kargadorea" (ATG-037/027)

"Kargadorea" askotan gainean eraman behar, sakelekoa bateriarik gabe geratzen bada ere.

616. Kirol pixka bat astean zehar (ATG-037/029)

Gimnasia edo igerilekura joanda edo ibiltzera aterata, kirola egiten dute astean zehar.

617. Irakurzaletasun handia (ATG-037/031)

Etiket edo familikoren batengandik datorkie irakurzaletasuna. Gaztelaraz irakurtzeko joera dute.

618. Erregistro informala falta (ATG-037/034)

Informaltasun gehiago eskertuko lukete Euskal Literaturan. Gaztelaraz denetik irakurtzen dute. Lidia "La sombra del viento" liburua irakurtzen ari da, bigarren aldiz.

619. Musika eta irrati zalea (ATG-038/002)

Musika zalea da. Musika ez bada irrati entzuten du. Etxean betidanik entzun izan dute irrati.

620. Etxekoen musika eta irrati zaletasuna (ATG-038/003)

Amarekin antzeko zaletasunak zituen musikari eta irratsaioei zegokienean. Anaiarekin, ordea, "konfliktoa" sortzen zen. Anaiak gustuko zuen musika erakusten zion.

621. Anaiari esker ezagututako musika (ATG-038/004)

Hip-hop, rap, heavy metal, rock lasaia... era askotako musika erakutsi izan dio anaiak Ainhoari. Berak ere boladak izaten omen zituen. Anaiari esker ezagutu zituen zenbait talde.

622. "Zombies" kantaren bolumena topera jarri nahian (ATG-038/005)

Anaiari esker ezagututako "Violadores del verso" taldearen Zombies abestiaren inguruko anekdota gogoratzen du. Bi gailutan batera martxan jarri nahi izan zuten, bolumena topera igotzeko.

623. Playlisten abantailak (ATG-038/007)

Musika aplikazio askok alderdi onak dituztela dio Ainhoak. Playlistek abesti ezberdinak entzuteko aukera ematen dute eta ezagutzen ez diren abestiak ere bertan aurkitu daitezke.

624. Egunerokotasunean gaztelanitik euskarara salto (ATG-039/002)

Garai batean egunerokotasunean gaztelania gailentzen bazuen ere, aurka-apurka euskara bere bizitzan sartzen ari da. EGA azterketa ere prestatzen ari da

625. Hizkuntza ohiturak aldatzeko zailtasuna (ATG-039/004)

Poliki-poliki euskara egunerokotasunean sartzeaz ari da Lidia pasarte honetan, hizkuntza ohiturak aldatzea ez baita erraza.

626. Euskarak ateak zabatzen al ditu? (ATG-039/006)

Euskara ikastearen abantaila batzuk aipatzen ditu Lidiak.

627. Markesaren administrariak (ATG-041/003)

Markesaren ondasunen administrariak ziren. Abenduaren 18an urteko errenta ordaintzera etortzen ziren baserritarrak eta diruaz gain, kapoiak ere ekartzen zizkieten. Haiek Markesaren palaziora eramaten zituzten. Garai batean hamarrak eta primiziak kobratzen omen ziren frontoian.

628. Sagardoa xoxean saltzen zenean (ATG-041/005)

Orduko sagardotegia: hamar upel inguru izaten zituzten eta txotxean saltzen zuten sagardoa. Edalontzia "xoxian" saltzen zuten, zentimo batean. Sagardo ona non zegoen berehala zabaltzen zen. Kupel bat bukatzen zenean, beste bat hasten zen. Jendez gainezka egoten zen sagardotegia. Mahaiak kupelen ondoan eta ikuluan izaten zituzten.

629. Sagardotegiko zereginak (ATG-041/006)

Sagardo denboraldia kartel bat jarrita hasten zen. Ahoz aho zabaltzen zen. Edalontzian saltzen zen sagardoa; bi lagun artean moldatzen ziren: batek sagardoa zerbitu eta besteak edalontziak garbitu. Jornalean herriko neskak ere etortzen ziren lanera.

630. Menua: txitxarroa, legatza edo tortila (ATG-041/007)

Angula garaian zartagiarekin etortzen ziren gosaltzera batzuk sagardotegira. Pasadizo barregarria kontatzen du. Jatekoa etxetik ekartzen zuten batzuek baina gehienez bertan ematen zuten: txitxarroa, legatza eta tortila, bakailaoarekin edo sardin zaharrekin. Batzuek jarrita eta beste askok zutik jaten zuten. Txuletak ere jaten ziren baina gutxiago.

631. Jatordua bi pezeta (ATG-041/008)

Sukaldean labetxoa izaten zuten, egur-ikatzarekin erabiltzen zena. Parrilatxoa izaten zuen labetxoak. Postrerik ez zuten ematen. Jatordua bi pezeta inguru izaten zen.

632. Sagardotegia jendez gainezka (ATG-041/009)

Hernanitik eta Donostiatik tranbian etortzen ziren lagun-talde handiak. Klase guztietako jendea etortzen zen. Ia egunero seietatik aurrera jendez betetzen zen eta asteburuetan egun guztian. Maiatzerako denboraldia bukatu egiten zen.

633. Donostiako tabernariak kupelak aukeratzen (ATG-041/010)

Sagardo denboraldia bukatzean, botilaratu egiten zuten. Donostiatik etortzen ziren tabernariak kupela eskatzera; haiei txanpain botiletan eramaten zieten sagardoa. Idiekin eta gurdiekin zein kamioiarekin eramaten zituzten botilak.

Ergobin guardabinoak egoten ziren kanpotik zetorren alkoholagatik zerga kobratzen. Sagardoa zein tabernatara eramaten zuten aipatzen du.

634. Pitarra etxerako (ATG-041/011)

Pitarra etxean edateko egiten zen batik bat eta urte osorako izaten zen. Botilan sartzen zuten. Sagarraren ura gutxi edaten zen. Egurrezkoak izaten ziren mahai-aulkiak. Mantelik ez zuten izaten.

635. Bertsolariak sagardotegian (ATG-041/012)

Txirrita ezagutu zuen. Aitonaren anai bat golfoa omen zen eta haren kontuak kontatzen zituen. Sagardotegian bertsotan nortzuk ibiltzen ziren kontatzen du.

636. "Kimikuak" zetozenean (ATG-041/013)

Denetariko jendea ibiltzen zen sagardotegian. Ameriketan dirua eginda etortzen zirenei "kimikuak" esaten zieten eta haiek non, jendea bertara biltzen zen.

637. Galtzen zuenak, erronda ordaindu behar (ATG-041/014)

Karta-jokoan tutean, punttuan eta musean aritzen ziren. Tokan eta bola-jokoan aritzen zen jendea. Tokan sei fitxa botatzen ziren eta galtzen zuenak, erronda ordaindu behar izaten zuen.

638. "Txotx!" eta "Mojon!" (ATG-041/015)

Sagardotegiko aldaketak gerra bukatu eta berehala gertatu ziren. Txotxa edo zipotza erabiltzen ziren: aspaldiko garaietan "txotx" eta geroago "mojon" oihukatzen zen.

639. Sagarra jotzeko moduak (ATG-041/017)

Lehenengo dolarea nolakoa zen kontatzen du. Baserrietan pisiarekin jotzen zuten sagarra.

640. Sagarra nola biltzen den (ATG-041/018)

Markesaren sagastietatik ekartzen zuten sagarra gurdiaekin. Kizkiarekin biltzen zuten. Lehenengo sarea betetzen zen, zestoa, eta handik zakua. Sagar-motak izendatzen ditu.

641. Inguruko baserrietako sagarra (ATG-041/019)

Biltzen zuten sagarra etxerako izaten zen. Sagardorik egiten ez zuten baserrietatik sagarra ekartzen zieten dolarera. Sei zaku karga bat izaten zen eta horren arabera ordaintzen zen.

642. Zizarra eta sagardoa (ATG-041/021)

Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du. Lehen lau edo bost lagunen artean egiten zuten sagarra jotzeko prozesua. Sagarra ganbarara igo eta matxakara joaten zen eta handik dolarera. Irailean hasten ziren sagarrak biltzen eta aurreneko sagardoa gabon aurrean izaten zuten, zizarra izenekoa. Santa Krutzak artekoa zizarra izaten zen, handik aurrerakoa, sagardoa.

643. Lehengo sagardotegiak eta sagardoa (ATG-041/022)

Hogei sagardotegi inguru izaten ziren. Sagardoa egiten zuten baserrietan ere saltzen zuten txotxean. Tabernariak sagardoa aukeratzera etortzen ziren. Oraingo sagardoa askoz hobe delako dio. Lehen txarra bazen ere, edan egiten zen.

644. Dolaretik kupelera sagardoa nola eraman (ATG-041/025)

Karreto barrika zer zen eta nolakoa zen kontatzen du. Sagardoa karriatzeko erabiltzen zuten. Baserrietan erabiltzen zuten. Dolaretik kupelera mangerarekin edo bujoiarekin eramaten zuten. Bujoi ardo barrikaren modukoa izaten zen.

645. Bezeroak etxera esne bila (ATG-041/028)

Esnea zenbait etxetara banatzen zuen Joxe Antoniok, eskolara joan aurretik. Marmitak eskuetan zintzilik eramaten zituen. Gehienetan bezeroak etortzen ziren etxera marmitarekin esne bila. Txantxila heldulekua duen metalezko edalontzia da eta horrekin neurtzen zen esnea.

646. Donostiako okindegiatarako egurra ekartzen (ATG-041/029)

Basotik egurra ekartzen zuten saltzeko. Eskuzerarekin eta aizkorarekin moztzen zuten egurra, gurdiaarekin kamioira eraman eta hark Donostiako okindegiatara eramaten zuen. Prozesua azaltzen du. Paga eta haritza izaten zen estimatuen. Arotzentzat ere prestatzen zuten egurra.

647. Kupelak zela mantendu (ATG-041/030)

Kupelak bertako egurrarekin egiten ziren, gaztainarekin eta haritzarekin. Ondo mantentzeko hustutakoan garbitu eta lehor gorde behar izaten zen. Tarteetan seboa ematen zitzaion. Kupela nola garbitzen zuten kontatzen du.

648. Estankoa etxea (ATG-042/002)

Estankoa etxean bazen estankoa, taberna, denda... Zer saltzen zuten kontatzen du.

649. Txalaparta mantendu zuten familiak (ATG-042/004)

Sagardo lanak bukatutakoan txalaparta jotzen zen. Berak ez du ezagutu. Txalaparta mantendu zuten bi familien berri ematen du.

650. Sagardotegian kupel txikiak (ATG-042/005)

Etxeko sagardotegian kupel txikiak egoten ziren lehen eta lurra egurrezkoa zeukaten.

651. Sagardotegiko menua (ATG-042/007)

Ergobin zortzi sagardotegi zeuden. Bere amak enkarguz prestatzen zituen jatorduak tabernan, bakailaua eta tortila gehien bat. Txuleta gutxi jaten zen. Sardin zaharrak amak nola prestatzen zituen kontatzen du.

652. Donostiatik Ergobira (ATG-042/008)

Donostiatik jende asko joaten zen Ergobiraino sagardotegira, tranbiaz edo autobusez. Upelak hasi eta bukatu egiten ziren txotxean salduta.

653. Ergobiko plazan behiak (ATG-042/009)

Ergobin etxeak ez dira asko aldatu. Erdiak baserriak ziren. Denetara 80-90 behi inguru izango ziren eta plazara joaten ziren ura edatera.

654. Edalontziak nola garbitzen zituzten (ATG-042/010)

Sagardotegian edalontziak nola garbitzen zituzten kontatzen du.

655. Campion sagardozalea (ATG-042/011)

Neskatxak izaten ziren sagardoa zerbitzen. Hotz handia egiten zuen sagardotegietan. Arturo Campion sarritan joaten omen zen Gartziategira. Oinez, tranbian eta autobusez etortzen ziren bezeroak.

656. Txirritaren kontuak (ATG-042/013)

Ez dauka gogoan mozkortuta inor beraien etxean lotan geratu izana. Goizean bederatzieta irekitzen zen eta gauetz hamarrek aldera ixten zen. Txirritagatik kontatzen zuten arropak ekartzen zizkietela etxetik aldatzeko.

657. Bertsoak eta apustuak (ATG-042/014)

Bertsotan eta kantari aritzen ziren gazteak Ergobin. Bertsoa eta apustua izaten ziren haien ohiko jardunak. Astigarragan bazen bertsolari bat, Inaxio Berasarte. Bertsolari ezagunak festetan etortzen ziren. Bertako jendea berehala hasten zen bertsotan.

658. Ergobiko sagardotegiak (ATG-042/015)

Ergobiko auzuneko sagardotegiak izendatzen ditu: Pagua, Otaño, Krixpin Lete, Ajuria, Ramon Isasa, Herrero, Bereziartua eta Alberro.

659. Sagardoa Donostiako elkarteetara (ATG-042/016)

Sagasti asko izanda, sagardo asko egiten zen. Sagardoa botiletan sartu eta Donostiako elkarteetara saltzen zuten.

660. Sagardotarako botilak (ATG-042/017)

Makina txiki batekin botilak nola garbitzen zituzten azaltzen du. Botila hutsak ekarri egiten zituzten bezeroek. Sagardoarentzako botila bereziak egiten ziren. Botiletako ura farmazietan saltzen zuten lehen eta litrokoak zirenez, haiek ere sagardoz betetzen ziren. Haiek gutxitutakoan, txanpain botilak erabiltzen hasi ziren.

661. Sagardo denboraldia iragartzen (ATG-042/018)

Igandetako mezaren ostean, bandoa jotzen zuten, sagardoa batean eta bestean saltzen ari zirela esanez. "Se vende sidra" kartela jartzen zuten atean.

662. Sagardoa nola edaten zen (ATG-042/019)

Sagardoa kanilatik zerbitzen zen edalontzika. Txotxa probaketarako erabiltzen zuten. Upeletik sagardoa ez zen apurtzen, ezta edalontzia okertu ere; botilatik edaterakoan bai. Edalontzia bete egiten zen.

663. Sagardotegiak ixten eta berreskuratzen (ATG-042/020)

Gerra ondorenean, sagardotegiak ixten hasi ziren, jendeak ez baitzeukan dirurik. Sagastiak ere kendu egin zituzten. 50. hamarkadan berriz ere ekin zioten sagardogintzari. Anekdotak bat kontatzen du.

664. Galera eta karreto-barrika (ATG-042/022)

Astigarragatik Donostiara karreto-barrikan sagardoa eramaten zuten. Galera izeneko gurdia deskribatzen du. Goizean goiz joan eta arratsaldean itzultzen ziren. Sagardo egin berria eramaten zuten, dolaretik atera berria.

665. Sagardoa eginda dagoela nola jakin (ATG-042/023)

Sagardoa eginda dagoen ala ez, usainean, aparrean eta kolorean nabaritzen zaio.

666. Txalaka sagarra nagusi (ATG-042/024)

Sagar-mota asko erabiltzen ziren sagardotarako. Sagardo-sagar nagusia txalaka da. Baserria ere bazegoen Ergobin izen berarekin. Sagar-mota batzuk izendatzen ditu. Denak nahasten zituzten sagardoa egiteko.

667. Sagarra noiz eta nola bildu (ATG-042/025)

Bazuten sagastia etxean eta denetariko sagarrak izaten zituzten. Santa Kurutze egunaren ostean, erori ahala batzen zuten sagarra, bere puntuan zegoela esan nahi baitzuen. Aurretik eroritakoak ez zuen balio izaten eta Santa Kurutze egunerako bildu egiten zituzten. Kizkia eta saskiarekin biltzen zituzten.

668. Herriko zestogileak (ATG-042/026)

Saskiak "xesteroak" egiten zituen, otargileak, Astigarragan bertan. Bestela, Hernaniko ferian eskuratzen zituzten. Herrian bertan zestogile bat zegoen, Beizamatik etorritakoa, eta bestea Kurutzetako ondoan egoten zen.

669. Etxekoa ez zen sagarra (ATG-042/027)

Sagarrak zakuetan sartzen zituzten. Beste baserri batzuetatik erosten zuten sagarra. Gurdietan ekartzen zieten. Inguru-ingurutik ekartzen zuten sagarra, urrutiagokoak ez zuela balio esaten baitzen. Geroago, Lesakatik eta Orio ingurutik ekartzen zuten sagarra.

670. Sagarraren prezioa (ATG-042/028)

Sagarraren prezioaren berri Hernaniko ferian izaten zuten. Baserrietara joaten ziren sagastiak ikustera eta tratua egitera. 50 kilo inguruko sei zakuk kargaosatzen zuten.

671. Sagardoa egiteko prozesua etapatxa (ATG-042/029)

Sagarrak hiru operazio egiten zituen: ganbarara igotzen zuten sagarra, matxakan jo eta dolarera erortzen zen. Hurrengo egunean biltzen zuten zukua.

Prozesua azaltzen du. Patxa ganaduarentzat izaten zen eta patxulora botatzen zuten. Ondo zapaltzen zuten (haizerik har ez zezan) eta gatz pixkat botatzen zioten.

672. Barrikotea (ATG-042/030)

Barrikotea: aurreneko sagardoa barrika txiki batean jartzen zuten eta 20-25 egunen buruan edateko moduan egoten zen.

673. Sagardoari eragiten dioten faktoreak (ATG-042/031)

Lau hilabete inguru behar izaten zuen sagardoak. Negu beroa edo hotza joan, aldea egoten zen. Upelen gainera igo eta belarria jarrita, irakiten zebilen edo ez nabaritzen zuten. Ilargiak zerikusia izaten du; azalpena ematen du.

674. Lehengo sagardoaren ezaugarriak (ATG-042/033)

Lehen sagardoak oso desberdinak ateratzen ziren upel batekoak edo bestekoak izanda eta zaila izaten zen zuzentzen. Goikoetxeko sagardoak fama handia zuen. Orain baino garratzagoak eta biziagoak izaten omen ziren sagardoak.

675. Sagardoaren zergak (ATG-042/034)

Sagastiak non zeuden aipatzen du. Donostiak Astigarraga bereganatu zuenean, zerga jarri zioten ardoari. Sagardoagatik udal-zerga ordaintzen zuten, egindako litroen arabera.

676. Upelgileak (ATG-042/035)

Joxe Miguel Lete upelgilea zen. Gurdiak ere egiten zituen. Gartziategiko Joxe Marik etxerako upelak berak egiten zituen, baita etxeko tresna guztiak ere.

677. Upelgintza (ATG-042/038)

Etxeko upelak betidanik ezagutu ditu. Aitak izan zuen kapritxo bat: gereziondoaren egurrarekin upel bat egin zuen, bi mila litro ingurukoa eta bestea sagarrondoaren egurrarekin. Upelak nola egin zituen kontatzen du. Martutenen bazen Lakatxa izeneko beste upelgile bat.

678. Upelen mantenua (ATG-042/039)

Upelak ondo mantentzeko hustu egiten zituzten, leihoak ondo lotuta. Urarekin eta erratzarekin garbitzen zuten barrutik. Gero lehortzen uzten zuten eta ondoren seboarekin tarteak pasatzen zituzten.

679. Joxe Alberro desagertua (ATG-043/004)

Aita biriketako gaitzarekin hil zen 1936an. Hilabete batzuen ostean, aiton-amonengana joan zen Anttoni amarekin eta senideekin. Irailaren 3an etxetik eraman zuten Anttoniren osaba bat eta ez zen berriz agertu. Joxe Aldabalde eta bere osaba Joxe Alberro Gamon hil zituzten egun berean.

680. Laringe-difteria gaixotasuna (ATG-043/005)

Anai zaharrena laringe-difteria gaitzarekin hil zen 1937an. Anttonik ere harrapatu zuen baina mediku batek emandako sendagaiak hartuta sendatu zen.

681. Eskola partikularretara ordubetez (ATG-043/006)

Eskola partikularretara joaten zen Anttoni, aiton-amonak zaindu behar izaten zituelako. Salbokonduktua lortu behar izaten zuen amarentzat eskolara joan aurretik. Dena erdaraz egin behar izaten zuten.

682. Amak erosi eta Anttonik saldu (ATG-043/007)

Hamasei urte ingururekin hasi zen Bretxan saltzen, amak ekarritakoak saltzen. Postuagatik asteen behin huskeri bat ordaintzen zutela dio. Ama inguruko herrietako merkatuetara joaten zen trenez, salerosketarako jakiak erostera. Animaliak beste postu batera saltzen zituen.

683. Ogia estraperloan (ATG-043/008)

Ogi gogorra izaten zuten gerra garaian eta amak Anttoni bidaltzen zuen trenean ogi zuria ekar zezan Tolosatik edo Villabonatik, ondoren Astigarragan estraperloan saltzeko. Ezkutuan ekartzen zuen ogia eta karabineroa zaindu behar izaten zuen, ez harrapatzeko.

684. Etxeko baratzea, golde erdi bat (ATG-043/009)

Anttoniren ama Tolosatik autobusez joaten zen Bretxara salgaiak hartuta, baina batzuetan kamioiz ere bai etxeraino. Baratze pixkat bazuten etxean, golde erdi bat.

685. Lizeaga sagardotegia berrogeita hamargarren hamarkadan (ATG-043/015)

Upelak etxerako bakarrik egiten zituen Anttoniren aitagarrebak. Anttoni ezkondu zenean Lizeaga nolakoa zen kontatzen du. Lurra garbitzeko nola moldatzen zen azaltzen du.

686. Sagardotegiko sukalde lanetan (ATG-043/016)

Anttonik bakailau tortilak egiten eta zerbitzen zituen. Antiguotik ekartzen zizkioten txuletak asteen behin eta nola prestatzen zituen kontatzen du. Antxoa denboran, antxoa nola prestatzen zuen kontatzen du. Ahizpak umeekin laguntzen zion.

687. Sagardoa botilaratu eta saldu (ATG-043/018)

Sagardoa botilaratu eta saldu egiten zuten. Basotik egurra ekarri, zerran txikitu eta kamioiarekin banatzen zuten.

688. Sagardoa txotxetik (ATG-043/019)

Sagardoa zipotza zabaldu eta txotxean edaten zen. Bezeroei aukeratzeko probatzeko ematen zioten.

689. Bertsolariak Lizeagan (ATG-043/024)

Bertsolariak izaten ziren eta ondo hartuz gero, kantuz hasten ziren. Gustora entzuten zituzten. Amaginarrebak esaten zion Txirrita oso laguna zutela. Gaueko hamaiketan amaginarrebak argia kentzen omen zien sagardotegian jarraitzen zutenei. Meltxor tranberoari buruzko anekdota kontatzen du. Biraoak esaten zituenari hamabost pezetako multa jartzen zioten.

690. Sagardoaren prozesua eta patsazuloa (ATG-043/025)

Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du. Makinarekin txikitzen zituzten sagarrak eta ondoren tolarera pasatzen zuten. Handik ateratako zukua tiniarekin kupelera pasatzen zuten. Patsazuloa non zegoen eta zertarako erabiltzen zuten kontatzen du. Patsa ganaduari ematen zitzaion eta negu guztirako beste izaten zuten.

691. Sagarraren bilketa eta garraioa (ATG-043/026)

Baserriaren goikaldean sagastia zeukaten baina inguruko herrietatik ere ekartzen zuten sagarra. Kizkiarekin sarera bildu eta handik zakua betetzen zen. Zakuak lotu eta leran ekartzen zituzten. Gurdiarekin eta kamioiarekin ekartzen zituzten inguruko herrietatik sagarrak.

692. Sagardotegietan garbitasun handia (ATG-043/030)

Lehenago eta oraingo sagardotegietan garbitasunari dagokionez aldaketa handia izan dela dio.

693. Orduko bizimodu alaiagoa (ATG-044/004)

Jolasa eta lana batera izaten ziren. Bizimodua hoztu egin dela uste du. Barre asko egiten zen eta elkartasun desberdina zegoela uste du. Auzolanean aritzen ziren baserriz baserri eta herri-bideak konpontzen ere bai. Belarra biltzen, sagarrak biltzen eta sagardoa botilaratzen laguntzera etortzen ziren. Geroago, jatordu eta diru pixka baten truke etortzen ziren.

694. Marianistekin batxilergoa eta idazkaritza teknikoa (ATG-044/007)

Donostiako marianistekin batxilergoa eta idazkaritza teknikoa ikasi zituen. Bizimodua bertan egiten zuen. Diziplinara moldatzen ikasi zuen eta ondo ibili zela dio. Bihurrikerietan ibiltzen ziren.

695. Parisen eta Alemanian hizkuntzak ikasten (ATG-044/008)

Parisera joan zen frantsesa ikastera eta Alemaniara hango hizkuntza ikastera. Bizipenak kontatzen ditu.

696. Zerbitzu soziala egin beharra (ATG-044/009)

Parisen zegoela, zerbitzu soziala egitera itzuli behar izan zuen etxera. Donostiako "Casa Cuna" haurtzaindegian aritu zen bi hilabetez mojekin eta ondoren Prim kalean josten eta beste hainbat gauza ikasten aritu behar izan zuen.

697. Sagardo probaketa eta otorduak (ATG-044/011)

Sagardoa probatzera etortzen ziren. Etxekoandrea plazara saltzera joandakoan, probatzera noiz etorriko ziren esaten zioten. Bakailau handiak zintzilik izaten zituzten. Nola prestatzen zuten kontatzen du. Sardin zaharra garaia zenean bakarri izaten zuten.

698. Barrikotearen ohitura (ATG-044/012)

Sagardoa probatzera Donostiatik etortzen ziren batez ere; Tolosalde, Azpeititik eta Irundik ere bai. Haiek sagardoa botiletan erosten zuten.

Barrikotea nola egiten zen kontatzen du. Ohitura handia zegoen eta Donostian zeuden sagardotegietan egiten zen. Basoka saltzen zuten.

699. Helduak eta umeak sagardoa edaten (ATG-044/013)

Errekalde baserrian basoka ere saltzen zuten sagardoa, Aste Santuan bereziki. Kupeletik sagardoa ateratzea mutilen lana izaten zen. Sagardoa probatzera gizonak etortzen ziren; emakumeak 70. hamarkadan hasi ziren. Umeek ere edaten zuten sagardoa.

700. Sagardotegiko jatorduak (ATG-044/014)

Batzuek etxetik lapikoa ekartzen zuten jatekoarekin. Haragia ez zen beti eskura egoten; abereak noiz hiltzen ziren adi egon behar izaten zuten. Sukaldaria etxeoandrea izaten zen. Aste Santurako kazuelatxoak eta tortilak egiten zituzten.

701. Amaren tortila ospetsua (ATG-044/015)

Amaren tortilari buruz artikulua idatzi zuen gastronomia kritikari batek. Liburuska urdin bat atera zuen eta hantxe agertu zen.

702. Sagardoa egiteko prozesua (ATG-044/018)

Sagarra morroiek biltzen zituzten. Ondorengo prozesua kontatzen du. Tinia, muztioa isurtzen den ontzia da. Sagarra txikitu eta dolarea bera elektrikoak ziren.

703. Kimikoak sagardotegietan (ATG-044/019)

Tranbian "kimikoak" deitzen zieten jauntxoak etortzen ziren. Txakurrak nora joaten ziren begiratzeko zuten, jendea zebilen lekuan ibiltzen baitziren, sagardo ona zegoen seinale. Kimikoak nora, jendea hara joaten zen gero, ospea baitzeukaten.

704. Jauntxoak Santiomendin (ATG-044/020)

Santiomendira jauntxoak joaten zireneko kontuak. Etxeko egongelan jaten zuten, erroberua edaten zuten eta aitonak prestatutako makilekin aldapan beheara jeisten ziren.

705. Bertsolari ezagunak sagardotegian (ATG-044/022)

Bertsolariak ibiltzen ziren sagardotegian, batzuetan bakarka eta beste batzuetan binaka. Erraz botatzen zituzten bertsoak. Bere aita zena Txirritarekin hasitakoa zen. Mattin, Uztapide, Mitxelena, Artano, Lazkao Txiki... ibiltzen ziren. Entzuteko eta lotsatzeko aukera izaten zuen.

706. Sagardoa botilaratzen bertsoan (ATG-044/023)

Amarekin sagardoa botilaratzen aritzen zenean, bertso zaharrak kantatzen zituzten. Bertso-paperetatik ikasi eta kantatu egiten zituzten.

707. Sagardotegiko jokoak (ATG-044/025)

"Tiro al blanco" jokoa egun berezietan egiten zen. Jokoa nolakoa zen azaltzen du. Sagardotegian tokan eta potoan aritzen ziren. Bertsolariak izaten zirenean luzatzen zen sagardotegiko lana gehien.

708. Sagardotegiak berritzen (ATG-044/026)

Sagardoa etxeko lanen osagarri zen garai batean eta Roxarioren aitak negozio bihurtu zuen, bodega berria eginez, Asturiaseko eredua ezagututa. Ez zuen lan erraza izan baina pixkaka aurrera egin zuen sagardotegiak.

709. Sagardotegien gainbehera gerra ostean (ATG-044/027)

Gerra ostean, jendea lantegietara lanera joaten hasi zenean, sagardotegiaren gainbehera etorri zen. Pasaian eraiki zuten tximiniak fruta hondatu zuela esaten zen. Sagarra kanpotik ekartzen hasi ziren, bertakoa gutxitu zelako. Gerraostean dirurik ez zen.

710. Sagardotegi berriak (ATG-044/028)

70. hamarkadan hasi zen sagardotegia indartzen, industrializatuta. Gaur eguneko sagardotegi eredua orduan hasi zen.

711. Astigarragako emagina (ATG-044/034)

Emagina izaten zen erditzeetan laguntzen zuena. Roxarioren eta bere amaren jaiotzetan emagin bera izan zen, bien amandrea izandakoa. Txominene etxekoa zen. Hura etortzerako, zapi zuriak eta ur beroa prest izaten ziren etxean. Klinikara larritasunen batengatik bakarrik joaten ziren.

712. Erremedioak baratzuriarekin (ATG-044/035)

Berbena, pasmo, plantina... belarrak erabili izan ditu. Baratzuria beratu eta ura hartuta, zizareak kentzeko; baratzuria txiki-txiki egin eta zauriak desinfektatzeko.

713. Berbena, osina, pasmoa eta plantina belarrak (ATG-044/036)

Berbenarekin, osinarekin eta pasmo-belarrarekin egin izan ditu ukenduak. Neurriak ongi ezagutu behar dira. Berbena infusioan ere hartzen da. Osinarekin odola kontrolatzeko infusioa egiten da. Etxean ikasi izan du. Plantina belarra sukarrarentzat erabiltzen da eta eztularentzat pita.

714. Donostiara esnea eta barazkiak saltzera (ATG-045/005)

Inprentan eta "Calderon Hermanos" lantegian lanean aritu zen. Hangoa utzi eta Donostiara esnea eta barazkiak saltzera joaten hasi zen. Nola moldatzen zen kontatzen du. Frantsesek argazkiak ateratzen zizkieten. Txantxila, litro erdia, izaten zen esnea banatzeko neurria.

715. Santiomendiko iturria (ATG-045/007)

Santiomendiko baserrietan urik ez zegoenean, iturri batetik 23 baserrik hartzen zuten ura. Astelehenetan arropa zuria garbitzen zuten han eta astearteetan koloretakoa.

716. Hozkailuaren ordezkia (ATG-045/010)

Lehenengo garbigailua deskribatzen du. Hozkailu funtzioa lurak betetzen zuen Joxeparen etxean. Aita nola moldatzen zen kontatzen du. Anekdotak bat kontatzen du, etxera hozkailu moduko bat eraman zueneko.

717. Santiomendiko sagardotegiak (ATG-045/012)

Santiomendin sagardoa egiten zuten baserriak izendatzen ditu. Goikoetxen sagardoa txotxean saltzen zuten eta igandetan jendea ogitartekoarekin egun pasa joaten zen.

718. Elkarreetako lagun-taldeak sagardotegietan (ATG-045/013)

Errekalde baserriko sagardotegian jatekoa ere ematen zuten. Haragia eta arraina kanpoan erretzen zituzten parrila batean. Elkarreetako jendea joaten zen sagardoa probatzera. Ondoren erosi egiten zuten sagardoa eta botilatan eramaten zuten. Arzakek ere egiten zuen.

719. Sagardotegietako aldaketak (ATG-045/014)

50. hamarkadan sagardotegietako giroa nolakoa zen kontatzen du. 60. hamarkadan aldaketa etorri zen: ilunabarrean bakailau tortila eta entsalada jatera joaten ziren familiak. Geroago, helduagoak afaltzera eta kantura etortzen hasi ziren. Gauero "guria da ta, guria!" kantatzen zuten gauero. Jende asko eta asko etortzen hasi zen.

720. Emakumea azpiratua (ATG-045/015)

Baserriko eta sagardotegietako emakumeen isilpeko lana ikaragarria izan zela dio. Meritu handiko emakumeak hil direla dio. Gizonaren baimena behar zuten gauza askotarako. Bere gurasoen garaian, emakumeak ezkontzea klausurako moja joatea modukoa zen. Bizimodu oso gogorra zuten. Xehetasunak ematen ditu. Herentzia hori jaso zuten. Gizonari obeditu egin behar zitzaiola erakutsi zieten, esplizituki esan gabe.

721. Emakumeak sagardotegietan (ATG-045/017)

Emakumeak sagardotegietan sartzen hasi zirenekoa. Pixkaka izan zen. Baziren egoera onartzen ez zutenak ere. Gaztetan ez ziren tabernara sartzen baina Oialumeko sukaldera joaten ziren udan gaseosa edatera. Mutilarekin hasi zenean, jatetxera joaten zen afaltzera baina tabernara ez.

722. Galtzak erostea bururatu zitzaionekoa (ATG-045/020)

Lantegian aritzen zenean, hotz handia pasatzen zuten neguan. Nagusiak arropa erosteko aukera eman zienean, galtzak erostea bururatu zitzaion. Lankideak kargu hartu zion. Neskak nola kritikatzeko zituzten kontatzen du.

723. Arropak garbitzeko tresna zaharrak (ATG-045/023)

Arropak garbitzeko tresna zaharrak erakusten ditu, neurri txikian eginda dituenak, eta azalpenak eman.

724. Karreto-barriak eta galera (ATG-045/024)

Karreto-barriak erakusten ditu, neurri txikian egindakoak, eta azalpenak ematen ditu.

725. Donostiara saltzera (ATG-046/004)

Baratzeko barazkiak saltzera eta esnea banatzera joaten zen ama Bretxara, lehenbizi tranbian eta geroago autobusean. Mertxe ere joaten zen tarteka. Igandetan esnea banatzera joaten zen etxez etxe.

726. Lehen estimatzen ez ziren arrainak (ATG-046/005)

Arrautzak eta untxiak ere eramaten zituzten plazara. Donostiatik etxera arraina ekartzen zuten batez ere. Orduan mespretxatzen ziren arrainak orain estimatu egiten dira.

727. Gaztañaga baserria (ATG-046/006)

Gaztañaga aspaldi Etxabeko borda zen. Aspaldi hango semeren batek borda egokitu zuen ezkondukoan, bertan bizitzeko. Inguruan gaztainondoak zeudelako ipini omen zioten izen hori. Belaunaldika moldaketak eta berrikuntzak egin zizkieten baserriari. Tolarea ezagutu zuen etxean umetan.

728. Sagardoa botiletan salgai (ATG-046/007)

Sagardoa egiteko prozesua deskribatzen du. Sagastiak non zituzten aipatzen du. Sagarrak zakuetan biltzen zituzten, idiekin ekarri eta bizkarka ganbarara igotzen zituzten. Sagardoa botilatutakoan saltzeko egiten zuten. Donostiako dirudunak etortzen ziren probatzera eta aukeratzera, erosteko.

729. Donostiako zaborrak luharretarako (ATG-046/012)

Donostian zaborra biltzen aritzen zen kale-garbitzailea eta idiekin eta gurdiekin joaten zirenei husten zieten. Mertxeren aita ibiltzen zen. Erriberetan hustutzen zuten. Beste herritar batek potoak eta botilak banatzen zituen.

730. Galerari buruzkoak (ATG-046/014)

Artoa, arbia eta beste hainbat lanetarako erabiltzen zen galera. Barkaiztegin bertan egiten zituzten galerak eta gurdiak. Hondarra Loiolatik ekartzen zuten, baratzean botatzeko.

731. Umetako eta gaztetako jai-giroak (ATG-046/018)

Hernaniko Tilosetara eta Oialumera joaten ziren, bateko eta besteko jaietara ere bai. Emakumeak tabernan bazkaltzera edo kafe bat hartzera bakarrik sartzen ziren. Aitarekin eta senideekin Amarako feriara joaten ziren.

732. Inguruko baserrietan sagardoa salgai (ATG-046/020)

Inguruko baserri batzuetan sagardoa egiten zen edalontzika saltzeko: Portutxon, Errekalden... Astigarraga beti izan da sagardozalea; sagasti asko kendu zituzten bere garaian.

733. Bizilagunaren telefonoa (ATG-046/024)

Txekorrak ere saltzen zituzten. Aita joaten zen feriara Hernanira edota Tolosara. Telefonoa zeukan bizilaguna bankuko idazkaria zen eta etxean telefonoa jarri zien. Orduko telefonoa deskribatzen du.

734. Lehen garbigailua (ATG-046/026)

Garbigailua beste batzuei baino goizago ekarri zioten. Anaiak nolatan ekarri zuen etxera kontatzen du. Mertxeren amak ez zuen halakorik nahi.

735. Plazarako zestoak (ATG-046/027)

Zesto handiak erabiltzen zituzten barazkiak eramateko. Baxuak izaten ziren eta askotan buru gainean eramaten zuten. Astoa eta gurdiaekin ere eramaten zuten. Kopa bizkarrean erabiltzen zuten. Oialume inguruan bazen zestogilea eta ari erosten zizkioten.

736. Astigarragako ferratzailea (ATG-046/028)

Ferratzailea non zegoen kontatzen du. Mojen eskola non zegoen azaltzen du. Dohantzan emandako eraikina zen. Idiekin joaten ziren ferratzailearengana.

737. Herriko zaindaria eta sakristaua (ATG-046/031)

Zeladora eta sakristaua zeuden lehen. Astigarragako ttunttuneroa zen, txistua eta danbolina jotzen zituena.

738. Santiomendi ia guztia markesarena (ATG-046/033)

Markesarena zen ia Santiomendi guztia. Santo Tomas egunean joaten ziren baserritarrak errenta ordaintzera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com